

Ipar Euskal Herria egituratze bidean



1790eko Biltzarretik Garapen Kontseilua arte (1994)
EAMUNTXO KANBLONG

Antolaketa eta Garapen eskema. Norabide orokorrak
PEIO OLHAGARAY

Instituzio bat Ipar Euskal Herriarendako
KOLDO GOROSTIAGA

Iritzi biketa: Nolako egitura politikoa?
JAKES ABEBERRI • FATXI NOBLIA • TXOMIN FEILLEN • JAKES SARRAILLET

Gure iritziz: Karlos Santamaria Ansa. Ez adicirik

Gaiak: Itzaropena, gaur egungo gure koldarkeria. ELENA MARTINEZ

Egunen gurtpilean: ALBERTO BARANDIAEAN • EDORTA JIMENEZ
• IMANÓLAGIRRE • ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNÁNDEZ

Liburuak: Fentsamendu katalanista krisian. FAKO SUDUPE

JAKiN

104


urtarrila
otsaila
1998



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Departamentuaren laguntza jaso du



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Gure iritziz

Karlos Santamaria Ansa ► 11
JAKIN

Karlos Santamaria: ez adiorik ► 15
JOAN MARI TORREALDAI

Gai nagusia

Ipar Euskal Herria egituratze bidean

1790eko Biltzarretik Garapen Kontseilua arte (1994) ► 21
RAMUNTZO KANBLONG

Antolaketa eta Garapen eskema. Norabide orokorrak ► 29
PEIO OLHAGARAY

Instituzio bat Ipar Euskal Herriarendako ► 51
KOLDO GOROSTIAGA

iritzi bilketa: Nolako egitura politikoa? ► 67
JAKES ABEBERRI, PATXI NOBLIA, TXOMIN PEILLEN, JAKES SARRAILLET

Gaiak

Itxaropena, gaur egungo gure koldakeria ► 81
ELENA MARTINEZ

Egunen gurpilean

ALBERTO BARANDIARAN • EDORTA JIMENEZ ► 89
• IMANOL AGIRRE • ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNANDEZ

Ciburuak

Pentsamendu katalanista krisian ► 121
PAKO SUDUPE

Jaso ditugu ► 133
IDAZKARITZA

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Imanol Murua Uria

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti


IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20009 Donostia
Tel. (943) 21 80 92 / Fax 21 82 07
jakin@jalgi.com

1998ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.500 pzta.	—
Ale arrunta	925 pzta.	1.350 pzta.
KANPOAN		
Harpidetza	6.000 pzta. (246 FF)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (41 FF)	1.550 pzta. (64 FF)

Summary



A tribute to Karlos Santamaria

The *Jakin* group expresses its gratitude to and admiration for the recently deceased Karlos Santamaria. Karlos Santamaria, as a thinker and cultural organiser, had been one of the most important characters that the Basque Country has produced. He had been closely linked to the magazine. The *Jakin* group has gathered together all his work and undertaken an extensive study of his thought, although regrettably, no institution has yet decided to publish it. ► JAKIN



The North Basque Country, towards Political Structuring

• *From the 1790 Assembly to the Board of Development (1994)*

The North Basque Country ceased to be a “collective entity” in the political spectrum after the French revolution, when it lost its own political institutions. Two centuries later, in 1994, the continental Basque Country would again become a “collective entity” with the creation of the Board of Development and the Board of Elects, as explained by Ramuntxo Kanblong —Director of the Board of Development— in his historical summary. ► RAMUNTXXO KANBLONG

• *Outline of the Organization and Development of the Basque Country*

The Board of Development has undertaken a strategic plan for the territorial organization of the North Basque Country. The plan has been approved by the General Council of the *Pyrénées Atlantiques* prefecture and by the Interministerial Council for Territorial Organization of the French Government. In his article, Peio Olhagaray, General Secretary of the Board of Development, summarizes the general guidelines of this plan. ► PEIO OLHAGARAY

• *An institution for the North Basque Country*

Work carried out regarding the strategic plan approved by the Board of Development has had as a backcloth a political debate on the convenience or not of creating a *département* (préfecture) specifically for the

North Basque Country. The jurist Koldo Gorostiaga analyzes the possibilities offered within the French legal framework for the Basque Country to be provided with its own political structure. ► KOLDO GOROSTIAGA

• *Opinions regarding the political structuring of the North Basque Country*

The politicians Jakes Abeberri and Jakes Sarraillet, the entrepreneur Patxi Noblia and the writer Txomin Peillen reply to three questions asked by *Jakin* about the convenience of the Basque Country being provided with its own political structure. The four aforementioned people express a favourable opinion as to the creation of the Basque *département*. ► *Various Authors*



A Hope: our cowardliness nowadays

In the opinion of Elena Martínez, Günter Anders never achieved the recognition he deserved as a philosopher and poet, although he had an influence on other thinkers from this century such as Adorno and Sartre. The author of the article stresses that Sanders was a thinker who, throughout his life, was committed to the fight against injustice; he was always critical of power. In the last years of his life, at the age of ninety, he continued to be committed to the fight against nuclear blackmail. ► ELENA MARTINEZ




News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, entertainments, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Alberto Barandiaran, Imanol Agirre, Erramun Baxok, Luis Fernandez and Edorta Jimenez. ► *Various Authors*



Pro-Catalan thought in crisis

The writer Pako Sodupe reflects on the crisis inherent in pro-Catalan thought in the critique he provides on the book *El cansament del catalanisme*, by the author Toni Strubell. Sodupe comments on Strubell's analysis of the crisis existing in Catalanism, laying special emphasis on references to Basque realities as noted by the Catalan author. ► PAKO SUDUPE



berrikuntzekin gatoz 1998. urteko lehenengo zenbaki honetan, bigarren aldiko 104.ean.

Aurpegia erabat aldatu diogu aldizkariari Garbiñe Ubeda diseinatzailearen eskutik eta, zalantzarik ez dugu honetan, berrikuntzak hobekuntza ekarri du. Ederragoa eta modernoagoa ezezik, aldizkari berritua irakurgarriagoa ere badelakoan gaude.

Diseinuzkoa da, zenbaki honetan, berrikuntzarik nabarmenena, baina edukietan ere badugu hobetzen, aberasten, jarraitzeko asmoa. Ipar Euskal Herriaren etorkizunerako giltzarri den gaia hartu dugu ardatz 104. zenbaki honetarako: lurralde antolakuntza.

1790ean Frantziako Iraultzarekin Ipar Euskal Herriak instituzio politikoak galdu zituenetik, Euskal Herririk ez da izan, subjeto politiko gisa, Frantziako Estatuan. Bi mende behar izan dira Ipar Euskal Herriak izaera hori, modu xumean bada ere, berreskuratzeko, Garapen Kontseiluaren eta Hautesien Kontseiluaren sorrerarekin. Ramuntxo Kanblong Garapen Kontseiluko lehendakariak (1994-98) ikuspegi historikotik aztertu du kontseilu hau sortu bitarteko bidea, *Gai Nagusia* saileko lehenengo lanean. Peio Olhagaray Kontseiluko idazkari nagusiak, berriz, onartu berria duten Lurralde Eskemaren nondik norakoen berri ematen digu.

Eskemaren proposamen nagusiak onartu dira baina, bai Kanblongek eta bai Olhagarayk ohartarazten dutenez, proposamen hauek nork eta nola bideratu behar dituen da

orain gakoa, Ipar Euskal Herriak ez baitu oraingoz egitura politiko propiorik. «Hori da gure gaurko kezka eta ber denboran esperantza. Noiz eta nola muntatuko den egitura hori», dio Kanblongek bere idazlanaren amaieran. Ipar Euskal Herriak egitura politiko propioa izan dezan Frantziako lege-riak zein aukera eskaintzen dituen aztertzen du, hain zuzen ere, Zuzenbidean doktore den Koldo Gorostiagak.

Garapen Kontseiluaren lanak barrutik edo hurbiletik segitu dituzten lau lagunen iritzi laburragoak datoz *Gai Nagusia* saileko azken zatian. *Jakin*-ek egindako hiruna galde-rari erantzun diete Jakes Abeberrik, Patxi Nobliak, Txomin Peillenek eta Jakes Sarrailet-ek. Beste lauk ez digute erantzunik bidali: Max Brisson, Jean Jacques Lasserre, Frantxoa Maitia eta Michel Intxauspe.


Gai Nagusia-ren aurretik topatuko duzu *Gure Iritziz* saila, Karlos Santamariaren heriotzaren oroimenez eta ome-nez. *Jakin* taldeak, editorial honetan, bere esker ona eta miresmena agertzen dio Euskal Herriak eman duen pertsona-litate garrantzitsuenetakoa izan den eta gure aldizkarian lan-kide izan dugun pentsalari handiari. *Jakin* taldeak bildua du bere obra osoa, eta aztertua bere pentsamendua ikerlan zabal batean, baina erakundeek lan hau argitaratzeko erabakia har dezaten zain gaude oraindik, tamalez. Editorialaren ondoren, Santamariaren lanari buruzko artikulua dator, Joan Mari Torrealdei zuzendariak sinatua.

Gaiak sailean artikulua bat dator, Elena Martinezek Günther Anders filosofoari buruz egindakoa hain zuzen.

Luma berriak eta atal berri bat topatuko duzu Egunen Gurpilean sailean: Edorta Jimenez idazleak heldu dio Lite-ratura atalari eta Erramun Baxok hizkuntzalariak, aldiz, Soziolinguistikari; Luis Fernandez kazetariak izenburu berezi-ko atal berria estreinatuko du: Telepolis. Kultura eta Ikus-kizunak alorretan Alberto Barandiaran eta Imanol Agirre ari-tuko dira aurten ere.

Liburuak sailean, Toni Strubell-en *El cansament del cata-lanisme* liburuaren kritika egin du Pako Sudupe irakasleak. Azkenik, gure erredakziora heldutako liburuen erreferentziak bildu ditugu *Jaso ditugu* atalean. ¶

Gure iritziz



JAKIN

Karlos Santamaria Ansa

11



JOAN MARI TORREALDAI

Karlos Santamaria: Ez adiorik

15



JAKiN

Karlos Santamaria Ansa

i silik eta ia oharkabeen joan zaigu Karlos Santamaria Ansa, 1997ko abenduaren 30ean, 88 urte estreinatu berritan.

Mende honek eman duen euskaldunik handienetakoa joan zaigu, eta ez du jaso behar eta merezi zuen azken agurrik. Oharkabeen joan zaigu, bai, ez baikara jabetu galdu dugun gizonaren tamaina zein den handia.

Asko gara mundu honetan Karlos Santamariarekin betirako zorretan gaudenak. Horietako bat, *Jakin*. Zor hori goraki aitortuz, 1991ko urtarrilaren 11n, esker oneko omenalditxo bat eskaini genion, xumea, apala. Geroztik izan du handiagorik: apirilaren 13an Eusko Ikaskuntzak eskaini zion Manuel Lekuona Saria; hilabete beraren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman zion eta Gipuzkoako «Seme Kuttun» izendatu zuen; eta hurrengo urteko otsailean Euskal Herriko Unibertsitateak «Doctor Honoris Causa» izendatu zuen. Guztiak, gurearen ondoren, harrotasun-puntu batez diogu.

Gauza asko eskertu nahi izan genizkion 1991ko urtarri-leko omenalditxo hartan. Lehenengo eta behin, *Jakin* aldizkaria «salbatu» izana, 25 urte lehenago, 1966-1967 urte haie-tan, noraezean eta galzorian zegoenean gure aldizkaria. Karlos-ek hartu zuen gidaritza, Rikardo Arregi eta Joan Mari Torrealdairekin batera eta *Esprit* txiki bat bihurtu zuen. *Esprit* Frantziako aldizkari pertsonalista ezaguna da. Karlos Santamariari esker lortu genuen proiektu bat burutzea, lantalde bat eratzea, gazte eta zahar, ezker eta eskubiaren konfiantza irabaztea. Bete-beteen asmatu zuen ereduarekin eta

lanmoldearekin. Harrez gero hurbil sentitu izan dugu beti Karlos Santamaria. Hori gutxi bailitzan, baguen, eta badugu, besterik ere eskertzeko. Zer? Hauxe: zena zelako gurera hurbiltzea sekulako errekonozimendu bat izan zen guretzat. Guri, eta euskararen munduari, prestigioa eman zion Karlos Santamaria gurekin izateak, euskaltzale, abertzale. Nazioartean ezaguna zen Karlos Santamaria, intelektualki eta sasoiz bete-betean zegoen. Gu, aldiz, Euskal Herri komentualetik irtengabeko gazteak ginen. Karlos bezalako bat euskaltzale jakiteak eta sentitzeak prestigioa eman zion euskarari, eta guri konfiantza. Prestigioaren balio erantsi hori oso inportantea zen, garai hartan baserritarren hizkuntza gisa kontsideratua zen euskara kultur hizkuntza bihurtzeko apustua egina zuen aldizkariarentzat. Hitz batean, gugan sinestu izana eta gure gaztetasunari konfiantza egin izana eskertzen diogu.

Azpinarra ditzagun, bestalde, ahobatez aipatu izan diren Karlos Santamariaren dohainak: pentsatzailea, humanista, zientifikoa, matematikaria, ekintzailea, bultzatzailea, antolatzailea, buruz argia, azkarra eta bizia, irekia, ezagutza zabalekoa.

Euskaldun unibertsalaren egiazko eredutzat har genezake Karlos Santamaria. Sasi-eredu asko aurkeztu izan zaizkigu sarri, eta guztiek gauza bat zuten amankomunean: euskara baztertu edo ahaztu izana, bere herriarekiko atxikimendurik eza. Karlos Santamariak, aldiz, maisukiro lotzen ditu bi aldeak: nazioartean ezaguna eta estimatua izan da, bai intelektual gisa eta bai antolatzaile gisa. *Pax Christi*-ren Idazkari internazionala izan zen, eta honek Parisen zuen egoitza. Eta aurretik, eta batez ere, Donostiako Nazioarteko Solasaldien antolatzaile eta zuzendari izan zen Karlos. Ospe handikoak eta eragin ez txikiagokoak izan ziren Solasaldi haiek. Diotenez, ba omen dute zerikusirik Vaticanoko II. Kontzilioarekin eta Europako Batasunarekin.

Nazioarteko errekonozimendu honen bestaldean dago bere herriari izan dion atxikimendua eta herri horretako kultura eta hizkuntzaren alde egin duen borroka. Kultura partikularraren bidez bakarrik izan daiteke bat kultura unibertsalduna, Karlos Santamariaren pentsamoldean. Zuhaitzak ere zenbat eta handiago eta zabalago, hainbat eta sustrai sakonagoak behar ditu.

Sintesi zaila? Seguru baietz, baina Santamariarentzat ez zirudien horren zaila. Naturaltasun osoz egin ohi zuen uztarketa hori, eta hori bezala trszendentzia eta konpromezu soziopolitikoaren artekoa, eta beste edozein.

Esker gaiztoko gizarte honetan, beldur gara ez ote dugun derrefente baztertuko Karlos Santamariaren pentsamendua eta lana. Merezi duela, zor diogula esan eta kitto. Beldur gara, memoria eskaseko gizarte honetan, Karlos Santamariaren pentsamendua eta lana ez ote diren ezagutzera eman gabe geratuko, belaunaldien zoritxarreko etena areagotuz horrela. Karlos Santamariaren ondare intelektuala ezin dugu ezkutuan utzi.

Badago modurik arrisku horiek saihesteko. Badute zer esanik horretan herri honetako erakunde publikoek. Euskal Herriko Unibertsitateak, adibidez, ez al du pentsatu behar Santamariaren pentsamendua belaunaldi berriei luzatzeko moduren bat gauzatzea? Omenaldietako hitzak huts eta putz bihur daitezke oso erraz.

Zorionez, Karlos Santamariaren pentsamendua eta obra ezagutarazteko bidean, urrats batzuk eginak badira. Gipuzkoako Foru Aldundiak «Seme Kuttun» izendatzearekin batera, enkargu bat eman zion *Jakin* taldeari, hain zuzen ere Karlos Santamariaren pentsamendua eta obra bildu eta aztertzekoa.

Lan hori aspalditxo burutua da, entregatua. Kezkatuta gaude ez dela argitaratzen ikusita.

Bi atal nagusi ditu lanak: bilketa eta azterketa. Lehenean, Karlos Santamariak idatzitakoa bildu dugu, egunkari, aldizkari eta liburutan idatzi izan duena. Ia bi mila orrialde, denetara. Gehien-gehiena, egunkarietakoa da, mila bat lankidetza.

Gero, mila bat orrialdetan, horren guztiaren azterketa egin dugu. Santamaria bere osoan Joxe Azurmendik landu du, haren ideiak eta ekintzak aztertuz. Honen osagarri, sakontze-aldera, bost monografia datoz: «Bakea eta gerra. Etikaren eta teknikaren artean», Paulo Agirrebaltzategik idatzia; «Karlos Santamariaren pentsamendu politiko-soziala», Xabier Apaolazak egina; «Karlos Santamaria eta (euskal) kultura» jorratu du Joan Mari Torrealdaik; «Zientzia, teknika eta gizartea, Santamaria matematikariaren pentsamoldean»,

Xabier Eizagirre eta Andoni Ibarren artean moldatu dute; eta azkenik, «Nazioartetik Donostiara, Donostiako Nazioarteko Solasaldiak (Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián)», Joseba Intxaustik landu duena.

Esan bezala, Karlos Santamariaren lanak bildu eta klasifikaturik daude. Exhaustiboa izan nahi du bilketa honek. Azterketak, ordea, ez du Santamariaren pentsamendua eta obraren mamia agortu nahi: pentsamendu eta lan horren testuinguru historiko-filosofikoa argitu eta ildo nagusiak agertu nahi ditu. Gure lan honekin hasi besterik ez da egin Karlos Santamariari buruzko ikerketa. Betoz aztertzaileak, betoz haren jarraitzaileak, Karlos Santamariaren pentsaera eta espirituari gorputz ematera.

Jakin taldea komentaturik dago Karlos Santamariaren irudiak eta ereduak, haren pentsamenduak eta obrak, etorkizun emankorra dutela. Belaunaldi bati pentsatzen irakatsi zion. Belaunaldi berriei zergatik ez? Karlos Santamariak eskuartean erabili zituen gaiek, pertsona, estatua, nazioa, kultura, euskara, unibertsitatea, demokrazia, hezkuntza, fedea, etika, askatasuna, bakea, biolentzia, gerra, justizia eta beste mila eta gai hauei buruz duen ikusmoldeak interes bizi-bizia dute, bai gaur eta bai bihar.

Karlos Santamaria bere ideia eta ekintzetan ezagutzera eman behar, ordea. Horra gakoa: belaunaldi berriei hura ezagutzeko aukera eskaintzea. Seguru gaude, ezagutuz gero, maitatu eta miretsi egingo luketela Santamaria eta bere obra. ♣



JOAN MARI TORREALDAI

Karlos Santamaria: Ez adiorik

Zaila da, oso zaila, Karlos Santamariaren lana hitz bitan kontatzea. Duela 10 bat urterarte, parean suer-tatu zaizkion arazo guztiak erabili eta landu dituela esan daiteke. Ehuneko ehun da zientzi gizona eta ehuneko ehun humanista, esate baterako, sintesi zail bezain emankorra eskainiz. Nazioarteko pentsaeraren eboluzioa bertatik bertara jarraitzen du eta, era berean, bere herriko arazotan murgil-murgil eginda dago.

Karlos Santamaria ezin da neurtu bere liburu soiletatik. Liburuak idatzi ditu, bai, lau bat, baina bere pentsamendua, bere ideiak zatika-zatika eskaini ditu, pildoratan bezala, orrialde eta erdiko artikuluxkatan. 1.000 bat artikulua publikatu ditu. Artikulu-gizona da Karlos Santamaria. Pentsa lezake norbaitek bere pentsaera dosi txikitan ematen duela eta, pentsamendu propio gutxikoa dela, ez duela pentsaera landurik. Ezta hurrik eman ere Karlos Santamariaren kasuan. Bere obra sakabanatu horretan guztian koherentzia harrigarria dago, pieza asko baina ezin egokiago elkarri josiak, bizkarrezur sendoa, printzipio finkoak, malgutasun azkarra. Teoria eta errealitatearen uztarketa paregabeak. Pertsonalismoak egosten du guztia. Bere abertzaletasun eta euskaltzaletasunaren oinarrian bertan ere sustrai etnikoak barik, pertsonalistak daudela esan genezake. Pertsona ez da indibidualtasunean agortzen den gizabanakoa, bere historian eta gizartean kokatzen dena baino. «Enracinement» kontzeptua, testuinguru honetan, kontzeptu giltzarria da.

Bere lanak definitzen du hobekien Karlos Santamaria. Baina bere lanaren bidez ongi definitzea ez da samurra. Hain gauza diferenteak egin ditu, pertsona diferenteen lanak ematen dute eta ez pertsona bakarrarenak. Begira: metereologoa, matematika-irakaslea, irakaslekuen sortzailea, Donostiako Solasaldien eratzzailea, euskararen normalizazioaren bultzatzailea, *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarien berritzailea, Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntz Kontseilaria, *Pax Christi*-ko idazkari internazionala, idazle emankorra.

Karlos Santamaria diferente asko dago jendearentzat. Batzuentzat Karlos Santamaria Donostiako Solasaldietakoa da, beste batzuentzat irakasle bizi eta interesgarri hura, beste batzuentzat Igeldoko metereologia-arduraduna, beste batzuentzat Lizeo Santo Tomaseko sortzailea, beste batzuentzat *Pax Christi*-ko idazkaria, beste batzuentzat euskal aldizkariak eta euskara batua bultzatzen sutzuki aritu zena. Karlos Santamaria asko dago bai, eta lanak ditu Karlos Santamaria bere osotasunean biltzeak. Jende gehienak alor bateko, eta gehienez biko Karlos Santamaria ezagutzen du.

Aipaturiko proiektu eta lan guztiotan sortzaile eta bultzatzaile izan da beti. Zenbaitetan hutsetik sortuz errealitate berriak eta beste zenbaitetan hobekuntzak edo aldaketak barrutik eraginez. Bietan, sortzaile eta bultzatzaile gisa, Karlos Santamariak elkarlanean gauzak egiten asmatu du. Karlos Santamaria ez dut sekula protagonista ikusi, bidelagun izaten jakin du, ibili den tokietan apal eta umil ibiltzen asmatu du, taldean eta jende gaztearekin lan egitea atsegin izan du beti.

Karlos Santamaria maisu izan da, maisu, bai irakasle gisa eta bai idazle gisa. Haren ikasle guztiek aho batez aipatzen dute «Don Carlos»en dohain hori, pedagogoarena. Haren artikuluak ere maisu-lanak dira, bi adieratan: perfektu tajutuak direlako eta beraien izaera didaktikoa nabarmena delako. «Herriko maisu» deitu dio Joxe Azurmendik.

Esan dut arestian bere lanak definitzen duela Karlos Santamaria. Erantsiko nuke orain: bere lanak eta lan egiteko estiloak. Ez zuen bere iritzia inposatzen bileretan, baizik eta iradoki, proposatu. Harengandik ikastea ez zen zaila, osmosi-bidez gertatzen bailitzan. Rikardo Arregi zenak bazekien horretaz zerbait. Kontu egin urte haietan, 1968 aldera, gaxteak ginela gu eta Karlos Santamariak 60 urte hur zituela, *Pax*

Christi-ko idazkari internazionala izan berria zela, artikulugile ospetsua, irakaslea. Eta, hala ere, ez zigun bere ikuspuntutik ezartzen. Orain, oraingo distantziaren talaiatik, neurtzen dut hobeki jarrera horren meritua.

Karlos Santamariaren lanetatik ez dakit historiak zer nabarmenduko duen. Bere-bere obra berezia Donostiako Solasaldi Katolikoak edo «Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastian» izenekoa dateke. Europako intelektual katoliko hoherentxoek bildu ohi zituen Donostian Karlos Santamariak, bakea eta gerra, elkartasun internazionala, giza eskubideak, nazioarteko ordenua, tolerantzia eta kontzientzi askatasuna, eta abar pentsatzeko, eztabaidatzeko. Sekulako garrantzia aitortzen zaie saio hauei bai garai hartako Espainiako katolizismo itxiari begira eta baita ere Europako pentsamendu berritzeari begira.

Izen propioarekin historiak aipatuko ez baditu ere, eta horregatixe agian, Karlos Santamariak sarri isilean egin dituen lan batzuk aipatu nahi ditut hemen. Irakaskuntzaren mailakoak lehenengo eta euskalgintzakoak gero.

Euskal Unibertsitatea helburu duen bide luzean era eta talde askotan egon da presente Karlos Santamaria. Hona lagin txiki bat: 1932an, 23 urte dituela, «Centro de Estudios Científicos» sortu du, Eusko Ikaskuntzaren babespean; 1939an, Francorenpean iada, «Centro de Estudios Superiores» sortu du. Donostian hau ere; 1956an, ESTE (Escuela Superior de Técnica Empresarial), gero EUTG Unibertsitate bilakatuko denaren sorreran parte hartu du; 1964tik aurrera, desegin arte, «Junta Promotora de la Universidad de Guipúzcoa»ko kide da. Hemendik sortuko da 1968an Donostiako Zuzenbide Fakultatea; 1967an, «Escuela de Petroquímica» (Kimika Fakultatea 1973an) Donostian lortzeko Batzordeburua da; 1971n, «Baionako Astea» delakoan Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) muntatzea berak proposatu du, euskara hutsez noski, Kataluniako «Universitat d'Estiú»ren moldera.

Karlos Santamariaren buruan gauza bat da Euskal Herriko Unibertsitatea eta beste bat Euskal Unibertsitatea. Azken hau ez da utopia, egingarria baizik. Halaxe aldarrikatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak «Doctor Honoris Causa» izendatu zuenean.

Karlos Santamariak landu duen beste bide bat, euskalgintza da, euskal kultura modernotzea, gaien eta hizkuntzaren aldetik eguneratzea.

Euskaldunberria da Karlos Santamaria, gaztetan hasia euskara ikasten Toribio Alzaga eta Maria Dolores Agirre-ekin. Baina euskal kulturari sartu berandu sartu zen, 50 urte-
tik gora zeuzkalarik. Sartzen denean burubelarri sartzen da, hori bai. Hala idazten eta kazeta-arduretan nola euskararen normalkuntzan, ahaztu gabe ikastolen aldeko lana.


Zeruko Argia-ren bidetik abiatu zen, 1963 aldera, aldizkari honen berrabiapuntuan hain juxtu. *Jakin* aldizkarian erredaktoreburu gertatu zen 1967an. Elkarrekin geunden hor, eta luzaz mintza naiteke haren eraginaz eta Rikardo Arregirengan zuen itzalaz. Anekdota eta oroitzapen ugari ditut urte haietakoak. Zer eskertu ere asko. Bat gogoratu nahi nuke, bereziki hunkitu ninduen. *Jakin* debekatu zutenean, ez ninduen bakarrik utzi une zail hartan. Jo eta ke saiatu zen, bere «influentzien» bidez baimena Madriletik lortzen. Diktadura Santamaria baino egoskorragoa zen, ordea.

1968tik aurrera euskararen berreskurapen eta normalkuntza-lanetan ere badabil, euskara batu eta modernotu egin behar zela eta. Ikastolen aldeko borrokan lehen orduko langilea izan zen, ezlegalak ziren garaikoa; eta gerora ere lehengo lepotik zuen burua: Hezkuntzaren arduradun izan zenean, lege eta ekonomia aldetik indartu zituen ikastolak.

Ez nuke ahaztu nahi, azkenik, *Euskaldunon Egunkaria* abiatzeko unean, «Egunkaria Sortzen» talde eragileko lehen izena berea zela. Eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuari, Joseba Arregiri, egin genion lehen bisitan han zegoela bera (80 urte pasa) Joxemi Zumalabe eta bioi laguntzen.

Azken urteetan bizitza publikotik erretiratuta egon da. Buruak lagundu dion arte segitu du lagun zaharrekin solasean. Biziki maite zituen topaketa horiek. Urtetan egon naiz hilean behingo solasaldia Karlos Santamariarekin eginez, Donostiako kafetegi batean lehenengo eta gero bere etxean. Inguruko eta munduko gai guztiei ematen zien errepasoa. Bizitza osoan landu zituen gaiak ziren, beti berak baina ugari eta aberats. Rikardo Arregi aipatu gabeko bilerarik ez zen izango gure artean. ¶

Ipar Euskal Herria egituratze bidean



1790eko Biltzarretik
Garapen Kontseilua arte (1994)
RAMUNTZO KANBLONG ▶ 21

Antolaketa eta Garapen Eskema.
Norabide orokorrak
PEIO OLHAGARAY ▶ 29

Instituzio bat Ipar Euskal Herriarendako
KOLDO GOROSTIAGA ▶ 51

iritziz bilketa
Nolako egitura politikoa?
JAKES ABEBERRI ▶ PATXI NOBLIA
▶ TXOMIN PEILLEN ▶ JAKES SARRAILLET ▶ 67

1790eko Biltzarretik Garapen Kontseilua arte (1994)

*

RAMUNT XO KANBLONG

*

Garapen Kontseiluaren sortzea historia luze baten ondorioa da. Mendi bat gailurreraino igotzen den historia horietarik bat. Iparraldeak politika alorrean «sujet kolektiboa» zelako kontzientzia historikoa galdu zuen Frantses Iraultzarekin, bere instituzioek galtzean (Biltzar, Junta eta Sylviet) 1790ean. Garat anaien oihuak Euskal Departamentu baten alde ez zuen segidarik izan, ez herri mailan, ez politika alorrean.

Ipar Euskal Herria eta bere gizartea status politiko berrian «adaptatu» ziren. Politika alorrean, beren seinale edo, agerian gelditzen zen erreferentzia diferentziala zen beren «katolikotasuna» 1950 arte. Euskal gizartearen politika joera, horrek du gehienik markatu.

Beraz, Eugene Goihenetxek dioen bezala, 1790a eta gero, Iparraldeak «sujet kolektibo» bezala ez du historia propiorik. Horretan diferentzia handia du Hegoaldeko historia-rekin. Karlismoaren barnean murgilduko baita, hemen, euskal kontzientzia, eta azkenean, abertzaletasuna, hortik sortuko. Beti gogoetatua egoiten naiz ikusten dudalarik Hegoaldeko politikoei karlismoa eta bi gerra karlistak hartzen dituztela abertzale mugimenduaren sorleku eta abiapuntu bezala (esaterako Xabier Arzalluz eta Txillardegi, biak, horrela mintzo entzun ditut beti).

► Ramuntxo Kanblong Garapen Kontseiluko lehendakaria izan da 1994tik 1998ra. Copelec enpresako arduraduna da.

Orduan Ipar Euskal Herriaren kontzientzia XIX. eta XX. mendearen parte handi batean itoa da. Haatik kultur alorrean, bai, badu historia bat, ederra, Iparraldeak. Bere euskaltasunak emaiten dioen diferentzia hori susmatuko du lehenik Xahok eta laster bereziki Antoine Abbadiek. Ekintza miresgariak muntatuko ditu «Euskaldunen Aita» izenarekin ezagutua izanen denak eta kulturgintza bat abiatuko XIX. mendearen bigarren partean. Beraz, Iparraldeak izan duen historia edo bere nortasunaren alde eraman duen lana kultura sailean nabaritzen da.

Eragin soziala izan duten gertakarien artean badago ekintza eta datu zerrenda bat aipagarria:

- 1867, *Eskualduna* astekaria (1913an 15.000 irakurle zituena).
- 1901, Eskualtzaleen Biltzarraren sortzea: euskararen alderako lanean Iparraldeko gizartea biltzen zuen elkarte 1970 arte.
- 1920 (lehen mundu gerra eta gero), *Gure Herria* errebis-taren sorrera.
- 1934, *Aintzina* errebista eta abertzale mugimendu baten hastapena (Lafitteren inguruan).
- 1945, *Eskualduna* itzaltzen da eta *Herria* astekaria abiatzen Lafitteren eskutik.
- 1950, Ikas elkarte sortzen da euskararen erakaskuntza eskoletan sartzeko.
- 1950-60, Ikasleen Egunak (Unibertsitateetan, bereziki Bordelen eta Tolosan diren ikasleak biltzen dira udan, euskal estudio zenbaiten egiteko).

Bide berriak

- 1960-63, Enbata mugimenduaren sortzea eta abertzale mugimenduaren abiatzea.
- 1963, Seaska ikastolen elkartearen sortzea: lehenik Baionan, gero Arrangoitzen, Donibane Lohizunen eta abar.

Hortik aurrera gauzak lasterrago aldatzen dira.

60ko hamarkada, abertzale mugimenduaren abiatzea

60ko hamarkadan abiatzen da abertzale mugimendua Iparraldean eta berriz «sujet kolektibo» nahi du bilaka arazi Iparraldea. Hamar urtez bereziki politika sailean entsaiatzen da mugimendu hori (1960-70 hamarkada). Baina laster kultura eta ekonomia alorretan sortuko dira iniziatiba berriak. Egia erran beti elgarren arteko autonomia batekin joanen dira bai politika saila, bai kultur eta ekonomia saila. Batzuetan tirabirak izanen dira bi sailen artean, bereziki elgarren arteko autonomia hori errespetatzen ez denean. Baina oro har, biek aurrera egingen dute.

1963an sortzen dira ikastolak eta 70eko hamarkada ikastolen ugaltzearen hamarkada izanen da. Abertzale inguruko eta itxurako lehen enpresak ere orduan sortzen dira: Sokoa, Sica-Esnea/Berria nekazaritza kooperatiba, eta lehen kooperatibak (Copelec, Sei...). Ez dezagun ahantz Richard Bourhis hizkuntzalariak esplikatu eskema: hizkuntzaren eta ingurumenaren arteko inter-erlazioaren eragina. Horrelako zerbait gertatzen da orduan Iparraldean.

80ko hamarkada, irratien hamarkada

Hiru euskal irrati orduan abiatzen dira. Eragin sozial handia izanen dute (Radio Adour Navarre bi hizkuntzetako irratiak izanen du arrakasta, lehen batean, baina laster itzaliko da, eta euskal irratiak bakarrik geldituko dira). Kultur sailean oraindik, Pizkundera sortzen da, eta lehen gogoetaldiak bultzatzen ditu 40 bat elkarte biltzen dituelarik. *Maiatz* literatur errebista ere orduan sortzen da. Ekonomian Herrikoa-ren sorrera garrantzitsua eta enpresa ttipi eta kooperatibak ugaltzen dira. Laborantzan ELB sindikatua muntatzen da eta ardi esnearen borrokan garrantzi handia du.

Politikan, Enbata mugimendu bezala desegiten du Frantses Gobernuak 1974an, eta EHAS sortzen da. Hau 1981ean itzaliko da sozialistak botererat heltzean Parisen. Mitterranden alde 40 pertsonak agiri bat azalduko dute hauteskunderen bigarren itzulian, euskal departamentua eta hiz-

kuntzen aldeko proposamenak dituelako bere programan. Geroago «Hitza Hitz» komitea osatuko dute. 80ko hamarkada horretan sortzen dira Iparraldeko alderdi abertzaleak: 1986an EMA, 1987an EB eta EA, eta 1988ko hauteskundeetan hiruok elgarrekin joaiten dira.

90ko hamarkada, erakundeen hamarkada

Hemen sortzen dira Euskal Kulturaren aldeko Herrien Sindikata (lehen biltze eta urrats handia). Euskal Herriko Kultur Zentroaren esperientziaren ondotik Pizkundek (Haritxelhar, Abeberry, Erramun Baxok, Txomin Heguy) berriz negoziatzen du, Kultur Ministerioarekin, eta hor sortzen da garrantzi handiko Euskal Kultur Erakundea (Sindikataren laguntzarekin). Pizkundea aldatuko da: bilakatu da Euskal Konfederazioa (AEK eta Seaska barne, 70 elkarte) eta Euskal Irratien Konfederazio bat ere, programazio koordinatu batekin, abiatuko da. Azken hau 1994an sortu den Garapen Kontseiluak lagunduko du.

Estatu mailan ireki zirrikitu bat

Euskal militanteak bi hamarkada luzez (70ekoa eta 80koa) ari ziren beren lan eta borroketan kultur ekonomi alorrean eta politika alorrean. Eta hor geratuko da ideki-dura ttipi bat Estatuaren aldetik. Gutu aipatua izan da, baina nire ustez, oraino ere badu eragina 90eko hamarkada hasieran gertatuak. Pierre Joxe Barne ministroa etorriko da Euskal Herrira eta denekin hitz egingen du: politikoekin (EMA, EB, EA) eta auzapezekin. Bi biltzar garrantzitsu izanen ditu hauekin. Bat Kanbon eta hemen Hazparneko alkateak oihukatuko ditu abertzaleen galdeak, eta bestea Donibane Garazin. Bi idekidura horiek izanen dira: kultur sailean EKE eta ekonomian ADEPAB (Cheréque sindikalista ohia da Lur Antolakuntzaren ministro)¹.

Pierre Joxeren bisita eta gero izanen ditugu, Pauen Jacques Andrieux prefet bezala, eta Baionan Christian Sapède suprefet bezala. Biok etorriko dira EKEren Administrazioe

Kontseiluko bilkura guztietarat. Interesatuko dira (beren eskasia guztien artetik) euskal kulturari eta euskal bizi moldeari. Bultzada bat emanen diote, beren idekidurari esker, gure mugimenduari.

«Euskal Herria 2010»etik Garapen Kontseilurat

1992ko irailean Sapéde suprefetak antolaturik, bi egunez, Donapaleun bilduko gara ehunez goiti lagun: politiko, auzapez, ekonomi arduradun, kultur elkarrekin animatzaile eta prefetaren eta François Bayrou Kontseilu Orokorraren (PAko Kontseilua noski) aurrean proposatuko du lan prospektibo bat egitea Iparraldeari buruz Gerpa deitu estudio ofizina batekin.

Biltzar horretan dut galdetzen, denen aurrean: «Baina estudio horien aplikazioa zeinek egingen du? Iparraldeak ez du deus egiturarik horretarako». Hortik ateratzean hurbilduko zaigu Michel Inchauspe deputatua eta erranen: «Orain da Euskal Departamentua muntatzeko momentua». Jakina, gero bere ideia aurrera eramanez duela eta badakigu zer bilakatu den Parisko Parlamentuan bere lege proiektua 1994ko azaroan.

Nahiz dudak izan, prospektiba lan horretan parte hartuko dugu abertzaleok. Eta laster ohartuko gara gure mugimendua dela talde osoaren gata eta piperra. Orduan agertzen dira ere horretaz interesatzen diren politiko berriak: Jean Jacques Lasserre, Max Brisson, Michel Arhaucet, Frantxoa Maitia... eta aspalditik horrelako zerbaiti buruz bakarka saiatu direnak: Saint Martin, D'Elissagaray...

Hiru lan eder agertuko ditu «Euskal Herria 2010» deitu lan talde horrek: Iparraldearen diagnostikoa, Egitura Azterketa eta geroari buruzko sei eszenario diferente. Baina bereziki jende andana bat lan talde horietan, elkarlana egingen, elkar ezagutu eta estimatuko dute, bereziki politiko eta abertzaleen artean. Biltzar Nagusi handi batzuk «Forum» deituak, 200 edo 300 jenderen aurrean, izanen dira (prentsa barne) eta orduko eskualdeko hiru ministroak beti alde agertuko (Bayrou, Alliot Marie eta Lamassoure).

Lan horiek bukatzean 1994ko udaberrian, berriz ere behar genukeen egituraren galdea eginga izanen da.

Erantzuna hau izanen da, Jean Jacques Lasserre eta suprefetaren aldetik: «Kontratuok eginen ditugu, Estatu, Akitania eta PAko egiturekin». Eta horrela sortzen dira Garapen Kontseilua 1994ko uztailean eta Hautetsien Kontseilua 1995ko otsailean.

Garapen Kontseiluaren lana²

Hasiera batean, Garapen Kontseilua bakarrik ari da lanean. Bere egitekoa da estudioak bultzatzea, proposamenak egitea, proposamen horien bideratzea nola eraman aztertzea. Mugaz gaindiko hartu-emanari buruz izanen dira lehen estudioak eta lehen erabakiak. Baina, egia erran, ez dira bururaino heldu erabaki horiek; hor bada oraino lanik egiteko...

Bitartean Hautetsien Kontseilua muntatzen da eta mandatu bat emaiten dio Garapen Kontseiluari: Lurralde Eskema bat antolatzea, hots, Lurralde Proiektu bat. Peio Olhagaray sartzan da idazkari orokor bezala eta «Acadie-Reflex» deitu estudio etxe baten laguntzarekin hasten gara lanean. Bostehun bat pertsonak parte hartuko dute lan horretan. Sei kapitulutan agertzen dira lan horren emaitzak (ikus Peio Olhagarayren artikulua). Zera agertzen da lan horietan:

- Hizkuntza sailean, Txomin Heguy eta Erramun Baxoken inguruan eginen da lan eder bat eta denek harridurarako, denek onartuko dute lan talde horren lana. «Euskara euskal herritar guztien afera bilakatzen da» (EK Eren izaiteak ainitz lagundu du lan hori). Francis Jaureguiberryren «Euskara eta Modernitatea» buruzko lana ere aipagarria da.

Kultura sailean ere lan ederra egiten da, eta Barnealdeko kultur egituren garrantzia azpimarratzen.

- Azpiegitura sailean: proiektu ederrak muntatzen dira. Baina hain segur eredarria da, Iparraldeaz arduratu behar diren hainbat funtzionario (bide, autopista, tren, ur, lur antolatze eta beste...) lehen aldikotz denak elgarrekin lanean hartzen direla. Hori, denek ontzat emaiten dute eta ondorio onak ekartzen ditu.

- Unibertsitate saila bultzatzeko, ikaragarriko oztopoak sortzen dira, Paueko Unibertsitateak ez baitu bere aztaparretik libro utzi nahi Iparraldea. Baina hemen ere, orain 1998ko urte haste honetan, aitzinamendu harri-garriak lortu ditu lan talde horrek eta Unibertsitatea garatuko da Iparraldean eta 5-6 urteren buruan baliteke Unibertsitate hori Berezkoa izaitea.
- Egia da Laborantza sailean aitzinamendu guti izan dela, baldintzak kontra zirelakoan. Baina hor ere badirudi ELB eta FDSEA³ (Iparraldeko bulegoa) ados jarri direla lan hori aurrera eramaiteko.

Arrantza sailean gauza bera ari da gertatzen.

- Oroz gainetik lan ariketa horiek guztiek ekarri dutena (Biltzar Nagusiari esker eta beste komunikabide batzuei esker) izan da euskal herritar askoren ideiak hasi direla aldatzen eta herri kontzientzia bat sortzen. Bereziki herri batean partalier edo partzuer zireneko sentimendua asko zabaldu da. Horri esker, 1996an, Iparraldeko auzapezak berriz hasi dira Departamentuaz mintzatzen, eta azkenik 1996ko urri hondarrean hau errebindikutzen.

Horko hutsunea dugu oraindik ere Baiona, Angelu eta Miarritzeko auzapezek ez dutela Departamentu hori onartzen. Frantses alderdi politikoei arras lotuak dituzte beren interesak.

Hondar kezka eta esperantza

Lurralde Eskema, Garapen Kontseiluak, Hautetsien Kontseiluaren eskuetan ezarri zuen 1996ko urriaren 25ean. Hautetsiek bost hilabetez ikertu ondoan aho batez (salbu eta bi) onartu zuten 1997ko martxoaren 22an. Gero Paueko Kontseilu Orokorrak (1997ko urriaren 3an), Akitaniakoak eta Estatuak (1997ko abenduaren 15a) onartu dute. Orain horko proposamenak aplikatu behar dira.

Garapen Kontseiluak, beti, goraki oihukatu du, denean, aplikazio hori egiteko egitura azkar bat behar dela. Hori da gure gaurko kezka eta ber denboran esperantza. Noiz eta

nola muntatuko den egitura hori? Ainitzek dute hor erantzuna, Estatuak dudarik gabe, politikoez... Baina oroz gainera Herriak, Iparraldeko Herriak tinko atxiki behar du egitura hori (hain segur Departamentu bat) muntatu behar delako nahia. ¶

1.- ADEPAB horrek behar zuen ekonomia sailean, EKEk kultur alorrean egin duen lan bera. Eta eginen du lan bat gero Garapen Kontseiluak baliotuko duena (Laborantza Ganbara, Unibertsitatea, garapen ekonomikoa barnealdean). Baina gatazkak sortuko dira abertzaleen eta Merkataritza Ganbararen artean eta oroz gainera hautetsi politikoak ez dira barne. Sapéde suprefetak hori kontuan hartuko du Garapen Kontseilua muntatzean.

2.- Garapen Kontseiluaren muntatzea «Euskal Herria 2010»eko zuzendari taldearen esku gelditu zen. Bost kolegio edo sail ditu orainarte (1994-1998): Sozial-Ekonomiko Kolegioa (30 partaide), Kultura eta Formakuntza Kolegioa (20 partaide), Hautetsien Kolegioa (15 partaide), Administrazioarenean Kolegioa (15 partaide), Pertsonalitate Koalifikatuak (10 partaide).

Hor dira Iparraldean diren elkarte azkarrenen ordezkariak: ekonomi sozial erakundeak; sindikatuak; kultur eta formakuntza elkarteak, 15 hautetsik zuzenean parte hartzen dute; prefet, suprefet eta administrazioe guztietako arduradunak (bide, industria, laborantza, eta abar).

Erregela bat errespetatua izan da bilkura guztietan: lurraldearen barruko edukiaz hitz egitea bakarrik, ez lurraldearen formaz edo egituraz.

3.- FDSEA da Frantses Laborari Sindikatu handienaren adarra PAko Departamentuan. Azken denbora hauetan Iparraldeari dagokion Bulegoa muntatua izan da (J.L. Gracy, J.P. Goity...) eta iduriz ELBrekin ados jarri dira Ganbara baten galdatzeko.

Antolaketa eta Garapen Eskema. Norabide orokorrak

*

PEIO OLHAGARAY

*

hautetsien Kontseiluak eskatu zuen bezala, Garapen Kontseiluak txosten hau moldatu du eraketa baten inguruan, Estatua, Akitaniako Eskualde Kontseilua, Kontseilu Nagusia, Lurralde egiturak eta gizarte zibileko ordezkariak biltzen zituela. Txosten hau, Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskemaren egitasmoa da.

Proposatzen duen etorkizunaren ikuspegia dela eta, erakusten duen nahikariarengatik, erabakitako lehentasunengatik, eskatzen duen engaiamenduarengatik, Antolaketa eta Garapen Eskema beste ooren gainetik 2010. urteko ortzimugan kokatzen den egitasmo estrategikoa da Euskal Herriarentzat.

Antolaketa eta Garapena irmoki loturik agertzen dira, lurralde honek gizakia egin eta bere gogoia eraikitzen duelako. Onartzen eta guretzen dugun nortasunean oinarriturik, Eskemak norabideak adierazten ditu, helburuak eta eragiketa egitarauak zehazten ditu. Eskema eta egitasmoak, biak loturik agertzen zaizkigu, egitasmotik sortu dinamika eskemaren koherentzian oinarritzen baita. Inplikaturik diren parte guztien ekimenak bateratuz garapen helburuak osoki beteko ditugu, iraupenean, orekan eta elkartasunean.

▮ Peio Olhagaray Garapen Kontseiluko idazkari orokorra da.

Kontzeptu eta eragiketen erreferentzia hau, ekimen publikoaren gida izanen da. Hala ere, Antolaketa eta Garapen Eskemak malgua eta ebolutiboa izan nahi du, lurralde honek gainditu beharko dituen desfioei etengabe egokituz.

Egitasmo hau «burua argi» duen lurralde batena da; bere baliabideen garrantzia ezagutzen du, indarrean ezartzeko hautu sendoa darama, eta bere etorkizunaren ekile sutsua da.

Zertarako Antolaketa eta Garapen Eskema?

«Euskal Herria 2010»etik antolaketa eta garapen eskemara

Euskal Herriaren etorkizunari buruzko gogoeta duela zenbait urte abiatu zen. Gaur egun denbora berean erabil ditzakegu «Euskal Herria 2010» lurralde gogoetatik sortutako lanak, lurraldeko egoeraren azterketa sakona ematen digutenak, eta «Lurraldea», Euskal Herria egituratzeko oinarri nagusiak aurkezten dizkigun egitasmoa. Oinarri hauekin, Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak Antolaketa eta Garapen Eskema molda zezan eskatu zion Garapen Kontseiluari. Lehenik egin ziren lanen jarraipen gisa, txosten honen funtzioa gogoetaren eremutik ekintzara iragaztea da. Dena den, egitasmoa ez da epe laburreko eragiketa zerrendan mugatuko.

Zentzu honetan, azterketetarik abiatuz, «Euskal Herria 2010» txostenak eman dizkigun ezagutzetan eta Lurraldearen printzipioetan oinarrituz, eskema hau ikuspegiz aldatzen da: sail bateko ikuspegiari baino, Euskal Herri baitarako eta kanporako eremu ikuspegiari lehentasuna ematen dio. Lehen lanek Euskal Herriaren geroaz sortu duten adostasunean oinarrituz, egin behar ditugu hautuak erabakiak, hauek baitira ekimen kolektiboaren ezinbesteko baldintzak.

Ekimen kolektiboa norabidetu Euskal Herrian

Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema ez dabil prozedura ezagun edo onartu batetik. Gai berezi honen helburuak eta edukia bidenabar argitu dira. «Lurraldea» plangin-

tzaren jokabide txostena izanen den idazki honek hiru helburu bilatzen ditu.

- Euskal Herriaren eraldaketa dinamika agerian ezar, denek gogo onez onar dezaten.

Gizarte, ekonomi eta politika egoerak zinez aldatu direlako, Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskemak ezin dezake ukan, orain duela hogeit hamar urte horrelako idazkiek sor zitzaizkieten handinahiak. Hemen ez dugu Euskal Herri osoaren biharko itxura zehatz-mehatz moldatu nahi, gero tokian tokiko aldaketak asmatzeko. Ezin ditugu logikaz banatu jendeak, baliabideak, eta ahalak, Euskal Herria osatzen duten lurralde ezberdinetan.

Euskal Herrian abiarazi nahi dugun gogozko eraldaketa dinamikoa erakustea, zerbait eraikitzeko gogoia duten guztiek berengana dezaten, hori da hain zuzen Antolaketa eta Garapen Eskemaren helburua. Beraz helburua argi da: heldu diren hamar urteetan Euskal Herriak biziko dituen eraldaketa ezberdinei zentzua emango dien sistema koherentea onartzea. Gure herriko ekintza publikoaren esanahia proposatzen dugularik epe ertainerako ez dugu hodeiartza mugatzen ez eta ere ardiertsi behar dugun eredura definitzen. Bakarrik norabidea erakusten dugu eta zeri buruz joan behar dugun.

- Bertako ekileen mobilizazio kolektibo iraunkorra bermatzea.

Antolaketa eta Garapen Eskema honek ez du funtzio arauemalerik. Berezko ahal juridikorik ez badu ere, etorkizunerako idazkiek abiapuntua eta norabidea emaitako gai izan behar dute. Idazki horiek araudi edo hitzarmen izanen dira. Zentzu horretan, Antolaketa eta Garapen Eskemak jokatze-ko arauak finkatzen ditu, ekimen kolektiborako ingurune estrategikoa. Lurralde honetan ari diren ekileen mobilizazio iraunkorra da Eskemaren xede nagusia.

- Kontratu-aldizkio orokorra sustatzea.

Bi helburu hauek —Euskal Herriarentzat atxiki den ikuspegiari irakurgarritasuna ematea eta horren ondorioz sortzen diren ekimenen egingarritasuna segurtatzea— bat egiten dute Eskema honen helmuga zein izan beharko den zehazterakoan: lurralde honen etorkizunean inplikaturik diren ekile ezberdinen engeiamendu kontraktuala eta urte anitzerakoa sustatzea, idazki honetan agertzen diren norabideen inguruan, «Euskal Herri Hitzarmena» sortuz horrela.

«Euskal Herri Hitzarmena» delakoa honela osatuko da:

- akordio orokor bat, norabideak, gaitegiaren deklinabideak eta gauzatzeko erak oroitaraziko dituena,
- egokipen hitzarmenak, egitasmoz edo programaz, helburuak, obratze sistemak, epeak eta finantzamenduak zehaztuko dituztenak.

«Euskal Herri» ikuspegia

Xede horien argitara uler genitzake Antolaketa eta Garapen Eskeman hartu diren jarrerak eta edukiak. Eskema honek ez du euskal lurraldeari dagozkion erronkak zehatz-mehatz lantzeko helbururik, ez eta ere eremu honetan gauzaten diren herri ekimenak oro har gidatzeko xederik. Eskema honek Euskal Herriari buruzko erronka eta egitasmo orokorrak baizik ez ditu kontuan hartzen: hau da Eskema honek hartzen duen eremua.

Ikuspegi honetan, Eskema honen egitasmoa ez da antolaketa eta garapen egitasmo oso bat zehaztea. Bistan denez, ez da Euskal Herriko antolaketa eta garapenaren «0 maila». Garapen honetan jadanik parte hartzen duten hainbat ekimenen kontestuan kokatzen da, eta bere nahikuntza bakarra da, haatik handia, ekile ugari horiei eta haien egitasmoei eremu bat eskaintzea dei egiteko eta koherentzian ezartzeko, ikuspegi berezi eta bakar batean oinarrituz: Euskal Herria oro har.

Elkarren arteko moldaketa

Aipatutako «Euskal Herri ikuspegia» eraiki behar zelako, Eskema honen moldaketa ez da azterketa tekniko soila izan.

Eskema honek Euskal Herriko ikuspegi hori baieztatzeko dezake gaur egun lurralde honetan ari diren egile gehienen inplikazioaren fruitu delako: egile instituzionalak, elkartetakoak, bertako gizarte zibileko adierazpen ezberdinak.

Hala ere, Eskema honek badaki ez dela aho batez onetsia izango. Baina moldaketa honetan egin diren etengabeko harat-honaten ondotik, aukera estrategikoen hautu ezberdinen artean eta adostasun zabalena ardiesteko nahian,

Eskema honek gaur egun Euskal Herrian diren adierazpen nasaia isladatzen ditu, eta bide batez, antolaketa eta garapen jokabide sendo bat agertzen du.

Erabaki estrukturala

Antolaketa eta Garapen Eskema ez da heldu diren urteetako sail ezberdinetako ekimen eta egitasmoen lokalizazio soila bezala asmatua izan (azpiegiturak, ekipamenduak, ekonomi garapen poloak). Euskal Herriko garapen eremu dinamika amankomunaren ikuspegia proposatzeko eta moldatzeko xedea du, ekileek, bakoitzak bere sailean, bere lurraldean, gauzatu edo lagundu beharko dutena.

Abiapuntu honetatik sortzen da eskema honen itxura estrukturala eta haren aurkezpen moldea.

Eskema honek argitu behar dituen erronka nagusiak oroitarazi ondotik, euskal eremuan kokatzeko, koherenteki, «Lurraldea» egitasmoaren printzipioetan oinarrituz, norabide estrategikoak finkatzen ditu:

- Kultura eta modernitatea uztartzea.
- Erakargarritasuna eta elkartasuna uztartzea.
- Gizakiak, eremuak eta ekimenak uztartzea.
- Irekidura eta elkarlana uztartzea.

Ondoren, sail bakoitzari eta tokian tokiko egoerari lotuz, norabide estrategiko hauek deklinatu ditu Euskal Herriko eremu eta bizigune ezberdinentzat.

Azkenik, Antolaketa era Garapen Eskema honen gauzatzeko bermea eskaini behar duten baldintzak proposatu ditu.

Euskal Herriko erronka nagusiak

Arazorik gabeko lurraldea?

Ikuspegi nazionaletik, hots, europarretik, Euskal Herria lurralde ttipi bat da, neurri xumekoa. 250.000 biztanlez osaturik eta Akitaniako biztanlegoaren % 10 baino gutiago izanez, Euskal Herriko «kopuruek» bere «antolaketaren» arazoa hemengo heinera, hurbilekora ekartzeko joera dute.

Hala ere, Euskal Herriak bere neurri objetiboak gainditzan dituen irudia du. Hiru ezaugarrik azaltzen dute argi eta garbi irudi hau, eta berezko baliakizun sendoak ditugu.

Lehenik bere nortasuna: ingurumena, kultura edo hizkuntza alorretan, euskal nortasunak bere garrantzi osoa ematen dio lurralde honi eta bere dinamismoaren lehen mailako faktorea da, gehiago oraindik, talde bateko partaide izatearen sentimendu azkarra ematen baitu.

Bigarren baliakizuna, bere kokagune geografikoa, gonztarena egiten, Europa mailan abantaila eta eginahal handiak ditu mugazgandiko eta itsas bazterreko faktoreak direla eta.

Azkenik, bere ugaritasuna. Erranak dioen bezala, Euskal Herria kontrasteen herria da. Bazterralde anitz, ekimen anitz; ugaritasun honek abantaila bat eskaintzen dio gaur egungo lurraldeen arteko lehian.

Hastapenean beraz, bere neurria txikia, baliakizunen aberastasuna ikusirik, badirudi Euskal Herriak garapen ahalmen sendoa izan dezakeela. Pentsa dezakegu orduan, bere geroa ikuspegi baikor batean kokatuko dela halaberharrez.

Hala ere, errealitatea konplexuagoa da eta lehen ikuspegi honek pentsarazi dezakeena lainoturik agertzen digu.

Ahalmen eta hauskortasunen artean: dudazko etorkizuna

Gaur egun, lurraldeen arteko lehia zabaltzen den garai honetan, ez da garapen mekanika segurrik, ez eta porroterako halaberharrik. Baina bereziki, «Euskal Herria 2010»eko lanek erakutsi diguten bezala, lurralde honen baliakizun bakoitzari, lerraketa edo hausturarako irrisku batek erantzuten dio.

Euskal nortasuna

Euskal nortasunaren indarrak abantaila bikoitza ematen dio lurralde honi: kanpora begira, irudi sendo bat emateko gaitasuna; barnera begira, talde bateko partaide izatearen sentimendu sendoa, denbora berean mobilizazio kolektiboa eta biztanlegoen integrazioa, «bertakoa» edo «etorkina» haizu egiten duena.

Dena den, bakoitzak badaki nahiz hau egiazko abantaila izan, errealitatea ez dela hain lilugarria. Bi mailatan bederen, euskal nortasunaren hauskortasunaren seinaleak argi eta garbi ikus ditzakegu.

Lehenik eta behin, euskal nortasunaren oinarria den hizkuntzaren ikuspuntutik, euskararen egoera larria da: euskararen erabilpena ttipitzen ari da etengabeki. Lurraldean arabera, euskararen irakaskuntzak hainbat gora-behera ezagutzen ditu, baina ezin dio inon ere erronkari ihardetsi. Alta, seinale baikorra, «euskararen aldeko» gogoia sekulan ez da horren azkarra izan.

Hauskortasunaren bigarren puntua, lurraldetasuna. Historikoki, eta inguruko lurraldeei begiratuz, bazirudien Euskal Herriak nortasun handia zuela lurralde mailan. Gaur egun, hirien hedapenak, bereziki itsas bazterrean zehar, Landetako hegoaldea argiki bereganatuz, nortasun hau nahastera doa, Euskal Herriak kanpora ere, lurraldearen dinamismoa erakutsiz aldi berean.

Bazterraldeen aniztasuna

Erran gabe doa Euskal Herriko paisaien aniztasuna eta kalitatea. Naturako elementuen aniztasunak —ura, itsasoa, mendia— ondarearen aberastasunarekin bat egiten du.

Hori dela eta, nazio mailan zein nazioartean, Euskal Herriak irudi sendoa du, beharbada laster izanen ez duena. Izan ere, Euskal Herria lurralde minbera da, eremu ttipi batean hainbat toki zoragarri gordetzen baititu. Kostaldeak zein barnealdeak ezagutzen dituen bisitari kopuruak direla eta, erasoak jasan ditzakeen lurraldea da. Nola jende gehiegi dabilelarik, hala gutiegi, lurraldea ez da behar den bezala artatzen.

Mugazgaindiko gontza

Euskal Herria gontza gune batean dagoelako, oraingoan ere, ahalmena Europako joeran kokatzen da. Mugaondoko kokagunea idekidura faktore da, Euskal Herriak historian zehar kanpoko harat-honatak eta eraginak barneratzeko izan duen joera indartzen baita, laguntza ekarriz horrela lurralde honen garapenean.

Beste aurpegia, Euskal Herria bete-betean kokatzen da lehia gogor eta itsu baten erdigunean.

Iparraldera begira, Euskal Herria Landetako hegoaldera idekitzen da. Azken lurralde hau garatzekotan dago eta lurren erakartasunari doakionez, Euskal Herriari lehia egiten dio. Ekialdera, Euskal Herria Aturriko herrien artean kokatzen da. Azkenik, hegoaldera, EAE eta Nafarroarekin dituen loturak ez du neurrigabeko ilusioetara eraman behar, itxurazko osagarritasunean oinarrituz (herria/hiria, turismoa/industria). Osagarritasun hauek, lehenik eta behin, iparraldeko lurak erabiltzeko gutizia sortzen dute hegoaldekoengan, eta beste maila batean, lehiaketa faktoreak ere badira.

Trafikoen bidegurutzea

Euskal gontzak, denbora berean, korapilo eta krisketarena ere egiten du: norabide ugaritako trafiko ardatzak bereganatzen dituen korapiloa, Bordeletik Bilbora batetik, bai eta ere Tolosa eta Aturritik Nafarroarantz; krisketa, mendebaldeko Pirinioetako pasabide hau hertsia baita. Hori dela eta, erraz ulertzen dugu garraio mota guztiak erakartzeko duen gaitasuna, izan dadin errepidez, trenbidez, itsasoz edo airez, eta hauei loturik duen garapen logistikorako gaitasuna.

Baina gaitasun honek sor ditzakeela oreken hausteko irriskuak nabari da: lurrari buruzko lehia, ingurumenaren aurkako kalteak. Martxan jartzeko moldearen arabera, kokagune estrategiko honen balorazioek ondorio larriak ekar ditzakete.

Demografia sendoa

Atal honetan ere, Frantziako hainbat lurraldek beraien-dako nahi lituzketen adierazle baikorrak erakusten ditu: biztanlegoaren kopurua hazten da, Frantziakoaren hein berean. Luzaroan emigrazio lurra izan den Euskal Herri hau, etorkinak hartzen dituen lurraldea bihurtu zaigu. Etorkinen kopurua bikoiztu egin da azken bi errolden artean. Hainbat hobe oraindik, nazio mailako edo eskualdetako joera guztien aurka, laborantzan hasten direnen kopurua handia baita!

Hala ere, adierazle baikor hauek ez dute neurritz kanpoko ilusiorik eragin behar. Demografiari doakionez, hauskorta-

sunak ere nabari dira: gainerakoetan bezala Euskal Herrian ere biztanlegoa zahartzen ari da. Baina aipatu zahartzea nabaria-
goa eta azkarragoa da hemen. Demografi hazkuntzak beraz,
gertakari larria bezain korapilatsua kukutzen du: Euskal Herria
hauspo baten gisara ari da, hartuz eta botaz. Biztanle zaharrak
edo bizia egina dutenak erakartzen ditu eta bere gazteria kan-
pora igortzen du, ezin baitio azken honi formakuntzarik edo
lanik eskaini. Euskal Herriaren bi aurpegi hauek, bere biztan-
leen egoera sozio-ekonomikoaren ezaugarri bat ere dira. Bizia
ontsa moldaturik duen biztanlegoaren kanpoko presentziak
ez digu ahantzarazi behar —gaineratekoetan bezala— zailta-
sun handirekin bizi den eta gero eta handiagoa den beste biz-
tanlego mota bat ere badela, gazteria nagusiki.

Ekonomi garapena

Lehen begi kolpean Euskal Herriak ezin du erran bere
ekonomiaren osasuna hain txarra denik. Bere egitura hiruga-
ren sektoreraren iragan da hein handi batean, bereziki bi fakto-
reri esker: enpresei eskaini zerbitzuen garapena eta turismoa-
ren finkapena. Bigarren elementu baikorra, laborantzak bes-
tetan baino hobeki ihardukitzen du hemen.

Aise pentsa dezakegu baikortasun honek beste aurpegi
bat ere baduela. Ekimen urriko egoera orokorrean (erretretan
direnen pisua), turismoan espezializatzeak hainbat hauskor-
tasun sortzen ditu (hatsantzea, gehiegizko eskaintza). Honek
dakar, gainera, industrigintzan nolabaiteko ahultasuna,
industria hau, enpresa exogeno handi batzuetan (armagin-
tza, hegazkingintza) eta dependentzia handia duten enpresa
ttipi ugarian sakabanaturik dagoelarik. Laborantzari doakio-
nez, honen erresistentziak ezin dezake gorde «iraupen» logi-
ka batek daramala, eta ez ekonomi balorazio dinamika batek.

Azkenik, maila orokoragoan, Ekonomi garapenaren
arloan erakusten diren nahien eta Euskal Herriko formakun-
tza egituren errealitatearen arteko zuloa begi bistan da.

Erakargarritasun turistikoa

Euskal Herriaren eta bere irudiaren ezaugarri nagusi
honi, erakargarritasun turistikoa aipatzean, emaitza bikoitza

eskaintzen digu. Kanpotik ikusirik, turismoa Euskal Herriko motorra dugu dudarik gabe; ekonomi garapenaren motorra izateaz gain, eguneroko biziaren eta lurraldearen antolaketaren faktore garrantzitsua dugu baita ere: Euskal Herriak ekipamendu maila ona baldin badu, turismoari zor dio nagusiki.

Aldiz, turismoaren inguruko ekimenaren eraginak, Euskal Herriko gizartean eta ekonomian hainbat desoreka larri sortzen ditu, agerikoak izan edo litezkeenak: lurraren erabilpena adibide nabarmena dugu; bizileku merkatuaren disfunczioak determinatzaile honen bizkar egon daitezke oro har. Azkenik, nahiz ez izan turismoa bakarrik hobendun, orokortu den euskal ekosistemen hauskortasunaren (kostaldean, mendian...) eta turismoaren garapenaren arteko lotura egin daiteke.

Hirien kemena

Arlo honetan ere, ikuspegiaren arabera, hirien gaiak aurpegi bikoitza du Euskal Herrian. Batetik, Baiona-Angelu-Miarritze gunearekin, Euskal Herria Akitaniako bigarren hiri-gunearen jabe da. Kanpora ematen duen irudia —Frantziako hirien sailkapenean— biziki ona da. Hobe oraindik Donostiatik hurbil izanki eta, eginkizun handiagoa bete dezake —Donostiarekin batera— ardatz Atlantikoaren mailan.

Alta, desbideratzeko bi irriskuren artean harturik dagoela iduri du Euskal Herriko hirigintzak erakusten duen kemenak: batetik badirudi hiritartze prozesu orokor bat dela hiritar polarizazioa, eta honen baitan badirudi «hiria» bera barreiatzen dela; bestetik, hirigintzaren hedapenak hirigunearen hauskortasuna ekartzen du ordainez, eta honek, etorkizunean, kalteak ekar diezazkioke Euskal Herri guztiari.

Alda daitekeen egoera baten aitzinean

Bikaina izatearen eta behar gorriaren arteko bereizketa irriskua

Euskal Herria, beraz, gaitasun edo ahalmen azkarrak hauskortasuna gordetzen duen lurralde bat bezala agertzen zaigu. Hala ere, ez dugu «ortzimuga hodei beltzez» bete

behar. Nehork ezin dezake aitzinetik erran Euskal Herriak gibelera ginen duela oro har.

Europa osoa inarosten duten geografi, ekonomi, gizar- te aldaketen bihotzean kokatua da lurralde hau: ezin daiteke beraz kanpoan gelditu.

Gainera, bere egituraketa ez da ekonomi ekimen bakar batean oinarritzen, buztinezko zangoak dituen erraldoia bilakatuko lukeena.

Euskal Herri osoa ezin daiteke beraz krisialdia edo depresioa duten herrialdeen multzora lerra. Baina baliagari- en ugaritasunak osotasunean gibelera egitearen irriskutik zaintzen badu ere, egoera harrigarri batean uzten du: egoera bikaina eta behar gorria duten lurraldetan bereizirik gelditze- ko mamua. Hauek dira «Euskal Herria 2010» mailan eginda- ko ikerlanen hipotesia ezberdinen emaitzak: lehen lehenik desoreken gorakada eta zatiketa, txarrenik «inplasioa», hauek mehatxatzen dute Euskal Herria.

Itzul daitezkeen baliakizunak

Gaur egun, Euskal Herrian, ez da lurralde honek dituen baliakizun ezberdinak sinergian ezartzeko gai den dinamika bateratzailerik.

Horregatik, baliakizun bakoitza —badirudi hauen gehi- keta matematikoak Euskal Herriak garapenerako gaitasun naturala duela aldarrikatzen duela— itzultzen ahal da hein bereko hauskortasuna bihurtuz.

Euskal Herria ez da ezabatu beharreko zama edo kalteak metatzen dituen lurralde bat. Aldaketek, Euskal Herrian, bi irrisku nagusi sortzen dituzte —lurraldeak bereiztea eta bali- kizunak itzultzea—, eta irrisku hauek aitzinetik ikusi eta menperatu behar dira.

Arautze publiko azkar baten eskakizuna

Egoera honek, bi irrisku hauek, arautze publiko azkar baten eskakizuna eta behar gorria erakusten dute. Hortik, beraz, lurralde honen etorkizuna eraikitzen ekimen publiko ugarik parte hartzen dute; azken hauek, egitasmo mobiliza- tzaile baten inguruan ezarri behar dira koherenteki. Hau da

«Lurraldea» egitasmoaren lehen manua: koherentziaren erronka Antolaketa eta Garapen Eskema honen ardatz nagusia bihurtzea.

Ikuspegi honetan, Eskema honen moldaketa bera, eta aitzinatzen duen egitasmoa, ez dira berez helburu bat.

Eskema honek erranahia izango du, Euskal Herri mailan, bertako egiazko botere publikoa eraikitzaera lagunduko duen heinean, erran nahi baita, etorkizunari buruz lurralde honetako dinamikan engaiatu diren ekileen erantzukizun kolektiboa.

Norabide estrategikoak

Erronka nagusi hauei erantzuteko Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak «Lurraldea» egitasmoa aurkeztu du. Honek etorkizunerako ikuspegiaren abiapuntu nagusiak erakusten ditu, lau ardatzen inguruan egituraturaz.

- Kultura eta modernitatea uztartzea, beste gisa batera erranez, egitasmoari doakion nortasun dimentsioa landu nahi duen norabidea.

- Erakargarritasuna eta elkartasuna uztartzea, hots, osagarritasuna eta lurraldeen arteko elkarrenganako dependenziak sakontzen dituen norabidea.

- Jendeak, eremuak eta ekimenak uztartzea, nahi den garapenaren ikuspegi erakusten duen norabidea.

- Idekidura eta elkarlana uztartzea, euskal bideguru-tzearen eta egitasmoaren mailaketaren arazoa norabideratzen duena.

Lurraldearen printzipio nagusien gauzatzeak, Antolaketa eta Garapen Eskemaren mugarrietan barna, espazializazioa eta enuntziazio estrategikoa eramanen dituen iharduerari ekitea eskatzen du aldi berean.

Lehenik espazializazioa. Argi adierazi behar da nola deklinatzen diren printzipio hauek erronka nagusien arabera, hots, euskal eremuaren eraldaketa dinamikak egituraturaz:

- Mailaketaren, Euskal Herriaren «kokagunearen» arazoa: nola egin, euroeskualde mailan, Euskal Herria katebegi azkarra izan dadin?

- Lurraldeen arazoa: nola antolatu Euskal Herriko lurraldeen kohesioa?
- Hiri polaritateen arazoa: nola kudeatu ekonomoki euskal eremua?
- Euskal Herri baitako harremanen arazoa: zein sinergia lurraldeen artean, barnera eta kanpora begira?

«Lurraldea» egitasmoaren ondorioz, galdera hauek egi-tean argi eta garbi ikusten da egitasmo honek zehaztu eta ezagutzera eman duela Euskal Herriaren etorkizunerako ikuspegia, baina denbora berean «Lurraldea» berak zehaztu ez dituen bide eta jokabide ezberdinak badirela. Beste gisa batez erraiteko, Antolaketa eta Garapen Eskemari dagokio hautu estrategiko hauek argitzea eta hautuak proposatzea, «Lurraldea»-ren gauzatze eraginkorra segurtatzekotan. Hau da ondoren agertzen diren norabide estrategikoen zentzua.

Euskal Herriaren kokagunea

Nola egin, euroeskualde mailan, Euskal Herria katebegi azkarra izan dadin?

Izan ere hau da «Lurraldea» egitasmoak pausatzen duen galdera estrategiko nagusienetarikoa, azpimarratuz Euskal Herriaren kokagunearen balagarriak, bidegurutze funtzioa eta bere erakargarritasuna, «etorkizuna eraikitzen ari den euroeskualde» baten barnean.

Galdera honi erantzun simple bat: «Euskal Herria mugazgaindiko Ipar-Hego bizkarrezur baten inguruan antolatu» behar da. Beste gisa batez erraiteko, Euskal Herriak kokagune estrategikoa izango luke geografikoki, eta gaitasun hori garatu besterik ez litzateke egin behar Europako Ipar-Hego ikuspegian.

«Euskal Herria 2010» ikerlanen berrirakurketek eta Eskema hau ontzeko egin diren eztabaidek erakutsi dute hipotesi hau kasu emanez hartu behar zela, bi arrazoi direla eta.

Lehenik, mugazgaindiko Ipar-Hego gaitasuna ezin bada ukatu eta honen ustiapena ttipia bada ere, denbora berean egia da ardatz honek gaur egun haustura nagusiak erakusten dituela (trenbide loturak...) eta lurburu ezberdinen artean osagarritasun bezainbat lehia eskaintzen dituela:

EAE eta Nafarroaren artean bereziki, adibidez ekonomia mailan.

Gainera, Ipar-Hego ardatz hau nagusia izatetik urrun da Euskal Herriko kanpo harremanak egituratzean: oso ongi osatua da Mendebalde-Ekialde ardatz batez, Aturriren luzeran, eta Nafarroarantz doan Hego-Ekialde ardatzaz.

Euskal Herriko erronka estrukturalen berrirakurketa honek, kanpoarekiko «kokaguneari» buruzko galdera pausatzaren delarik, «Lurralde» gauzatzeko hiru norabide formula-tzera gomitatzen gaitu.

- Ardatz egituratzaileak dibertsifikatu eta kalifikatu: Ipar/Hego; Aturriaren luzeran; Nafarroarantz.

Gaur egun dauden edo garatzera diratekeen ardatz egituratzaile anitzetan oinarritzen da eginkizuna eta Euskal Herriaren kokagunea balorizatzea, ardatz hauetariko bakoitzaren funtzio berezia baieztatuz.

- Hirigune-burua ardatz hauen giltzadura bilakatzea.

Norabide honen enuntziatioak bi oinarri nabarmentzen ditu: Baionako hirigunea ez da lurburu soil bat izan behar Ipar/Hego ardatz hiritar baten barnean, gorago zehaztu ardatzen arteko giltzadura baizik. Denbora berean, norabide honek hirigune honen funtzio nagusia eraikitzeak dela oraindik azpimarratzen du. Hiriaren eginkizuna, euskal lurraldearen baitan, eskema honen helburu nagusienetarik bat izan behar da.

- Itsas bazterrean eten gabe den hiri lerroa izatetik, elkarrenganako dependentzia eta hierarkizazioa duen egiazko hirikidetza izatera iragan.

Honekin azpimarratu nahi da Ipar/Hego hiri ardatza nabaria bada ere, aitzinetik ez dela frogatua gai denik egiazko hiriburu handi bat bilakatzeko, euroeskualde mailan. Horretarako beharrezkoa da hirikidetzaren ezaugarri funtzionalak finkatzea, gaur egun hirikidetza hori gehiago alegiazko mitoa delarik eta ez egiazko errealitatea. Hori ardiesteko lehenik elkarrenganako dependentziaren zinezko loturak egin behar dira hirikidetza osatzen duten lurraldeen artean: harat-honata indartu, elkartasunak eta osagarritasunak adierazi. Gainera, hirikidetzak ez du zentzurik ez badago egituraturik, eta hezurdura bat, lurburu baieztatuak eta hierarkizatuak ez badauzka.

Lurraldeen antolaketa

Nola osa lurraldeen antolaketa Euskal Herrian?

Galdera hau «Lurraldea» egitasmoaren muinean da, nortasun kolektiboa, elkartasuna eta lurraldeen arteko dependentzia sustatu nahi dugula adieraztean.

Hemen ere, galdera horri begibistako erantzun bat eman behar zaio, azkarra, usaian «Euskal Herria 2010»eko lanen ardura nagusi gisa hartua izan baita: «Itsas bazterra eta Euskal Herriko barnealdearen arteko haustura ttipitzera» jo behar da. Beste gisa batez erraiteko, Itsas bazterra/Barnealdea bikoiztasunaren inguruan eraikiko da lehenik Euskal Herria, bi entitateen bilakaera bereizgarria eraginen duena.

Hastapeneko irudiak gainditurik, «Euskal Herria 2010»eko lanen irakurketa sakonak hipotesi estrategiko honen epaibideak berraztertzea eramaten gaitu. Zuzen ikus daiteke Euskal Herriaren barne antolaketaren bilakaera, denbora berean ematen diren baina elkarren kontra egiten duten bi urraspideen eraginpean gertatzen dela. Egia da ikus daitekeela Barnealdea eta Itsas bazterraren arteko haustura, hirigune eta herriguneen arteko haustura handitzen dela. Hala ere, hainbat arlotan, denbora berean, bi gune horien arteko gero eta handiago diren dependentziak nabaritzen dira: hori izan dadin luraren erregistroan, uraren babestekoan edo euskararen irakaskuntzan.

Elkarren arteko dependentzia honek euskal lurraldea antolaketaren ikuspegi orokorra bermoldatzera darama: hau bikoitza izan ezik, hirukoitza izanen da. Izan ere, gune hauen arteko loturak handitzean, hiriguneen eta barnealdearen artean «erdigune» bat sortarazten da (Lapurdikoko herriak). Hauskortasun eta ahalmen anitzen jabe diren eremu hauetan gertatzen dira gaur egun tentsio eta bermoldaketa nagusiak, euskal lurraldearen orokortasunari begira.

Azterketaren ikuspegiak ere aldatu dira, Euskal Herri baitako lurraldeen antolaketa erronka eta bilakaerei dagokielarik. Aldaketa honek norabide estrategikoak proposatzera darama, nahiz eta, azken hauek, ohikoa den Itsas Bazter/Barnealdea hausturaren ttipitzeko xedetik biziki urrun dauden.

• Euskal Herriaren etorkizuna hiru lurralde-osagai hauetan oinarritzea.

Norabide hau egiaztapen honetarik abiatzen da: Euskal Herriaren egitura historikoa, hiru probintzien inguruan egina da eta ez da Itsas Bazterra/Barnealdea haustura bikoitzaren gibelean desagertu. Euskal Herriaren egitura hau, ikuspegi funtzionalaren arabera, hiru osagaitan zabaldu da, bakoitzak bere dinamika berezia izanez. Euskal Herriko lurraldeen kohesio orokorra ardiestekotan, osagai bakoitza onartu eta ezagutu beharko da, eta hiru lurralde-osagaien arteko harremanak baieztatu.

- Euskal Herriko hirugarren lurralde osagaia eraikitzea: erdigunea.

Norabide hau goikoaren ondorioa da. Euskal Herriko barne egituraren irakurketa orokorrak hirugarren osagai honi arreta berezia ematera eramaten gaitu. Erdigune hau, gaur egun, eremu «hutsa» da, beraz nortasuna lurraldeen elkarren arteko harremanetan zehazten da lehenik. Bada, beraz, lurralde honendako egitasmo berezi eta nortasun baikor baten garatzeko beharra.

Lurburuak eta kokagunea

Nola kudea euskal eremua ekonomoki?

Galdera hau zuzen-zuzenean etortzen zaigu «Euskal Herria 2010» eta «Lurraldea» egitasmoaren lanetarik. Hauen arabera Euskal Herria «denen ontasuna» da, beraz iraunkortasuna bermatu behar da.

Euskal lurraldeak burugabeko xahutzeak egiteko duen joera aztertu du bereziki «Euskal Herria 2010»ak. Zein da Euskal Herria ekonomikoki kudeatzeko eskakizunari emanen zaion erantzun nabaria?

Olio sortaren moldean hedatzen diren hiriguneen menperatzea. Hipotesi estrategiko honek suposatzen du, Euskal Herriko hirigintzaren arazoa «hedapen menperatze» horretan oinarritzen dela, bereziki Itsas Bazterretik Barnealdera.

Hemen ere, Eskema prestatzeko egin eztabaidetan, bilakaera dinamikek kontrastatuagoak iduri dute. Hirigintza/desertifikazioa bikotea euskal eremuaren eraldaketaren irudikapen mugatua baizik ez da.

Ohargarri da —salbuespen batzuk bereiziz— urbanizazio urraspide orokor bat ematen dela Euskal Herri mailan, herri ttipia delako eta oro har errazki joaten delako batetik bestera. Eremuak erabiltzeko orduan hainbat lehia sortzen dira, gero eta handiagoak, edo berdin tokian tokiko lur eskasak. Bestela erraiteko, lurraren erabilpenean gertatzen diren «gaindentsitateek» eta «hutsuneek» Euskal Herriko gehiengo bat hunkitzen dute, eta ez kostaldeko «olio hedadura» bakarrik.

Uler daiteke, beraz, olio hedadura gisa zabaltzen den hirigintza menperatzeko xedea ez dela nolabait hautu egokia estrategikoki, Euskal Herriko lurren kudeantza ekonomikoaren beharrak, ikuspegi zabalagoa eta zehatzagoa eskatzen baitu.

Euskal eremuen kudeantza ekonomikoaren erronkari buru egiteko, Euskal Herriko hirigintzari buruzko ikuspegi orokor bat hartzea proposatzen da hemen.

- Hiri garapenaren oinarriak agertzea.

Norabide honek hirien hedapena menperatzeko behar-raren gainera, Euskal Herri baitako hiri polarizazioa gauzatzeko egiazko jokabide orokor baten beharra adierazten du ere. Honek erran nahi du hautaketa eta hierarkizazioa behar-beharrezkoak direla euskal hirien egiazko hezurdura egituratzeko, eremuen funditzeari gogor egiteko.

- Oinarriak kalifikatzea funtzio nagusien arabera.

Honekin azpimarratu nahi dugu hirigintzaren egiazko hezurdura egitea, Euskal Herri mailan, ez dela hemendik goiti hiri eta herrien garapenetik abiatzen, horiek izanik hierarkizatuak eta orekatuak, gizarte eta ekonomi funtzio guztiez hornituak.

Bazter dezagun neurri ezberdineko hiriburuek funtzio berdinak bete behar dituztelako ikuspegia. Eskema honek euskal hirien hezurdura egitea proposatzen du, «sare bat» osatuz. Ondorioz lurburu bakoitzak eginkizun edo funtzio berezia du koherentzia orokorrean. Hautu estrategiko honek Euskal Herriko hirien eta herrien espezializazio zerbaiten alde egiten du, hori funtzio nagusien inguruan antolatuz.

Euskal Herri baitako harremanak

Zein sinergia lurraldeen artean, barnera eta kanpora begira? Trukaketak eta osagarritasunak erraztea, ahalmenen

sarea antolatzea, bai Euskal Herriaren baitan bai kanpora begira, «Lurraldea» egitasmoaren xede nabariak dira, garapena eta elkartasuna uztartzeko.

Garapena sor dezaketen lurburuak (Kostaldea) eta elkartasuna eskatzen dutenak (Barnealdea) ezberdinak dira. Ondorioz, bi eskakizun hauek artikulatzeko, berbanaketaren printzipioan oinarritzen da aterabide nabaria: garapena bul-tzatzea —aberastasunen metaketa— kostaldean, ondoren barnealdera hedatzeko uhain gisa, elkartasunaz axolatuz.

«Hogeita hamar Loriatsuen» denborako lurralde anto-laketa politikaren oinarria berbanaketa bazen ere, abiapuntu hau ez da egokia gaur egun euskal errealitatearentzat.

Batetik, Euskal Herri osoak, kostaldean egiten ari den aberastasunen metaketaren dependentzia du. Bestetik, «haus-poarena» egiten du, hots, bizitza egina duen biztanlegoa, edo adinekoa, erakartzen du, baina Euskal Herriko gazteak kan-pora igortzen ditu.

Bestetik, Euskal Herriko lurralde bakoitzak irauteko, mikro-garapenerako joera du. Horrela, garapena norberaren aldetik gauzatzeko egoera sortzen da, lurraldeen arteko lehia eraginez. Garapen zatituaren egoera hau dela eta, hazkundea ezagutzen duten eremuek eremu hauskorretan dituzten era-gin zuzenak eta hauen ondorioak, atxiki ezinak dira. Berrikusketa estrategiko bat behar-beharrezkoa da.

Oro har, proposatzen den aterabideak garapen logika ezagun bat baztertzera deitzen du: batetik Euskal Herriaren espezializazio orokorrean eta kostaldeko «motorrean» oina-rritzen dena kanpora begira, eta bestetik, barneko mikro-ere-muen polibalentzian oinarritzen dena, bien arteko lotura bakarra isurketa eta konpentsazioaren printzipioa izanez.

- Kostaldean metatzen diren giza, ekonomi eta hiritar funtzio nagusiak eskuragarriak izan daitezela denentzat.

Norabide honek kostaldeak Euskal Herri osoarekiko duen funtzio nagusia azpimarratzea proposatzen du, hola hiritar erraztasun hauek denen esku egon daitezen hobeki.

- Lurraldeen arteko osagarritasuna eta elkarrengana-koa, Euskal Herriko garapen egitasmoen helburu nagusi bat bihurtu.

Turruta gisan egiten den isurketaren printzipiotik elka-rrenganako printzipiora iragaiteko zer egin? Lehenik eremu

bakoitzaren «baliagarri konparagarriak» ezagutu behar dira, gero eremuen arteko «interes amankomuna» agertu. Beste gisa batez erraiteko, ez da eremu batzuen garapen gaitasuna bultzatu behar, ondoren besteen ezinak estaltzeko, baizik eta bakoitzak arlo zehatzetan dituen bikaintasunak balorizatu denen onetan.

Laburbilduma

Euskal Herriari buruz aipatu ideiak berrirakurtzean, Eskema hau prestatzeko lanek «filosofia bideratzaile» bat agertarazi dute emeki-emeki.

Filosofia hau bi oinarri nagusiren inguruan zehaz daiteke, gauzatu behar den metodoari doakionez, edo ardietsi behar den helburuari doakionez.

Lehenbizikorik, Euskal Herria, batua eta sendoa, hiru zangoren gainean dabila.

«Hiruak Bat» erran dezakegu. Irakurketarako gako honek, hastapen hastapenetik, zentzua eman diezaioke Euskal Herri baitako barne-kohesioa atzemateko lanei, hiru lurraldeei ezagutza egokia eskaintzetik abiatuz. Baina ezagutza bera izanen da Euskal Herriak Euro-eskualdearen baitan eginen duen gorakada sendoa bultzatuko duena, sinergian jarritz, ikuspegi amankomun batean, lurralde honetako indar eragile guziak.

Azkenik, irakurketarako gako honi esker Baionako hiri-gunearen funtzio nagusia baieztatuko da Euskal Herrian, hegemonia eta jakinezaren traba bikoitza baztertuz eta elkarrenganako dependentziak eta elkartasuna indartuz.

Bigarren printzipioa hau da: elkarrenganako eraikitzea.

Kontsideratzen badugu lurralde honen antolaketa eta garapena gu guztien ontasunaren behar-beharrezko kudeantza dela, kanpora begira honen dirdira bermatu ahal izango da.

Printzipio honen izenean, eremuen arteko elkartasuna ez da eginkizun moral soil bat bezala agertuko, baizik eta eskualdeen arteko lehian egoteko ezinbesteko baldintza bezala.

Printzipio honi esker, hiriaren (Baionako hirigunea) eta bere lurraldearen (Euskal Herria) arteko harremanak bes-telakatuko dira, eta ez dira hemendik goiti ingurumenari zer egin behar duen agintzen dion hiriarenak izanen.

Gauzapenerako baldintzak

Ezinbesteko proposamenak

Oroz gainerik, Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskemaren formulazioak ezin ditzake bereizi norabide estrategikoak eta gauzapenerako baldintzak.

Lehenik, hastapenetik azpimarratu dugun bezala, idazki honek ez du araudi baten balore edo onarmenik. Honen gauzapena beraz, ez da bilakaera mekanikoa izanen. Bere ekileen gaitasunaren arabera egingen da, gauzapenerako baldintzak bermatuz.

Gainera, Eskemaren jomuga eta nahikuntzak koherentzia orokorreko sisteman oinarritzen dira hastapen-hastapenetik. Eskemak sistema hau proposatzen du Euskal Herriko garapenerako sail ezberdinak eta barne bilakaera mailako joera ezberdinak antolatzeko. Norabide honetan, gauzapena ezin daiteke muga ekintza batzuk besteen ondoan kokatuz, ez eta kontuan hartuz ekile bat edo beste, norabide hau ala bestea. Eskemaren gauzapenak balioa hartuko du bere ikuspegi orokorrean gauzatzen baldin bada.

Horregatik beraz Eskema honen baitan gauzapenerako baldintzak zehaztearen beharra, bereziki hiru mailatan: bere animazio orokorrean, bitartekari teknikoetan eta kontratuetan.

Animazio politika orokorraren eskakizuna

Eskema honen lurralde ikuspegi orokorrak, sakontzen dituen erronken aniztasunak eta adierazitako norabideak ez dagozkio eskumen sail zehatz bati, baizik eta lurraldeetako egitura ezberdinen eskumen gehienei.

Zentzu horretan, Eskemaren gauzapena ezin daiteke erakunde honen edo beste haren eginkizun soila izan, berea izanen duen obratze politikoa osatzea eskatzen du.

Orain arte, hau zen Hautetsien Kontseiluak Eskema honen osaketarako jomugaren erranahia. Hemendik aitzina ere bere eginkizuna hori bera izan beharko litzateke.

Osotasuneko ardura teknikoa

Eskema honetan adierazi diren norabideak egiazki egin daitezten, hainbat eginkizun tekniko bermatu beharko dira.

Lehenik, koherenteki gauza dadin segurtatu beharko da, kontratu eraginkor batzuen bidez. Ondoren, egitura iraunkor ezberdinen sustapena eta koordinaketa bermatu behar dira (Hizkuntz Konseilua). Eskemak berak adierazi du egitura hauek sortzeko beharra.

Gaitegiaren deklinabideak biziartzeko eta bertan biltzen diren egituren urterako programaketak erregulariki egotitzeko, ongi da koordinazio zelula tekniko hauek biltzea.

Hemen adierazi diren tresna teknikoen gauzapena (Uraren Behategia, Lur Erabilpenaren Herri Erakundea...) aztertu behar da, ondoren abiaraztekotan.

Unean uneko bilakaeren arabera eta Eskema hau moldatzerakoan erakutsi den kontzertazioari luzapena emateko, horretarako gogoeta taldeak sortu beharko dira.

Azkenik, Eskema honen ondorioz egin kontratualizazioaren berrikuntzarako elementuak (planaren kontratu berria), elementu iraunkorrak edo ugaltzaileak (Europako Eskaintza deiak) prestatu beharko dira.

Arrazoi hauek direla eta, behar-beharrezkoa da egitura tekniko iraunkor bat sortzea —«Hirigintza eta Garapen Agentzia» motakoa— Euskal Herriko antolaketa eta garapen Eskemaren gauzapena eta jarraipena egiteko. Eskemaren osaketan bete duen eginkizuna ikusi eta, Garapen Kontseilua egokia da funtzio hau betetzeko. Neurri honetako eginkizuna molde eraginkor batean bere gain hartzeko, giza eta teknika egituren bilakaera nabarmena beharrezkoa izanen da.

Kontratualizazio bateratua

Argi ikus daitekeen bezala, Eskema honek idekitzen dituen ekintzarako norabideen ugaritasuna hain nabaria izanki eta, ahal bezainbat lankideren partehartzea beharrezkoa da, bereziki arlo publikoan ari direnena eta ondorioz kontratualizazio moldaketa bat.

Hala ere, kontratualizazio hau ezin daiteke hemen adierazitako ekimenen gauzapenerako baldintza soil bezala ikusi.

Kontraturalizazio honek bi eskakizunei ere erantzun behar die. Lehenik Euskal Herriaren axola duten ekile publiko nagusien kontratu moldeko adierazpenaren bidez, lurralde honentzat hemen berean erakutsi den egitasmoaren dimentsio kolektiboa ezagutaraztea eta «Euskal Herria 2010»etik abiatu eta orain bururatzen den urraspidearen legitimitate osoa adieraztea.

Bestetik, eskema hau bertako biztanle bakoitzaren eta Euskal Herri osoaren etorkizunari doakionez zuzenean, behar-beharrezkoa da publikoki ezagutaraztea egitasmo honen moldaketan elkartu diren lankideen aniztasuna.

Eskakizun ezberdin hauek kontraturalizazio honen moldaketa zehazterakoan baliagarriak dira. «Kontratu-eredu» bakarra egokitzea deitzen dute, partaide guztiak bilduz eta objektu eta ekileen arabera, egokipen hitzarmenen deklinabidera.

Hautetsien Kontseiluak aurkeztu «Kontratu eredu» hiru aginte nagusiei proposatu zaie izenpetu dezaten: Estatuari, Akitaniako Kontseiluari, Kontseilu Nagusiari.

Hiru ataletan banaturik, Euskal Herriko antolaketarako eskemaren norabide estrategikoen oroigarria eta lurralde eta gaitegiaren deklinabideen adierazgarria izanen da lehenik. Horrez gain zein eremutan abiatu eta moldatu diren erranen du. Bigarren atalean Eskemak aldarrikatzen dituen gauzape-nerako eta jarraipenerako baldintzak zehaztuko dira. Besteak beste, Gidaritza Batzordea sortzea proposatuko du. Bertan bil-duko dira txostena izenpetzen duten guztiak. Gainera animazio orokorrerako egitura teknikoa sortzea proposatuko du. Bukatzeko, hirugarren atalak aplikazioak egiteko hitzarmen- moldaketak zehaztuko ditu, bi ardatzen inguruan eratu-rik: egungo prozeduren eta neurrien egokipenean, lehentasu- na duten egitasmoen izendapenean.

Aplikazioa egiteko hitzarmenek Eskemaren gomen- dioetarik jalgitzen diren neurri guztiak —helburuak, finantza taulak, epeak, hautabiderako irizpideak, eskuhartze eremuak, azterketaren adierazgarriak— banaka-banaka obratzaile ego-kiak mobilizatuko dituzte edo bestela, elkarteen arteko obra- tzaileak sustatuko dituzte. Aplikazioa egiteko hitzarmen horien moldaketak eta jarraipenak, animazio orokorreko egi- tura teknikoa mobilizatuko ditu, Eskema honen norabideen eta ekintzen arteko koherentzia iraunkorki bermatzeko. ¶

Ipar Euskal Herriarendako instituzio bat

*

K O L D O G O R O S T I A G A

*

Instituzioaren gaia aipatu aitzin beharrezkoa da
beste kontzeptu batzuen erranhia aztertzea.

*F*rantziako eremu juridiko-konstituzionala

Konstituzioaren eremua

1791n Frantzia da konstituzio batez jabetzen den Europako lehen Estatua. 1958az geroz Bosgarren Errepublikako Konstituzioa da indarrean dagoena. Guri dagokigun kezkan, Ipar Euskal Herrirako Instituzioaren galderari, erran genezake konstituzio horrek ez diola arropatu egokirik emaiten. Hori erranik, puntu batzuk aztertzeoak dira hala ere.

Egia erran, 1946ko konstituzioak lehen aldiz kondutan hartzen du frantziar estatuaren barnean errealitate ezberdinak badirela: hortik goiti aipatuko dira *Métropole*, *Union française* eta *Territoires d'Outre Mer* (TOM).

1958koa bere aldetik, kolonia ohien arazoari konponbide baten atzemaiterat saiatuko da eta TOM delakoei

● Koldo Gorostiaga Zuzenbidean doktorea da.

«Herrien determinazio librearen printzipioa» aplikatzea bideratuko du. Hala ere jurista zenbaitek pentsatzen du 1958ko Konstituzioak, bere 53. artikuluari esker, autodeterminazio printzipio hori beste lurralde batzuetarat hedatzea ahalbidetuko lukeela. Konstituzioaren araudiak onar lezake beraz, lurraldearen zati batek bere ber ibiltzea erabaki dezan, Nazioarteko itun bati esker.

Lehen-lehenik hautu politiko bat egin behar da:

- Konstituzioak eskaintzen dituen aukerekin jokatu.
- Konstituzioaren erreforma eskatu gure ustez hertsiegi delako, gure ezagupen eskakizunari erantzun xuxenik ezin diolako eman.

- Konstituzioa ez onartu, erabat baztertu, eta independentziaren alde borrokatu.

Edozein herritan Konstituzioa da lehen araua; beste guztiak (hau da, legeak, erregelamenduak) horren menpe daude.

Arauen hierarkia

Nazioarteko Itunak

Nazioarteko Itunak, gorenean dira eta bi motatakoak izan daitezke:

- Konstituzioaren pekoak
- Itun bereziak: Konstituzioaren parean edo gainetik direnak (Europar Komunitate Ekonomikoa sortu zuen 1957ko Erromako Ituna, adibidez).

1958ko Konstituzioak bere egiten du 1946ko Konstituzioa, honen sar-hitzak aitortzen duelarik frantziar Estatua Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren menpe dela. Ondorioz, Europar Batasunaren barnean, Nazioarteko Itunak izenpetu dituzten Estatuon Konstituzioak Itun horien menpe daude. (Adituen artean, jada galdurik den korronte batek zioen deus ez dela Konstituzioaren gainetik, subiranotasuna populu frantsesari soilik dagokiolako. Argi da orain, eta hala izanen da gero eta gehiago, Europa mailako engaiamendu batek estatuen subiranotasunaren ahultze bat dakarrela).

Aitorpen hori interesgarri zaigu Euskararen legeztapenean adibidez: frantziar Estatuak Zuzenbide Publikoan diren

nazioarteko itunak eta Giza Eskubideen aldeko itunak onesten dituelako alde batetik, eta bestalde, Nazioarteko itunek, Hizkuntza gutituen onespina Giza Eskubide gisa egiten dute-lako. Batez ere NBek (Nazio Batuen Erakundea) 1966an onar-turiko Eskubide Zibiko eta Kulturalen Itunak. Frantziak berre-tsi zituen itun horiek, baina 27. artikuluan erreserba bat egi-nez, gutiengoen eskubideei buruzko artikulua da hau. Frantziaren arabera, artikulua hori ezin zaio berari aplikatu, ez baita gutiengorik frantziar Estatuan. Alta, Strabourg, La Haye eta Luxenburgoko gorte internazionalen jurisprudentziak ez ditu onartzen Giza Eskubideekiko erreserbak; Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren kontrako eraso bat da beraz hori.

1946ko Konstituzioaren sar-hitzak Nazioarteko Itunen onespina baieztatzen du; Euskararen onespina eta beste hiz-kuntza gutituena beraz, frantziar konstituzioaren gainetik da. Estatu Kontseiluak (*Conseil d'Etat*) Europar Kontseiluaren Hizkuntza Gutituen 1992ko Kartari buruz egiten duen irakur-keta, nere ustez, Konstituzioaren kontrakoa da.

Legea eta Erregelamendua

Frantziar Konstituzioak Legearen eremua (Parlamente-
tuak egina) eta Erregelamenduaren eremua (gobernuak sortu-
riko arauz osatua: dekretuak) ezberdintzen ditu.

Ipar Euskal Herriarendako instituzio baten eskakizuna
zein eremutan da? Legearenean ala Erregelamendurenean?

Lege proiektu bat (gobernuak eginik) Ministroen
Kontseiluak onartu behar du; aitzin proiektua, *Assemblée
Nationale*-ari aurkezten zaio gero, Senatuari ondoren eztabai-
datua izan dadin eta emendakinak egin diezazkioten. Hastapeneko proiektua eta bururatzean onartzen den legea-
ren arteko ezberdintasuna izugarri handia izan daiteke.

Lege proposamenarentzat (talde Parlamentario batek
egindakoa), Legebiltzarraren gehiengo ere beharrezkoa da.

Erregelamendua prozedura ximple eta errazago baten
bidez lortzen da: gobernuaren ordezkariarekin negoziatzen
da eta Lehen ministroaren baimena lortu bezain laster,
proiektua Ministroen Kontseiluan aurkezten da. Negoziaketa
politiko baten kasuan, erregelamentuak soluziobide laster eta
zuzena emaiten du, nahiz legearen pean kokatua izan.

Autonomia

Hitz honen barnean dena eta deus ez sar daiteke. 1958ko Konstituzioak teorian onartzen du autonomia «politikoa» *Territoires d'Outre-Mer*-entzat bakarrik.

Konstituzioaren erreforma onartu zuenean, legegileak segur buruan zuela Pirinioaz bestalde gertatzen zena (Autonomien sorrera) edo eta Belgikan (Estatu Federala bilakatua da). Bere burua 2000. urteko Europar Batasunean ikusten zuen jadanik: legegileak deszentralizazioa bultzatu nahi zuen. Baina zuzenbidea gertakari politikoen ondorioa da beti. Zuzenbidezko Estatu (*Etat de Droit*) batean erraiten da politika zuzenbidearen menpe dela. Azalezko itxura da hori: munduko herri guztietan zuzenbidea da beti politikaren meneko.

Frantziako V. Errepublikaren historian lehen aldikotz (1958ko Konstituzioak *Territoires d'Outre-Mer*-ei emandako 6 hilabeteko epearen ondotik), Polinesiaren estatutuari buruzko lege organikoak autonomiaren printzipioa aplikatzen du. Aldiz, Kontseilu Konstituzionalak hartaz egiten duen interpretazioan erabakitzen du ez dela autonomia politikoa, baizik eta autonomia administratiboa. Bestela erranik, gaur egun ez dugu autonomia politikoa adibide bat bera ere frantziar Errepublika osoan. Kontseilu Konstituzionalaren interpretazio hori kritikatu izan da: une hortan, autonomia politikoa bidean aitzinatzekeo parada historikoa huts egin da, heldu den urteko, Kanakiarendako modelo baten prestatzeko aukera hain xuxen.

Kortsikaren estatutua Konstituzioaren 72. artikuluan oinarritzen da, kontinenteko *Collectivités Territoriales* delakoez arduratzen den artikulua. Polinesiaren estatutua 74.ean oinarritzen da, *Territoires Outre-Mer*-endako bereziki egina. Azken artikulua honek, legearen barrutikoak diren botereak (frantziar Legebiltzarraren boterea) erregelamenduaren bidez gauzatea ahalbidetzen du. Frantziar juristen joko tekniko (maltzur) honi esker, Polinesiari buruzko lege organikoak lortu du autonomia politikorik ez ematea, hots, legeen sortzeko eskubiderik ez izatea.

Beraz, autonomia maila ezberdinak badira. *Collectivité Territoriale*-ek duten autonomia, autonomia administrati-

bozko lehen maila bat da. Bigarren autonomia maila bat bada gero, administratiboa beti, hau da, Polinesiari eman zaiona. Eta hirugarren maila bat bada, gaur egun existitzen ez dena (frantziar estatuan), egiazko autonomia politikoarena: legeak bozkatuko dituen parlamentu batekin, hegoaldeko Gasteizkoak eta Iruñekoak bezala adibidez.

Kortsikaren estatutua berezia da. Gaur egun hexagonoko *Collectivité Territoriale*-ek ez dituzten kompetentzia batzuk baditu Kortsikakoak. Ahalmen horiek Polinesiarenak baino hein apalago batean dira. Bada hemen harrigarri den zerbait: alde batetik onartzen da frantziar Errepublikan berezitasun batzuk badirela eta bestalde, denendako *Collectivité Territoriale* izaera besterik ez da eskaintzen. Hara hemen *Collectivité Territoriale*-ren izaera «elastikoa».

Deszentralizaioa eta deskontzentrazioa

«Deszentralizazio» hitza soberakinik erabilia izan da, «deskontzentrazio» hitza erabili behar zelarik xuxen adierazteko. Napoleon III.ak jadanik ahoa betetzen zuen «deszentralizazio» hitzarekin; ikus bestenez 1852ko martxoaren 25eko dekretua:

Considérant que l'on ne peut gouverner de loin et que l'on administre bien que de près, qu'en conséquence autant il importe de centraliser l'action gouvernementale de l'Etat, autant il est nécessaire de décentraliser l'action purement administrative...

«*Déconcentrer*» hitza baliatu beharko zuen «*décentraliser*» hitzaren lekuan.

Deszentralizazioaz mintzatzeko baitezpadako baldintza bat bete behar da: estatuarekiko izaera juridiko ezberdindua duen erakundea izatea, hein bateko autonomia juridikoarekin aritzeko ahalmenarekin. Konstituzioak bermatzen duen «libre administration» delakoaren printzipioa da hori.

Alderantziz, estatuaren administrazioeko egitura hierarkizatuen kasuan baldin bagara, deskontzentrazio hitza dugu erabili behar.

Deskontzentrazioak Estatuaren tokiko agintariei erabakien hartzeko gaitasun partzial ximple bat emaiten die (prefetari adibidez, departamentu mailan). Deszentralizazioaren ukapena da beraz deskontzentrazioa. Paristik botereari ekitea zaila zitzaielako, Estatuak bere ordezkariak izendatu ditu, hierarkiaz bere meneko direnak, bere boterearen parte bat gisa hartan erabiltzeko: zentralizazioa, gisa honetan, areagotzen da deskontzentrazioaren bidez.

Ondorioz, deskontzentrazioa, Estatuaren zentralizazioaren adibide bat bezala definitu daiteke. Deskontzentratu-uriko adarrak menpeko zaizkio. Gainekoek dituzte hautatzen zerbitzu bakoitzerako agenteak eta beren eginbeharrak erabakitzen; azpiko batek harturiko edozein erabaki noiznahi deusezta dezakete. Menpekoak nolabaiteko malgutasuna baldin badu ere, ez du egiazko autonomiarik eta beti dago bere hierarkiaren menpe.

1982az geroz, *Collectivités Locales* delakoak (Departamentu eta Erregione) deszentralizatorako erakundeak bilakatuko dira. Azpimarratzekoa ere Erregionea, egitura gisa, 1972an sortu bazen ere, bere aritzeko ahalmena mugatua izan duela 1982 arte: departamentuak antolatzeko soilik. Ez zen garai hartan egiazko *Collectivité Territoriale* deszentralizatu bat, nortasun juridiko berex batekin. 1982ko legeak Erregioneari bere *Collectivité Territoriale* estatutua emaiten dio (1986a arte beha egon beharko da hala ere lehen hautetsien biltzarra hautatua izan arte).

Munduko Estatuetan eredu zentralizatuena, Frantzia, deszentralizazioaren bidetik abiatzen den Europako azkena da.

1982ko legearen ondotik, 1983koa heldu da, kompetentzia ezberdinen banaketa —departamentu, erregione eta Estatuaren artean (eta horien transferentzia)— egiten duena... 1992ko dekretua dator gero: honek erakusten du botere zentralak egin duen hautua, urrats bat gibelerat, deskontzentrazioa berriz bultzatuz. 1995ean, Pasqua legeek logika hori oraino urrunago bultzatzen dute, nahiz eta publikoki adierazi deszentralizazioaren bidea jorratzen dutela, *Pays* delakoaren bidez.

1996ko legeak lehen aldiz sortarazten du *Code Général des Collectivités Territoriales* delakoa. Kode horretarik ateratzen dudan behin-behineko ondorioa zera da: ikuspundu tekniko legislatibo batetarik biziki kritikagarria¹ da eta politikoki bizi-

ki erabilgarria gobernuarentzat. Konpetentzien eta segurtasun juridikoaren mailan dagoen zehaztasun ezari esker, nehorik ez dezake segurtasunekin erran erabaki bat edo beste legearekin bat datorren ala ez. Gisa horretan, legearen interpretazioan kontrol zentrala atxikitzea lortzen da, demokraziaren aldetik huts biziki larria: Parisek du beti erabakiko.

1996an Juppék erreforma bat proposatu du; aldi bat gehiago deskontzentrazioa helburutzat duen zirkular bat da. 200 urteko zentralismoaren ondotik, 1982an doi-doia hasi zen deszentralizazioaren bideari jarraitzeko erabateko ezintasuna ageri da. Tokiko boterearen alde ahalegintzen garen aldi oroz, Estatuaren erantzuna berbera da: hobe dirulaguntzak emaita egiazko botere politikoa baino. Alta, uste dut Frantzia gero eta gehiago jabetzen dela bere Estatu biziki zentralizatuak duen pisuaz, bai eta erreforma baten beharraz Europako dinamikari begira.

«Libre administration» delakoaren printzipioa

Konstituzioak bermaturiko printzipio honek, ezinbesteko baldintza bat eskatzen du: nortasun juridikoa duten *Collectivités Territoriales*-ak existitzea. Hau da, Estatuak ez den beste egitura bat. Ezin dugu *Libre Administration* (LA) printzipioa aipatu, egitura deskontzentratu batez ari garelarik, hierarkikoki menpekoea delarik: Prefeta, adibidez.

Laren printzipioa deszentralizazioaren baitan eman daiteke soilik.

Herri, departamentu, erregione eta *Territoires d'Outre-Mer*-ek badute LA. Lurrean antolaketazari buruzko 1995ko legeak sortu du *Pays* egitura. Baina honek ez du nortasun juridikorik, hau da, libreki aritzeko posibilitaterik, ez eta izaera desberdindurik ere. *Pays* bat departamentuaren barne dagoen egitura bat da eta azken honek baizik ez du Laren gaitasuna.

Collectivité Territoriale

Zorioneko erran moldea da, malgutasun anitzekoa baita: herri (*commune*), departamentu, erregione eta, zergatik ez, Estatu Federala lirateke *Collectivité Territoriale*-ak, Estatu bera baita *Collectivité Territoriale* bat.

Ondorioz, departamentua eskatzea edo *Collectivité Territoriale* bat (Kortsika, Polinesia edo laster Kanakian bezalako) eskatzea, ez da batere gauza bera. Frantziar legediak eskaintzen dituen posibilitateetan *Collectivité Territoriale* aren baitan biziki urrun joan daiteke, bai eta autonomia politikoaren mailan ere. Halere, *Collectivité Territoriale* bat eskatzea hautu tekniko da, ez hautu politikoa nahiz hautu tekniko horrek ondorio politikoak dituen.

Zein dira *Collectivité Territoriale* baten berezitasunak?

- Lehen lehenik lurralde bat: *Pays Basque* egitura sortu zuen prefetaren erabakiak Iparraldearen mugak izendatzen dituen lurralde geografikoa sortu zuen (Eskiula falta!). Duela urte bat galdegin izan balidate Iparralderako *Collectivité Territoriale* baten sortzearentzat zein zen oztopo nagusia, arrapostua zatekeen: bere lurraldearen finkapena. Guretzat berezkoa da, baina ez da hain argi Estatuarentzat... Eta orain, «*arrêté préfectoral*» ximple batek, lehen aldikotz historian, ezaizten ditu Ipar Euskal Herriaren muga zehatzak. Salatzen ahal dugu *Pays Basque* egituraren sorrera, departamentuaren aldeko mugimendua geldiarazteko nahikundearekin sortu baitzen, baina pentsatzen dut Euskal Herriarendako Instituzioari bidea ireki diola une berean.

- Bigarrenik, zuzenbide publikoko pertsonalitate morala: nortasun juridikoa ukaitea eta zuzenbidean aritzeko gaitasuna ukaitea.

Nortasun juridikoa bi moldetan agertzen da:

- Pertsona fisikoarena: pertsona helduarena, bai eta haurarena ere. Haurrak baditu eskubideak, baina haurra deno aritzeko gurasoen edo hirugarren pertsona baten errepresentazioa beharko du.

Bada Zuzenbide Zibilean ere *nasciturus* izeneko izaera, oraino pertsona ez den batena: sortugabekoaren izaera, berak, geroan, sortu ondoren, erabiliko dituen eskubideak ere, izaera horri atxikirik izanki (adibidez: haurra amaren sabelean den bitartean *nasciturus* bat da).

Gaur egun Iparraldea, *Pays* «*Pays Basque*» gisa kontsideraturik, *nasciturus* bat da, erran nahi baita, nortasun gabeko izaki bat. Hala izanen da *Collectivité Territoriale* bilakatu arte. Nere ustez, egun horretan adin ttikiko haur baten egoeran izanen gara. Alta, munduko herri guziak bezala, heldutasune-

ra, nortasun osoko pertsona bat izaterat heltzeko esperantza dugu. Heldutasun horretarat heltzen ez garen artean, adin ttikiko herria izanen gara, besteren tutoregoaren menpeko. Noski, adin ttikikoa izanik ere, ondare baten jabe izan gaitzeko, baina ondare horrekin egin dezakegunaren erabakitzeke gaitasunik gabe. Horretarako beti baimen eske ibili beharko dugu. Nere ustez, pertsona fisikoak legeari buruz duen bila-kaeraren adibide honetaz balia gaitzke: lehenik adin ttikiko *Collectivité Territoriale* bat sortarazi, gero emantzipa arazi, eta nortasun osoko izaki bat bilakatu. Izaki heldu bat.

— Pertsona moralarena: kolektibo batentzat, arlo juridikoan aritzeko ahalmenarekin.

Pays delakoak ez du aritzeko gaitasunik, *Collectivité Territoriale* batek baizik ezin baitu indarrean ezarri Garapen antoloketa eskema (*Schéma d'Amenagement*) adibidez. Iparraldean beraz, berari dagozkion erabakiak, kanpotik agintzen dira.

- Hirugarrenik, *Collectivité Territoriale*-aren berezko ordezkari hautatuak: Biltzar edo Kontseilu bat (deskontzentrazioaren kasuan, pertsonak izendatuak dira). Izanen da ere, exekutibo bat. Kortsikak Biltzar bat badu: Hautetsien Kontseilua, eta exekutibo bat. Polinesiak ere bai.

- Laugarrenik, buxeta bat *Collectivité Territoriale*-a kudeatzeko, zenbait elementuz osaturik, hala nola:

— Fiskalitate zuzena (*taxe professionnelle, taxe d'habitation, taxe foncière bâti et non bâti*).

— Ibilmolde orokorrerako dirutza (DGF): «*dotation de base, de péréquation, de solidarité et de compensation*» delakoez osaturik.

— Hornidura orokorrerako dirutza (DGE): «*dépenses d'investissement direct et des travaux d'équipement rural*» delakoez osaturik.

— Deszentralizazio orokorrerako dirutza (DGD): eskumen edo kompetentzien transferentziei lotua.

— Maileguak

— ...

- Bosgarrenik, eskumen zehatzak:

— Departamentuari dagozkionak: hizkuntza eta kultura; baserri aldeko hornidura; ingurugiro eta eremu naturalak; Laborantza Ganbara; Ofizialeen Ganbara; laguntza eta ekintza soziala; komertzio eta arrantza portua; eskola garraioa;

kolegioen kudeaketa; unibertsitate autonomia; artxibo, liburutegi eta erakustokiak; beste establezimentu publikoak (ospitale, abere hiltegi, zentro sozial, kutxa eta abar), Hego Euskal Herriarekiko harremanak...

— Erregioneari dagozkionak: lizeoen kudeaketa; lanbide heziketa; funtzio publikoko langile heziketa; Gizarte eta Ekonomia Kontseilua; Kontu Ganbara; Hezkuntza Akademia; Estatuko beste transferentziak...

Nolako instituzioa Iparraldearentzat?

Hautu baten hipotesiak

Lehen hipotesia departamentua litzateke. 1983ko legeak bere eskumenak zehazten ditu. Gure eskakizuna departamentuarena baldin bada, aski zaigu lege hortarat jotzea, bertan argiki aurkeztuak baitira (*Collectivité Territoriale*-en Kode Orokorraren 3. partean). Ez litzateke arazorik izanen eskumen horiek euskal departamentu bati aplikatzeko. Legeak aldatu gabe ere, negoziaketa politikoaren bidez, erregelamendu bat erabiliz (Estatu kontseiluan harturiko dekretu bat), posible litzaziguke Euskal Departamentuaren Eskumenak ezagutaraztea parte hunkitu guztiak ados jarriko balira.

Bigarren hipotesia erregionea litzateke (Martinika, Gouadeloupe edo Réunionean bezala). Nere ustez, Erregione baten eskumenak litzuzkeen Departamentu bat erregelamendu bidez sortaraztea zailago izanen da.

Oztopo horren gainditzeko, *Collectivité Territoriale Pays Basque* edo Euskal Herriko Lurralde Institutuzioa (EHLI) dei genezake. Beste gisaz erranik, ez genuke ez Departamentu eta ez Erregione deituko; egituraren eskumenak zein eta nolakoak diren baizik ez genuke aztertuko. Gisa honetan, «*Contrat de Plan*» bezalako formulak erabiltzen ahalko genituzke (82/07/29ko legearen 11. artikulua).

Departamentu ala Erregione eskakizun bat izanik ere, arazoez beti hor diraute:

- Noraino ote da posible erregelamenduaren bidez, Erregionearen eskumenak dituen Departamentua sortzea? Juridiko aldetik posible litzateke, baina erabaki politikoaren menpe legoke beti ere.

• Departamentuarentzat, Paueko Kontseilu Nagusiaren gaitzespena ez litzateke on: Erregelamendu bidez sorturiko Euskal Departamentu batek, Kontseilu Nagusiaren onespena beharrezkoa luke. Onespen hori lortuko ez balitz, legearen arabera, erregelamenduaren eremua utzi eta legearen eremura jo beharko genuke. Badakigu zer gaitza den hori: legearen aitzin proiektuaren negoziaketa Ministerioekin, Ministroen Kontseiluan eztabaida eta Gobernuaren onespenarekin Legebiltzarreko eztabaida eta onespena.

Hara zergatik egokiago litzatekeen dugun Departamentuaren baitan soluzio bide baten atzemaitea. Tokiko hautetsiak ados baldin badira, Parisek ez luke neholako oztoporik ezarriko. Botere zentralak biziki ongi daki bila-kaera bat gertatuko dela nahi ala ez. Deszentralizazioaren aditurik jakobinistenak ere aitortzen du, 200 urtez zentralizazioak sortu dituen jaunttoen interesen menpe dagoela deszentralizazio hori. Hara hemen Frantziar boterearen ezaugarrietarik bat. Parisen diren erabakitzaileak alde batetik, eta guztiz indartsu diren tokiko solaskideak erabaki horiek aplikatzeko, bestaldetik.

1982an sozialistek deszentralizaziorantz lehen urratsa eman zuten, ohartu baitira deszentralizazioak sorturiko tokiko boteregune berriak, haiek menperatu behar zituztela. Hori, botere zentrala galduko zutenerako. Hara zergatik onartu duen deszentralizazioa Mitterrandek, tokiko botereguneen sorrera, tokian diren jaunttoeri aurre egiteko, gehien bat eskuinekoak baitira azken hauek.

Deszentralizazio prozesuaren erranahia

Zentralizazio/deskontzentrazioak (bata bestearen kontra ez doazen baina osagarri diren bi hitz) historian zehar ukan duen zamaren parean, bi helburu beteko lituzke deszentralizazioak botere sozialistarentzat: berez helburu politikoa da alde batetik, eta bestalde, Estatua eta *Collectivité Territoriale*-en arteko oreka baten lortzeko bidea.

1982an abiatutako erreforma (erreforma baitzen) Estatuarengandik hasten da, Zuzenbide Publikoko nortasuna duten giza taldeen onerako: *Collectivité Territoriale*-en onerako. Beraz, ez Iparraldearentzat. Konstituzioaren 72. artiku-

luak LA printzipioaren bitartez, giza talde horiei dagozkien eskubideak onesten ditu, eta babesten ere, Estatuarengandik eta beste erakunde publikoengandik ere (bai Departamentu eta bai Erregionearengandik).

Alabaina, *Collectivité Territoriale* gisa onespelik ez duen giza talde baten deszentralizatzeko erabakia bi gertakariren bateratzetik heldu da: sakonetik agertzen den behar bat (nahiz ez den beti zehazki adierazia), eta borondate politiko sendo bati loturik dagoen ingurune historikoa.

Korrante horri oztoporik jarri nahia alferrikakoa da, berezkoa baita. Ondorioz, ibilmolde honen aurka eginen litzatekeen edozein «analisi zehatzen» saiakerak porrot egingen du. Hori gero eta garbiago dago gure inguruko jaunttoen artean ere, antieuskaldunenen artean ere. Agian, Montesquieuren pentsamoldetik ikasgaia ulertua dukete:

Gauzen berezko izaeratik isurtzen diren beharrezko harremanak dira legeak (Ref. *De l'esprit des lois*).

EHLIren sorrerak lituzkeen ondorioak

Zaila da zerbait gertatu aitzin bere ondorioak aztertzea. Egitura aldetik, funtsezkoa da Lurralde Institutio motaren hautua.

- Departamentua, deskontzentrazioetik sorturiko zirkunskripzio administratibo hutsa zen bere hastapenean. *Collectivité Territoriale* izaera deszentralizatua eman dio 1982ko legeak, deszentralizazioaren egiturarik apalena bilakatuz. Kudeantza da bere eginbehar nagusia, hau da, kanpotik agindutako programak aplikaraztea. Bi menderen zama gainean darama.

- Erregioea aldiz, 1986az geroztik, geroari buruz eginga izan den *Collectivité Territoriale* bat da: ekonomia plangintza, horniduren programaketa, hezkuntza eta lanbide heziketa dira bere eginkizunak.

Ekonomiaren ikuspegitik, funtsezkoa da finantziabideak zein diren jakitea, bai eta zein autonomia administratibo mailatan kokatzen garen ere. Egiatzko autonomia politiko baten hipotesian, baliabide fiskal bereziak askoz ere ugariagoak lirarteke (hala nola Hegoaldeko bi Autonomi Elkarteen kasuak).

IBILmoldeari dagokionez, Estatuaren eta EHLiren artean eskumenen banaketa nola finkatuko den jakitea baitezpadakoa da. Arlo horretan, eskumenen sailkapena egitean, ondoko irizpideak kondutan hartzekoak dira:

- Eskumen bakoitzaren izaeraren azterketa.
- Nola gauzatzen diren transferentziak.
- Egutegia. Hau da, epeak. Gerta baitaiteke «deus ez aldatzea, arauak izan arren» (Nahiz badakigun, erreforma sinesgarria denaren froga hoberena, pertsonen eta baliabideen transferentzietan kokatzen dela).

Ezinezkoa da zehazki adieraztea nolako eragina ukan lezakeen ekonomiarengan EHLik. Hala ere jadanik errepika dezakegu Britainia Handian erran dena: 100 lanpostu publikoren sorrerak 50 lanposturen sorrera dakarrela arlo pribatuan.

Soldatekiko ondorioak badira ere: zerbitzu berrietako langileei emandako soldaten heinean, lanpostu berriak sortarazten dira, bai eta ere, administrazio berriek egiten dituzten xahuketen arabera.

Sous-traitance delakoaren efektua bada ere. Administrazio berriek lan egin arazten baitute eta, horri esker, husten ari diren guneak laguntzen. Etxegintza eta lan publikoetan horrek dituen ondorioak (lur-sailen erosketa eta eraikuntzak) nabar-menak dira.

Suspertze eta eredugarritasun efektuak ondoren: bai *Collectivités Locales*-engan eta bai laborantza eta arrantzarengan, gure artean hain garrantzitsuak direnak.

«Maila gainditze» efektua, azkenik. Hain luzaz espero izan den erreforma gauzatzean, eremu berriak, sekulan erabili ez diren baliabideak erakartzen ditu. Denen esku egonen da egitura berriei buruzko informazio hobea, eztabaida, hausnarketa eta plangintza taldeak xutik jar daitezke tokian berean. Hara hauek, aspalditik ezagutzen ez ditugun ahalmenak.

EHLik enplegu arloan ondorio onak izanen dituela segur, nahiz ez den xuxen jakiten ahal zenbat izanen diren egiazko lanpostu berriak eta zenbat, administrazio zaharretik berrirat pasa direnak. Hala ere, argi da, lanpostu publiko gehienak administrazioaren gora-beheren eraginetik kanpo direla. Hemen, eskolatik ateratzean, gazteek nahiago dute herrian egon eta horretarako prest dira zenbaitetan beren formakuntzak eskaintzen dien maila baino apalagoko lanak onartzerat.

Bestalde, pribatuan ez bezala, administrazio publikoak emazteendako lanpostu kopuru handia du. Gazte eta emazteak, beraz, zuzenki hunkitzen ditu EHLik.

ELHIk azkenik, lurralde antolakuntzan ondorio nagusiak lituzke, erran nahi baita, barnealde eta kostaldearen arteko orekatze batean bai eta ingurugiro eta naturaren defentsan. Arlo honetan arduradun izateak nehorik ukatu ezin dituen ondorio onuragarriak ukanen ditu.

Ez ditugu beraz hemen aipatuko EHLik euskara eta euskal kulturarengan izanen lukeen eragina. Instituzionalizazioa gure hizkuntza eta kulturaren esku izaitzak berehalako ondorioak ukanen ditu.

EHLIren kanpo harremanak

1992az goerotik, *Collectivité Territoriale*-ak europar zuzenbidearen sujetak dira. *Collectivité Territoriale*-ei dagozkien arloak Europar Batasuneko goreneko organuen erabakiek arautzen dituzte. Europako Direktibak —jadanik frogatua den bezala— tokiko agintarientzat izanen dira estatu-koentzat bezainbat. Maastrichteko Itunaren erreforma zentzu horretan abiatuko da seguruenik ere, nahiz eta Frantzia bezalako Estatu zenbaitek mesfidantza agertu. Militar arlokoak ez diren inbertsio publikoen gehiengoak tokiko agintariak egin denez, Europar Batasunak Estatuak ez diren beste agintariak kondutan hartu beharko ditu.

- Lehen multzo batean, beraz, sartuko genituzke EHLIren eta Europar Batasunaren arteko harremanak. Heldu diren urteetan ekonomia eta kultura arloetan hain garrantzitsu izanen diren harremanak.

- Bigarren multzoan Hegoaldearekiko harremanak sartuko genituzke. Ipar Euskal Herriaren kulturaren eta ekonomiaren garapenerako hain inportantea den sail honetan dena egitekoa da. Alta, lege aldetik, dena «prest» dago bi urtez goerotik, prozedura biziki luze baten ondoren:

- Europako Mugazbaldetako eskualdeei buruzko Hitzarmen *Cadre* baten prestaketa, Europar Kontseiluan (kasu, ez nahas Europar Batasunarekin) 1975eko azaroan Parisen.

- Hitzarmena Madrilen sinatua zen azkenean 1980an, Europar Kontseiluko kideen gehiengoak izenpetuz (30 bat Estatu).

— Madrilgo Hitzarmena gauzatzeko, 1995eko martxoan, Baionan adosturiko Mugazgandiko Itun Franko-espainolaren zain egon behar izan da. Orain arte eremu legal horrek sorturiko eragina hutsaren ondokoa da. Iparraldearentzat *Collectivité Territoriale*-rik ez izaiteak baduke zer ikusirik, Euskal Herrian mugaz gandiko harremanen martxan jartzearen berantarekin.

Baionako Itunak *Collectivité Territoriale*-en kalitatearen arazoa agertarazten du. Arazo honek zera adierazten du: *Collectivité Territoriale*-en izaera mugaz gandiko kooperazioari egokitu behar litzaiokeela. 3. artikulua baitio, *Collectivité Territoriale*-ek izenpeturiko Itunak beraiei dagozkien arloen eskumenetan kokatu behar direla. Baina departamentu arrunt baten eskumenez ez diote behar adinako oinarri juridikorik eskaintzen, gaur egun adibidez, lanbide heziketarako, edo enplegurako, edo komertzio mailan konkurrentziaren defentsarako beharrezkoa den... Gure inguruko eragile sozialak (nagusi eta sindikatak besteak beste) hainbat kezkatzen dituzten arloak.

- Hirugarren multzo batean sartuko genituzke, azkenik, EHLIren kanpo harremanak. Biarno, Landes eta Akitaniari dagozkionak.

Lehen lehenik, gure auzo bearnesekin, lagunarteko konponbide bat xerkatu behar genuke. Bi bide jorratu beharko lirateke:

— Euskaldun eta bearnesen arteko eztabaida eta topagune berriak eraiki, ekimen amankomunak bideratuz —bakoitza bere Lurralde Institutioaren barnean— bortxazko elkarbizitza batek eragindako elkarrenganako ezinikusiak gairatuzeko.

— Euskaldun eta bearnesen artean izan diren kalapite-tarik ondorioak atera, herri bakoitzaren eginbeharrak berrantolatuzeko Europar Batasunaren baitan sortzen ari den eremu berrian, elkartasunean oinarriturik eta ez elkarzantaketan.

Landesekiko harremanei —bereziki Iparraldea «hunkitzen» duten *Collectivité Locale*-ekin ukanen ditugunei dago-kienez— eta Akitaniari dagokienez jarrera bertsua behar litza-teke. Eremu legalak eskaintzen dituen posibilitateak baliatu behar lirateke. Honek, departamentu arteko erakundeen sorrera ahalbidetzen du. Aldi berean Erregione Kontseilu

ezberdinekin hitzarmenak izenpetu ditzakete «à l'effet d'entreprendre ou de conserver à frais commun, des ouvrages ou des institutions d'utilité commune». (art.5411-1, du Code Général des Collectivités Territoriales).

Bururatzeko bi hitz

XX. mendearen bukaeran, frantziar Errepublikak, Europar Batasuneko beste Estatuak ez bezala, Collectivités Territoriales-ekiko izugarriko botere eta ahalmenak mantentzen ditu, azken hauek ez dutelarik arauak sortzeko neholako bide juridikorik. Baina Errepublikak gero eta gehiago bere gain hartu beharko du zentralismoaren menpetik gero eta urrunago den Europa. Baitezpadakoa zaio beraz jarreraz aldatzea. Horretarako gunerik egokienak bezala ageri dira mugaondoko lurraldeak. Horietan dira, Estatu frantziarra eta beste europar estatuen arteko ezberdintasunak, gehien nabarmentzen.

EHLI baten bidez posible litzateke beraz, Estatuen zentralismoak segurtatu ezin duen oreka baten eskuratzea.

Erabat ulergarri gerta liteke ondorioz (hainbat frantziar unibertsitari beren buruari galdetu dioten gisan), galdera bat egitea: Demokrazia, herritarren parte hartzea, herri baten partaide izaitearen kontzientzia, berezko kultura eta hizkuntza herri baten ezaugarri izaitea bezalako gaitasunak, ez ote diren berez, egitura ekonomikoak eragindako ondorioak?

Zer nahi dela ere, Frantzia eta beste europar estatuen arteko ezberdintasunak boterearen kontzentrazioan dagoenez, EHLIri esker, Estatuak orain arte bere zamarekin itorik zituen indarrak askatu daitezke. ¶

1.- Testu zenbaitzuk ez dira kodifikatuak («fonction publique territoriale» delakoari buruzkoak, edo Mayotte, St Pierre Et Miquelon eta besteri buruzko erreferentziak); testu zenbaitzuren agertzean, ez delarik segur ia oraindik lege aldetik indarrean direnez; testu ekonomiko zenbait eta beren aplikazio eremuaren interpretatzeko zailtasunak; Estatu eta *Collectivités Territoriale*-ez akordioei buruzko printzipioen arteko koordinazio falta; ...



Nolako egitura politikoa?

ipar Euskal Herriaren garapenerako eta antolakuntzarako eskema onartu zuen joan zen urteko martxoan Garapen Kontseiluak. Ondorengo hilabeteetan oniritzia eman zioten eskemari Hautetsien Kontseiluak, Pirinio Atlantiarretako Departamentuak eta, joan den abenduan, Lionel Jospin buru duen CIATek (Lurralde Antolakuntzarako Ministerioarteko Kontseilua).

Ipar Euskal Herriaren garapena helburu duen plangintza estrategiko hau nork eta nola bideratu da orain arazoa, egitura politiko-administratiborik ez baitu Euskal Herriak Frantziako Estatuan. Ipar Euskal Herriari egitura berria ematea baitezpadakoa dela irizten diote batzuek —eta ez abertzaleek bakarrik—, baina orainarte bezala Biarnoari lotutako departamentuan segitzea defendatzen dute beste batzuek.


Batzuren eta besteren iritzien bila jo du *Jakin*-ek. Hiruna galdera egin diegu zortzi laguni. Lauk erantzuna igorri digute, baina beste lauren arraposturik ez zaigu heldu. Honako lau hauek erantzun digute: Jakes Abeberri, Euskal Batasuneko kidea eta datorren martxoko hauteskundeetan Abertzaleen Batasuneko zerrendaburua; Patxi Noblia, Garapen Kontseiluko zuzendaritzako kide izana eta Soko kooperatibako arduraduna; Txomin Peillen, euskaltzaina eta Eusko Alkartasunako kidea; eta Jakes Sarraillet, EMA alderdiko zuzendaritzako kidea.

Beste lau hauek huts egin digute: Max Brisson, RPRko kidea eta Akitaniako kontseilaria; Mixel Intxauspe, RPRko kidea, Frantziako Asanblea Nazionaleko diputatua eta Depar-

tamentuko kontseilaria; Jean-Jacques Lasserre, Force Democrate-eko kidea, Akitaniako Erregio Kontseiluko lehendakariordea, Departamentuko Kontseilu Nagusiko lehendakaria-ordea eta Bidaxuneko auzapeza; eta Frantxoa Maitia, Alderdi Sozialistaren Ipar Euskal Herriko idazkari nagusia eta Izpurako alkatea.

Egin dizkiegun hiru galderak datoz ondoren:

- 1.- Garapen Kontseiluak eta Hautetsien Kontseiluak Lur Antolakuntzaren alorrean proposamenak egin eta hainbat erabaki hartu dituzte. Baina nola gauzatuko dira erabaki hauek? Nork zer bideratu behar du?
- 2.- Zein litzateke zure iritziz Ipar Euskal Herriaren egitura politiko-administratibo egokiena? Euskal departamentua? Beste era bateko instituzioa?
- 3.- Zein eratako harremanak izan beharko lituzte Ipar Euskal Herriak inguruko lurraldeekin: Euskal Autonomi Elkartea, Nafarroa eta Akitaniarekin?



Jakes Abeberri

- 1.- Iparralderako garapen eta antolakuntza eskema berrehundik gora ekintzaile sozio-kulturalek landu dute bi urte inguruan zehar. Ondoren, aldaketa txiki batzuekin, Hautetsien Kontseiluak onartu du 1997ko martxoan. Hautetsien Kontseilu hau ez da sufragio unibertsal zuzenaren bitartez sortua, baizik eta Iparraldeko udalek izendatutako ordezkariez osatua, eta hauei gehitzen zaizkie, eskubidezko kide gisa, kontseilari nagusi, erregio kontseilari eta parlamentari guztiak; hauek guztiek, honela, pisu erabakigarria dute Hautetsien Kontseiluaren funtzionamenduan.

Hautetsien Kontseiluak ez du batere diru iturri propio-rik eta funtsean Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Nagusiko dirulaguntzekin funtzionatzen du.

Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Nagusiak 1997ko urriaren 3an onartu du antolakuntza eskema, atze-oihal gisa Euskal Herria departamentuaren sortzea zuen eztabaida luze baten ondoren. Akitaniako Erregio Kontseiluak antolakuntza eskema hau 1998ko urtarrilean onartu beharko luke bere aldetik. Era berean, Lionel Jospin lehen ministroa buru duen Lurralde Antolakuntzarako Ministerioarteko Kontseiluak (*Conseil Interministériel d'Aménagement du Territoire*, CIAT), abenduaren 15ean, eskema hau berretsi du eta berau lantzeko prozedurak eta finantzabideak finkatu, «Plan Région» kontratuaren markoaren barruan.

Erantzun hau idazteko unean, abenduaren 9an, ez daki-gu eskema hau bere osotasunean gauzatuko den epe jakin batean, edo eskemaren ardatz nagusietako batzuk baino ez diren gauzatuko. Nortasunaren alderdia kontuan hartuko ote den oso kezkatua dago euskal mugimendu kulturala, hala nola, batez ere: barnealdean lau ikastolaren eraikitzea eta Euskararen Kontseilua.

- 2.- Jakin behar da Iparraldea, oraingoz, izaera politiko-administratiborik gabeko kontzeptu kultural-sentimentala baino ez

dela. Nafarroa Beherea eta Lapurdi barruti administratibo bateko parte dira, Baionako hautes-barrutikoa, eta Zuberoa Olorongo barrutiko zatia da.

Frantziako Errepublikaren administrazioak lurralde kolektibitate hauetan du oinarria: udala, departamentua, erregioa eta Estatu. Sufragio unibertsalez hautaturiko asanblea eta exekutiboek kudeatzen dituzten egitura hauek bakarrik bildu ditzakete zergak eta administratu eskumenak, hauen banaketa 1982ko deszentralizazio legeek definitzen dutelarik. Iparraldearentzat gakoa, bere baitan existituko badu, lurralde kolektibitate horietako bat bilakatzean datza. Horra zergatik gaur egunera ondoen egokitua dagoen aldarrikapena «Euskal Herria departamentua» den. Gainera, Baionako Hitzarmen berriari esker, Estatu espainoleko entitate politiko-administratiboekin hitzarmenak egiteko ahalmena dute aurrerantzean mugako lurralde kolektibitate guztiek, norik bere eskumenen arabera. Euskal Herria departamentuak, beraz, Bidasoaz gaindi politika *vasco-basque* bat egiteko benetako ahalmena ere izango luke.

Noski, abertzale batentzat, Euskal Herria departamentua gutxieneko aldarrikapena da, Iparraldeari doi-doi existitza ahalbidetzen dio, eta Hegoaldearen gisako autonomi estatutu bat askoz gehiago litzateke. Tamalez, Errepublika frantsesak ez du onartzen era honetako egiturarik *gauza publikoan*, eta Konstituzio frantsesa aldatu egin beharko litzateke, Iparralderako estatutu espezifiko bat lortzekotan. Azkenik, kontzientzia abertzalea Iparraldean oraindik oso minoritarioa da baina goraka doa, eta aldi berean, auzapezen gehiengo handi bat eta iritzi inkesta bat Euskal Herria departamentuaren alde agertu dira.

- 3.- Euskadiko eta Nafarroako autonomiekin aurrez aurre, Euskal Herria departamentuak Baionako Hitzarmenaren markoan gauzatu dezake mugaz haraindiko jarduna, gorago aipatu dudan bezala. Jardun hau zabalago gauzatuko beharko litzateke Europaren eraikuntzaren barnean, euskal herritarron etorkizun bateratuari begira armonizazio aukera gero eta handiagoak eskainiko baititu Europaren eraikuntzak. Alabaina, Euskal Herria departamentuaren markoaren barruan, Akitania erregioko parte izango gara oraindik, eta legeak aurreikusten

du eskumen partekatuak izango ditugula. Abertzaleok ere ez dugu baztertzen, haatik, Asanblea erregionalaren gunean bertan parte hartzea, izan ere, datorren martxoaren 15eko hauteskundeetan Abertzaleen Batasuneko zerrendaburu izateko ohorea izango baitut neronek. ¶

[Erredakzioan euskaratua]



Patxi Noblia

1.- Garapen Kontseiluak asmatu eta landu du plan orokor bat Iparraldearentzat. Plan hori zazpi alor nagusitan sartzen da: azpiegiturak, formakuntza, euskara eta kulturako beharrak, etxebizitza eta eguneroko bizia, ekonomia, ingurumena eta mugaz gaineko harremanak.

104 proposamen finkatuak izan dira gai horiei buruz eta, 1996ko urrian, ofizialki onartuak biltzar nagusi baten bidez. Gero Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak gehienak atxiki ditu (zortzi bat baztertuz eta lau pixka bat aldatuz). Proiektuaren alde, 1997ko martxoan bozkatu zuten. Proposamen horiek guztiak onartuak izan dira, gutienik printzipioz, 1997ko urrian, Paueko Departamentuko Kontseiluan. Bide luze hori bukatzeko, Parisko Gobernuak Planaren laurden bati onarpena, osoa edo zatikatua, eman dio abenduaren 15ean; beste laurden bat aipatua izan da, erreferentzia bezala, baina medioak eskaini gabe, eta erdi bat ahaztua egon da.

Bestaldetik, ikusi behar da proposamen horietan badirela zati zenbaitzuk azkar eta erraz egiten ahalko direnak (bi edo hiru urtetan) eta bertze batzuk egiten ahalko direnak hemendik hamar edo hamabost urtera.

Horregatik erantzuna emaitako ez da batere erraza, zenbat jende eta instituzio partaide direlarik ikusiz. Bizkitartean aipatzen ahal da printzipio batzuk finkatuak izan direla eta zenbaitzuk hitzez onartuak.

Egiaz, paper eta hitz horien guztien ondotik errealitatean ikustea beste urrats bat da eta, dudarik gabe, benetako ondorioak ikusiko dira erakusten badugu, herri bezala, eguneroko eta egiazko nahia.

2.- Horri buruz ene iritzia argi eta simple: herri bakoitzarentzat aberri bat, hautatzen duen egiturarekin. Baina gaurkoan non da eta zer da herriaren nahia? Zorigaitzez ikusten da Euskal Herriko asmoak aski poliki mugitzen direla, bereziki hainbeste lokarrien tartean bizi behar denean.

Iparraldean gutienik berrehun urte beharrezkoak izan dira, hezurretaraino frantsesteko. Euskal asmoak agertzen ari dira azkeneko 30 urteetan, baina ber denboran noraino erori den gure euskara...

Gaurkoan orokorki, beste zinezko urrats bat emateko, ez dugu euskal departamentutik kanpo bertze aukerarik: gaur alkate gehienak horren alde ofizialki agertu dira, berrikitan ematen du baserriarren bi sindikatuak horri buruz bakea egin dutela, helburu hori bultzatzeko.

Euskara, kultura, mediak, ekonomia, unibertsitatea, bestaldeko harremanak... ez da beste tresnarik alor horiek guztiak azkartzeko, euskal departamentutik kanpo.

Agian egitura hori ez da egokiena, baina ez dugu beste aukerarik. 30 urte beharrezkoak izan dira xede hori zabaltzeko Iparraldean, eta lortzeko gehienek babesa. Egin dezagun hori. Lehen aldikotz Iparraldeak nortasun bat, lurralde bezala, lortuko du. Gero ikusiko, nola urrunago joan beharko den, aztertuz ere nola Hegoaldean, Nafarroa barne, orekatuko diren indarrak eta asmoak.

3.- Eguneroko politika, bizia eta ekintzak ez dira egiten amets batean edo bi lagunen artean bezala. Egiazko eta barneko kontraesanekin bizi behar da, gure zatiketarekin. Parisko eta Madrilgo kideak eta interesak gure herrian sartuak dira. Horregatik gaurko harremanak Ipar eta Hego Euskadiren artean aski pobre eta azalezkoak dira. Zertan dira gaurkoan harremanak eta ikusmoldeak Nafarroaren eta Euskal Autonomi Erkidegoaren artean? Mugak ez dira berdinak, baina...

Gure gaurko miserian, aberri bezala ikusiz, gutarteko zubi tiki edo handi guztiak onartzekoak dira. Agian denen

eta egiazko nahiarekin laster bidexka estu horiek zabalduko dira.

Bistan da benetako giltzak, alor honetan ere bai, Hegoaldean direla eta dudarik gabe askoz fiteago aitzinatuko garela gure harremanetan egiazko konponbide bat lortzen bada euskal indarren artean. Baina horretan ere berriz amestetan erori behar? ♣



Txomin Peillen

1.- Iparraldeko Garapen Kontseilukoa naiz. Hasieratik egiturei buruzko politika ikerketak ezinezko genituela adierazi ziguten: ez genituen ez Euskal Herriaren lurraldetasuna, ez euskararen legezkatzea, aipatu behar. Euskal Herriaren Antolakuntza eta garapen eskema aurkeztu zigutenean txuri bozkatu nuen. Honelako ezkertiar abertzale eta aparatu gizon burutxuri batek kexuarekin galdetu zidan ea zergatik boto txuria eman nuen. Demokraziaren ikuspegi bitxia, besteen botoa ez onartzea. Nire bozka izan zen susmo txarrezkoa: ez genekielako, eta alferrean galdetu nuelako, orduan, egitasmoa zenbat kostako zen, nork eramango zuen aplikapena.

Bozkatu zenean ez ziguten esan dirurik bazenez, gehienetan egitasmo konkreturik ez eta zenbakirik batere ez zen eman orduan. Ez genekien, ordea, eskuineko Lammassoure ministroak gure egitasmoa hain gaizki defendituko zuenik, nola CIAT Ministerio Arteko Lurralde Antolakuntza batzorde horrengandik ezezko gorria hartzeraino.

Orain ezkerrean boterean dago eta eskema CIATaren aurretik, aurrekontu eta guzti, 1997ko abenduan iragan da. Nicole Péry gure diputatuak berriki esan digu nola ibili den ministerio batetik bestera euskal dossierraren eskabidea aurkeztu, azaltzen, eta nolako oztopoak eta uzkurutasunak dauden goi administrari zentralisten aldetik. Goiko horiek ez dute onartzen behetik gorako demokraziarik eta Frantzia herri bakarra baita Euskal Herria pentsaketa horretan sartu dena. Eta beste askok

jarraikiko gaituztelakoan Parisen, gure arazoak ikusten dituzten batzuek, ogibidea eta lan arrazoa ken geniezazkiekeela uste dute.

Lamassoure jaunak esan zigun Baionako hitzarmena Frantziako biltzarrek onartu zutenaz gain, Euskal Herri hegoaldearekin tratu eta akordio egingo zirela mugazgandi, Paristik eta Madrildik igaro gabe. Batik bat, kulturen dagoneko egiten den gisan, azpiegitura arazoetan, baita ekonomia harremanetan, norabide berdinerara tiratzeko ere. Gure kongresuan zegoen aditu gazte batek ordea erautsi zigun ez zela elkarrekiko organismo erabakiorrik sortzeko ahalmenik izango Baionako hitzarmenaren bidez, kontsulta batzordeak baizik.

Horiek guztiek erran nahi dute, eskema eta egitasmo horretan dauden osagaien gauzatzeko, sail bakoitzak aurkitu beharko dituela kontratu bereziak departamentuarekin, eskualdearekin eta Parisko ministerioekin sinatzeko. Beraz, bada zeregina, baina lurralde eta instituzio gabe ez da lan erraza izanen. On daigula.

2.- Frantzian ere zoritxarrez demokrazia goitik behera jausten da eta Parisek nahi ez duena ezin da egin jende gehiengoak eskatu arren. Euskal Herriko alkateen % 63ak eta herritarren % 64ak Euskal Herri departamentua eskatu dute eta aurka zen Baionako eskuineko hautagaia erori. Ea sozialistek bearnesen baimena eskatu gabe, emango diguten Mediterrand-ek hitz eman departamentua? Lehen pauso batean Garapen Kontseiluari egitasmo horren lantzeko zuzena eman behar litzaioke. Hala biz.

Egia da departamentua ez dela egitura egokiena, baina ez dago besterik. Eskualdeak antolatu ziren garaian ez ziren ausartu frantses iraultzak sortu egitura horren desegitera, nahiz ez duen gehiago balio. Egia da, departamentua dela jauntxo eta kazikeen abialekua, gero Senatuan bukatzen dutelarik beren dirutxoak egiten. Baina oraindik hogeita hamar urtez iraungo du egitura horrek eta euskaldunei zerbitzu egin dezake, besterik ezean.

Urriaren 29an abertzale moderatuak elkartu ginen ipar Euskal Herriko sozialistekin ea departamentuaren asmoa eramango zuten aurrera. Frantxoa Maitiak esan zigun, «denbora behar da horretarako», eta guk ihardetsi, sozialistak hamar

urtez boterean zeudenean, hamar aldiz Mitterrandek hitz emana ematen ahal zuela. «Ez da aisa izanen ez baitugu dosierrik prestik auzapezen biltzarrean diputatuei erakusteko», hark gaineratu; eta nik bagenekiela bazegoela dossier ganoradun eta zehatza Renaud d'Elissagaray ekonomistak, zenbaki eta xehetasunekin, egina. Gero hark: «baina gure lagunak ere bildu behar ditugu». Eta guk erantzun genion, hauteskundera abertzaleen beharrezko botoen biltzeko izan bazen departamentua agindua, ez zuela balio. Jarraiki zuen beste oztopo bat aipatuz: guk eskatzen genuena beste bi departamentuk ere eska lezaketela.

Ez da oraindian Frantzian ikusten beste egituraketa baten aldeko gogorik. *Pays* edo *Herri* izatearen ezagupenak Euskal Herriari ez badio aginterik ekartzen, orain, beharbada hemendik hogeit urtera —departamentuaren kentzea aipatuko denean— horrelako izen batekin eta botere zenbaitekin administrazio egitura bat emango zaigu, nire bizian nekez ikusiko dudana.

Bitartean hitzik ere ez dago Euskal Herriak beharko lukeela estatutu berezia, kortsikarrek lortu dutena. Iparraldeko abertzaleen ustez bi aterabide omen daitezke. EMAk autonomia batetik landa independentzia eta sozialismoa aldarrikatuz. EAK konkretuki duela bost urte idatzi zuen Euskal Herriak beharrezkoa lukeen Estatutu berezia, eta zirriborro zelakoan beste abertzaleei eskatu eztabaidatzea.

Oraindik erantzunaren zain dago, elektoralismoa ere alderdixoen gaitza bilakatu delako; handik urtebete bai beste kontraposamena, eztabaidaezina, egin zuen ezker abertzaleko talde batek.

Garapen Kontseiluan lan ona egin bada abertzaleei esker, elkarrekin gizartea benetan aldatuko lukeen egitasmo baten ontzeko ez gara gai izan. Alta badakigu departamentu baten egitura zaharkitu batean ere estatutu batek bergobernarako ahalmenak ekar litzakeela.

- 3.- Ipar Euskal Herria, departamentudun ala departamentu barik, beti unitate txikia lez ikusia izango da. Arriskua dugu gure buruen gainetik Euro-eskualde bat sortuko dela, Akitania, EAE eta Nafarroarekin eta orduan Iparraldeko nortasuna itotzen joango dela. Horretarako nire ustez departamentua edo *herria*

edo nahi dena lortu ondoren egun batez, estatutu bat ere eskatu eta erdietsi beharko da.

Nire ustez aspaldian Garaikoetxeak aipatu Dieta behar genuke. Alegia, hiru euskal lurraldeek —beren nortasunak gordez— biltzar erabakior bat elkarrekin sor dezaten zeinetan arazo handienak, azpiegiturenak, lanarenak, ekonomiarenak, hizkuntzenak, erabakiko liratekeen.

Harremanen beharrezkotasun hori abertzale ez direnentzat ere argi da, baina jadanik Iparralde-Hegoalde ekonomia-
ren osagaitasuna gauzatzen da, eta zazpi euskal Merkataritza Ganbarek akuilatzen dituzte harreman horiek, halaber kultur-
ran euskarak oraindik ematen digun lokarriaren bidez harre-
man aski onak badira.

Bi sail horietan hobetu litezke harremanak, irakaskun-
tzan batik bat; gero azpiegituren sailean zerbait egin da, bai-
na azkenean egitura berezi baten faltan, Dietarik ezean, luza-
mendutan, oztopotan, indar galtzen dute harreman asmoek,
gure lurraldetatik kanpo (Iparraldean, departamentutik,
Akitaniatik eta Paristik ibili beharra) eta gure iritzi barik har-
tzen direlako erabaki asko, alegia nazioartekoak direlako.

Bestalde gure euskal nortasunak ez baditugu galdu nahi
ere, gure buruko mugek jarraitzen dute eta —nahiz eta txarra-
goa, abertzalea izan— luzaro bestea Hegoaldekoa espainola
dela edo Iparraldekoa frantsesa dela errango eta pentsatuko
da; gainera, frantses kultura eta espainol kultura ezberdinetan
moldatuak garenez, askotan ezin ulertuak daude, bizitzeko eta
pentsatzeko bi erdal ohitura eredu horiengatik. Harremanen
hobetzeko mentalitateen ezaguera hobetu behar genuke
Iparraldeko bat andaluz bat bezain herritarra izan dadin
Hegoaldeko batentzat, eta herritarrago Iparraldeko batentzat
gipuzkoarra paristarra baino.

Nolanahi ere euskaldun abertzaleak zeinek gorago alda-
rrikatzen dugularik independentzia, hitz horren inguruan
pentsaketa bat egin behar genuke, ezen Frantzia berak bere
independentziaren zatiak utzi dituelarik eta baratx-baratx,
halabeharrez, Europaren egitera goazelarik, halabeharrez, ber-
governua ez ote da garrantzitsuago, euskal muga bat, euskal
diru bat, euskal diplomazia bat eta euskal armada bat amestea
baino? ¶



Jakes Sarraillet

1.- Hautetsien Kontseiluak mamirik gabeko intzaur kuskua da, hala nola Auzapezen Biltzarra, ez baita ahalmen politikozko erabakigune bat. Horretan ibiltzen direnek, pentsatzen edo nahi luketena baizik ezin dute erran. Eta denak aho batez mintza balitez oraino, zerbaitetarako on liteke presione gisan, baina hori ez da kasik nehoiz gertatzen.

Garapen Kontseiluak bere konklusioetan egiten dituen proposamenak ene ustez hiru gisatara tratatuak izanen dira (hori erran dezakegu orain, jakin baitugu abenduaren 15eko CIATek Garapen Kontseiluaren plana ontzat eman duela, zenbait alorretan bederen).

Hiru gisatara, zeren gaur egun frantses estatuan, ahalmen politikoak hiru erakunderen artean banatuak direlaket: guber-
nua, eskualdea eta departamentua. Bakoitzak bere ahalmen ere-
mu berezia badu eta ohargarria da egiazki, Euskal Herriaren-
dako euskaldunek landu eta egin proposamenak, gure herritik
kanpoko egitura arrotz batzuek behar dituztela bideratu!

Horrek argi eta garbi adierazten du ez direla proposa-
men guztiak gauzatuko, euskal herritarrek eta beren dirua edo
erabaki ahala kudeatzen dutenek, hainbat puntutan (adibi-
dez, premiazkotasunari buruz) ez dutelaketz ikusmolde bera.

2.- Dударik ez da euskal departamentuak jende anitz biltzen due-
la bere inguruan, bizi sozialaren arlo guztietakoak eta nekez
ikusten da nola estatua gor egoiten ahalko den luzaz horrela-
ko eskaera sozial azkar baten aitzinean. Horrek ez du erran
nahi baitezpada departamentu berri bat sortuko duela, baina
bai nolabait erantzun baten emaitera bortxatua izanen dela.
Lehengo gobernuarekin gertatu zen bezala, *pays delakoaren*
izendapenarekin.

Dena den departamentua ote da Ipar Euskal Herrian
sortu behar litzatekeen egitura egokiena? Nik horri erantzuten
dut, neurri handi batean, ez. Zeren departamentuak ofizialki
ezagutzen baldin badu Ipar Euskal Herria muga administrati-

bo berri batzuk ezarriz (eta oraino hori ere ikusi beharko da nola pikatua izango den), haatik konpetentzien aldetik oso urria da departamentuaren egitekoa: zerbitzu sozialak, bide batzuen kudeantza edo kultura mailan subentzioen banaketaz ez da biziki haratago joaiten. Nehondik ere ez du bere eskuetan Garapen Kontseiluaren proposamenak bidertzeko ahala.


Nik uste dut haratago joaitera entseiatu behar dugula eta behar dugula momentu hau hobeki baliatu, bereziki eskaera sozialari erantzuteko momentuan. Azken finean, jendea euskal departamentu baten alde agertzen bada inkestetan, erran nahi du egitura politiko aldaketa bat eskatzen duela, baina ez du nehindik ere erran nahi beste zerbaiten kontra denik.

Izan ere azken hilabete hauetan beste aukera bat dago departamentuaren itzalean: autonomia estatutu bat. Hori da ene arabera bide egokiago bat, alde batetik hemendik atera den ideia delako (menpekotasunarekin hautsi nahiz), hemen landua eta gogoetatua, hemengo beharrei erantzuteko eta bestetik, pentsatu izan den moduan, ahalmen politiko handiak litzukeen egitura baita, etorkizuneko erronkei buru egiteko gai litzatekeena (adibidez, bistan da, Garapen Kontseiluak egin proposamenen behar bezala bideratzeko).

3.- Dudarik ez, Ipar Euskal Herriak harremanak behar dituela ukan inguruko lurralde guztiekin: naturalak eta interesatuak Hegoaldeko biekin, bereziki proiektu amankomunak bultzatzeko batzen gaituzten eremuetan (asko bada). Bestalde, elkarrekiko lan horrek kontuan hartu beharko luke Euskal Herriaren nazio izaera honen ezagupena bultzatzeko. Interesatuak ere denbora berean, Hegoaldetik, laguntzak etor litezkeelako garapen ekonomikoaren bultzatzeko.

Gero ipar Euskal Herriak Akitaniarekin eduki behar litzukeen harremanak, interesatuak eta naturalak direla errango dut, guretako Ipar eta Ekialde Europako atea baita ekonomia mailan eta aspaldikoak eta azkarrak direlaketz harreman historiko eta kulturalak. ♣

Gaiak



EL ENA MARTINEZ

Itxaropena, gaur egungo gure koldarkeria

81

Itxaropena, gaur egungo gure koldarkeria

Günther Anders: Munduaren arazoetan murgilduriko filosofoa

*

E L E N A M A R T I N E Z

*

Günther Andersek ez zuen inoiz eskuratu pentsalari eta poeta bezala ongi merezia zuen ospea, nahiz eta mende honetako beste pentsalari handiengan, Adorno eta Sartre esaterako, eragina izan zuen. Egia bada ere nuklearren kontrako borrokan parte hartzeak, edo Vietnameko gerraren kontrako Russell Tribunaleko kide izateak Anders aski ezagun egin zutela, bere pentsamendu eta bizitzaren beste alderdi batzuk berriz ezezagun samar dira egun. Agian beti zirkuitu nagusietatik kanpo pentsatu eta idatzi zuelako, edota, oso pentsalari polifazetikoa izateaz gain, injustiziaren salatzaile ausarta eta polemikoa zelako ere. Andersen azken jokabide hau zela eta, zenbaitek praktikara «desertatu» izana aurpegiratu zion: hutsegite barkaezina filosofo batengan, hala eta guztiz maiz barkagarriagoa izaten dena, baldin eta praktika horrek beste aldera jotzen badu. Hans Magnus Enzensbergerrek 1958an ongi adierazi zuenez, batzuk «maila periodistikora» jaitea arrazoirik gabe leporatu zioten arren, Andersek —zorionez— ez zuen inoiz atzera egin, «norberaren garaiko sufrimenduez arduratzeak deskreditatzea dakarrenean, filosofoak duintasun faltagatik galtzen baitu dagokion eskubidea»¹.

1 Elena Martinez Filosofian doktorea da. Hannah Arendt filosofoari buruzko tesia egin du.

Andersek bizitza osoan eutsi zion aipatu jokabide honi. Eta beti jo zuen ezmoraltzat klase akademikoarentzat soilik idaztea, okinak ogia okinentzat bakarrik egingo balu bezain ezmoral eta zentzugabetzat. Izan ere, Andersek —beste filosofoak gogoan eduki ezezik— boterearen txantajearen kontra borrokatzeko prest dagoen edonori zuzentzen zizkion bere testuak eta ahaleginak. Horregatik, eta hizkuntza ez delako inoiz errugabe, etengabe aztertzen ohi zituen eztabaidan eta idazkietan erabilitako terminuak.

Egindako lanarengatik sari ugari jaso zituen, beste batzuei berriz uko egin zion, boterea bere izena posizio bat justifikatzeko erabitzen ari zela susmoa izan zuen guztietan alegia. Inoiz ez baitzion ihes egin munduan gertatzen ari zenari eta bizitzaren azken urteetan, laurogeita hamar urte zuela ere, txantaje nuklearrari aurre egiteko eta hil ala biziko borrokarako deia egiten segitu zuen.

Totalitarismoaren kontrako borroka

Günther Anders Breslaun (gaurko Polonia) jaio zen 1902an, judu asimilatuen familia baten baitan. Judu izatearen kontzientzia ez zion etxekoei zor, gazaroko lagun bati baizik, Ekialdeko etorkinen semea hau eta «bigarren mailako» judua beraz, ongi bizi ziren Alemaniako juduen begietan. Identitate-gatazkak sufrimendu handia sortarazi zion Andersi gazte-gaztetatik: laster ulertu zuelako, integrazioa bilatu eta bere burua ukatzen duen subjektua —bere nortasunaren definizioa nahiz patua besteren esku utzita— defentsarik gabeko egoera arriskutsu eta tragiko batean bizi dela.

Andersek Filosofia ikasteari ekin zion 1919an Freiburgen. Bertan Hannah Arendt ezagutu zuen, geroago bere emaztea izango zena. Baina Andersek, doktoradutza Husserlekin burutu ondoren, ez zuen lortu Unibertsitatean sartzea: batetik naziak gora egiten hasiak zirelako; bestetik, musikaren soziologia zelako bere gaia, nahiz eta Adornok —zeinak orduan Anders baztertzen zuen heideggerzalea zelakoan— horri buruz ere ikertzen ziharduen. Anders alabaina ez zen inoiz izan Heideggerren jarraitzaile, bere 1948ko *On the Pseudoconcreteness of Heidegger's Philosophy* izeneko testuak era-

kusten duenez. Adornok berak ere aitortu zuen beranduago Andersen testu honek bere *Negative Dialektik* izeneko liburuan eragina izan zuela.

1930garren urtean Anders kazetari egin zen Berlinen Brechten laguntzaz. Garai honetan moralaren ikuspegitik garrantzirik ez zuen guztiaz ahaztea erabaki zuen, faxismo eta gerraren kontrako idazketa didaktikoan buru-belarri murgiltzeko, bizitza osoan iraun zuen erabaki bat. Autoritarismoaren kontrako fabula, narrazio eta artikulu ugari ere urte hauetakoak dira.

Gizaki zaharkituak

1933an Alemaniatik Parisera alde egin zuen Andersek, ondoren Estatu Batuetara emigratuz. Bertan mota guztietako lanak egin behar izan zituen. Lan munduko esperientzia hauek eta *american way of life* delako «bizimodu demokrati-koa» gertutik ezagutzeko aukera oso onuragarriak izan ziren bere teknikaren inguruko filosofiaren sorreran. Esperientzia horietan oinarritu baitzuen bere filosofia liburu nagusia: *Die Antiquiertheit des Menschen*, 1956 (Gizakiaren izaera zaharkitua). Andersen arabera, gizakiak teknikak bazterreratutako izaki zaharkitu eta akasduak besterik ez dira, teknikak —subjektu bihurtuz gero— kontzientziaren niari lekua kendu baitio. Andersek gainera, mendebaldeko tradizio filosofikotik urrun, gizakia beste izaki guztien mailako bezala definitua zuen lehendik, munduaren erdigunean kokatu ordez. Are gehiago, ongia eta gaizkiaren artean aukeratzeko “askatasun morala” abantailatzat baino, beste izakiekiko desabantailatzat hartzen zuen. Ideia honek Sartrearen askatasunerako kondenaren tesian eragina izan zuen, Andersen *Über die Weltfremdheit des Menschen*, 1930 (*Pathologie de la Liberté* frantsesez) izeneko testua zela medio.

Emigrazioan, beste europar pentsalariekin elkartu zen Anders —hala nola, Marcuse, Horkheimer, Adorno, Döblin, Brecht...—, baina *outsider* bat izaten jarraitu zuen *milieu* hartan ere, ez zegoelako prest ez inongo alderdiaren lineari jarraitzeko, ezta eskola edo korronte filosofikoren kide edo jarraitzailea izateko ere. Argi dago ilustratuen elkarrizketek ez zutela liluratzen ezta karrera akademiko hutsak asetzen ere.

Faxismoaren kontrako borroka zuelako kezka nagusia, eta gizakia bera, zeina mende honetan perspektibarik gabeko mundu batean bizi den, isolatu bezain masifikatua eta beti ere totalitarismoarekin kolaboratzeko arriskuan. Ongi ezagutua baitzuen Andersek masa-gizakien sasi-elkartasuna nazismoan, bai eta eskubideak kendu zaizkien biktimen alienazioa ere. Dena delarik ere, Anders berehala konturatu zen, estatu demokratikoetan gehiengo batzuk badirela, Hitlerri botoa eman zioten gehiengo itzel haiek baino demokraziaren ispilu handiago ez direnak, areago masa-komunikabideen garaian, non gehiengoak ekoiztu daitezkeen beste produktu guztiak bezalaxe.

Ezerezaren esperientzia

Baina 1945eko abuztuaren 6a —giza irudimena gainditzeko duen ezerezaren esperientzia, hots, gizadiak bere buruari lurretik desagertarazteko posibilitatea— izan zen laster Andersen pentsaera nahiz ekintza guztien ardatz bihurtu zena.

Arazo filosofikotzat hartuta, gure existentzia bonbaren mehatxupetik *terra incognita* bat da. Hasteko, Filosofiaren arloan, munduaren iraupena ez da jadanik izango esan gabe doan zerbait, aurreko filosofo guztientzat zen bezala. Zentzu honetan, ezinezkoa da esatea pentsamenduaren garai berri baten atarian gaudela, ez dakigulako etorkizunik izango den ala ez. Beraz, etorkizunaren aldeko borroka funtsezkoagoa da gaur, teoriaren garapena baino. Ideia honek filosofia bera erlatibizatzen duen arren, azken batez mundua da lehen-tasuna duena, baita filosofoarentzat ere, astronomoarentzat zerutar gorputzek —ez Astronomiak— lehen-tasuna duten moduan.

1950ean Anders Europara itzuli zen, McCarthy hasitako jazarpen politikoaren ondorioz. Eta Austria aukeratu zuen bizitzeko, ez zuelako erakartzen ez Alemaniaren Errepublikaren Demokratikoaren errealismo sozialistak ez eta Adenauerren Alemaniak, non erbestetik itzultzen zirenei ez zitzaizkien harrera onik egiten, erantzukizunaren eztabaida suspertu eta gelditutakoei oroimen ezatseginak ekarriko zizkietelakoan. Andersek zera ulertu zuen orduan: hiriek jasanda-

ko bonbardaketek nahiz goseak natura-katastrofearen kutsua zutela zegoeneko eta krimenen ondorio izugarriek kriminalak bigarren planoan utziak zituztela kausei buruz pentsatu nahi ez zuen jendearen gogoan. Bestalde, Andersek ez zuen onartu Ernst Blochek proposatutako irakasle-postua Alemaniako Unibertsitatean, bere filosofia medio hartakoa ez zela uste zuelako. Gauzak horrela, austriar irratian hasi zen lanean saio didaktikoen egile gisa, bere “begi-zabal-tzaile” lanetan jarraituz.

Imajinazioa eta Morala

50eko hamarkadako azken urteetan Anders harremanetan jarri zen Claude Eatherly, bonba atomikoa Hiroshima gainera bota zuen hegazkinaren pilotuarekin. Pilotua psikologikoki gaizki zegoen eta bere burua hiltzen saiatua zen errudun sentitzen zelako. Honela, Estatu Batuetan zeukan heroi nazionalaren irudia deuseztatzea lortu zuen, nahiz eta militarrek kasua ezkutarazten saiatu ziren. Garai berean hasi zen ere Eichmann eta beste nazien kontrako prozesua. Baina Eichmann, pilotua ez bezala, ez zen ezertaz damutzen eta bere eginbeharra bete baino ez zuela egin deklaratu zuen bere buruaren defentsan. Andersen ustez, bion arteko diferentzia morala mugatzen zaila izanik ere, pilotuak “gaizkiaren errugabetasuna” gorpuzten zuen, Eichmann —bere jokaera errudunaren ondorioak imajinatzeke gauza ere ez zena— bulegoko kriminala zen bitartean. Gai honi buruz liburu bat argitaratu zuen Andersek 1961ean, zeina hamazazpi hizkuntzetara itzuli zen: *Off limits für das Gewissen* (Off limits kontzientziarako). Garai honetakoa da baita ere *Wir Eichmannsöhne*, 1964 (Gu, Eichmannen semeok), Eichmannen semeari zuzendutako eskutitza.

Izan ere, gaurko gizakiak ez dira lehen baino gaiztoagoak, baina beren ekintzak —dituzten tresnen neurrigabetasuna dela eta— neurririk gabekoak bilakatu dira. Honek imajinazioaren analisisira darama ezinbestez: alde ia gaindiezina dago gizakiek produzitzen dutena eta buruan erreproduzitzeko gai direnaren artean. Bestela esanda, oso ahula dute imajinatzeke ahalmena. Erabateko lan-zatiketa izan da gainera gure mendean ahulezia hori areagotu duena.

Bakea ez da bidea, helburua baizik

1986an, Andersek biolentziari buruzko bere tesiak argitaratu zituen Chernobyleko istripuak bultzatuta eta protesta baketsuaren porrotaren esperientziatik abiatuta. Tesi horien arabera, energia nuklearren bidez hiltzeko mehatxu egiten digutenen kontra, gure burua defendatzeko eskubide naturala dugu. Hau da, bakea helburu dugu, baina ez automatikoki bidea. Aitzitik, sasi-pazifismoaren klitxe asko argitu beharra dago gure ekimenak eraginkor izatea nahi badugu.

Hortaz, arrazionalismoaren lehenengo zeregina zera da gaur: arrazoiak konbentzitzeko duen ahalmenari buruzko ilusioak apurtzea. Milioika gizakumeren desagerpena, are gehiago, gizadiaren desagerpena prestatzen ari direnen kontra ez baitu balio biolentziari uko egite hutsak, beraiek direlako bizitzeko eskubiderik ez dutenak eta desagertu behar direnak. Bonbaren jabe izate hutsak errutasun morala baitakar ezinbestez: bonbaren hor egote hutsa *ultimatum* izaera duen txantajea besterik ez da eta.

Gauzak honela, Andersek “kontserbadore ontologikotzat” jotzen zuen bere burua: Marxek “orain arte filosofoak mundua modu desberdinetan interpretatzen ahalegindu dira; mundua aldatzea da alabaina axola zaiguna” esandako hura ez da nahikoa, mundua aldatu eta hobetu ahal izateko baldintza, beronen iraupena denez gero.

Beldurraren analfabetoak

Gizakiak “beldurraren analfabeto” bihurtu dira, ez direlako gai katastrofe nuklearraren ondorioez ohartzeko, agian katastrofe horrek imajinagarri den muga gainditu delako. Horrexegatik imajinatze ahalmena trebatu eta indartu behar dugu, zertan ari garen jakin dezagun. Perzepzioa bera ere ez da produzitzen denaren pareko: zentral nuklearrak eta bonbak, edo Ausschwitzen erabiltzen zen gasaren kartutxoak, oso irudi kaltegabea dute. Hau da, kontzienteki trebatutako imajinazioak hobe antzeman dezake egia perzepzioak baino. Paradojiko badirudi ere, imajinazioa da landu behar dena enpiriari aurre egin ahal izateko.

Katastrofearen posibilitateak indargetu dituenei ordea, edo adorea galdu dutenei, ondoko maxima ziniko hau ekarri nahi die Andersek gogora: «Zer axola niri etsita banago, ez banengo bezala jarrai dezadan». Koldarkeria delako gaur egun itxaropenaz hitz egitea. ¶

-
1. Hans Magnus Enzensberger, *Philosophie des Ärgers*, Frankfurter Hefte, 1958.


Andersen liburuak frantsesez eta gazteleraz:

Llámesese cobardía a esa esperanza, 1995.

Kafka: Pour et contre, 1990.

De la bombe et de notre aveuglement face a l'apocalypse, 1995.

Egunen
gurpilean



kultura • 91

Klasikoen bilduma dela-eta • Libelo gehiago

ALBERTO BARANDIARAN



literatura • 96

Bukowski • Urrutikoetxea • Sarrionandia • Elgeazabal

EDORTA JIMENEZ



ikuskizunak • 101

Aitzineko abangoardiak • Abangoardiaren bidegurutzean
• Eskaleen abangardia • Porrotx pailazoa • Madril aldera
• Gora ni eta nitarrak

IMANOL AGIRRE



soziolinguistika • 107

Hizkuntz eskubideak • Eurokarta dela-ta • Estatu zibikoak eta
etnikoak • Lurraldearen garapen eskema • Hizkuntz
antolaketa • Hizkuntz Kontseilua • Gizartearen eskaera


ERRAMUN BAXOK



telepolis • 113

Zer da hau? • Libelo bat omen dago Interneten • Manolo
askatu! • Lehen harria botatzeko, beti prest • Demokrazia
elektronikoa? • Zientzia eta Teknologia Planak zertarako
balio duen

LUIS FERNANDEZ



Klasikoen bilduma dela-eta

Urte batzuk igaro dira institutuko irakasleei fisika edo filosofia euskaraz ikas zitekeen galdetzen genienetik. Urte batzuk eta hamaika lizentziadun. Oraindik badira, hala ere, harritzen direnak Aristotelaren lanak euskaraz argitaratu daitezkeelako. Hainbeste, Espainiako egunkari nagusiko literatur gehigarriak artikulua eskaini ziola urtarrilaren 17ko alean Klasikoak argitaldariak kaleratutako azkenotako lanari, filosofo mazedoniarraren *Metafisika*-ri. Artikulugileak azpimarratzen zuen emaitza —«Euskarazko edizio hau, berez, filosofiarren unibertsaltasunaren errebindikazioa da»—, eta gogoratzen zuen bide batez badela korronte bat aldarrikatzen duena filosofia klasikoa soilik hizkuntza klasikoen familiakoetara itzul daitekeela. Hau da, euskara ez litzatekeela egokia horretarako. Berrogeita hamar liburuk ezeztatu dute jada aipatu jarrera filosofikoa eta, beraz, eztabaida oso interesgarria izanda ere, interesgarriagoa da bildumak berak dakarrena. Garbi baitago asmoa ez dela irakurleak izatea, baina huts bat betezea, liburutegia osatzea. Eta errezeloak behingoz aldentzea.

Aurreko alean Harkaitz Canok zioen bazirudiela irakurleek itzulpenekiko zeuzkaten mesfidantzak desagertzen ari direla. A ze kalte egin duten ordea batzuek! Idazle handi-handiak gureganatu baino gorrotatzeko balio izan dute zenbaite-tan. Nik hiru bereziki gogoratzen ditut, sekulan barkatuko ez dudan itsuskeria egin zidatenak: William Faulknerren *Santutegia* nobelaren itzulpena, Marguerite Yourcenarren *Hadrianoren oroitzapenak*-ena, eta Italo Calvinoren *Bizkonde erdibitua*-rena. Ez dut esaterik itzulpen txarrak ote ziren berez, barka nazatela testuak egokitzen orduak sartu zituzten haiek, baina nik ez dut hiru maisu hauen lanak berriro irakurtzerik izan. Gogaitu egin nintzen orri haiekin borrokatzen, aurrera eta atzera kapituluaren erdian, haria galtzen eta berriro saiatzen, aspertzen nintzen arte inolako harremanik egin gabe ez idazlearekin ez nobelarekin. Ondorioz deskatalogatu egin ditut, nolabait esateko, nere zerrendatik. Esperientzia latz

honen erruz, urte askotan nik ere urrundu nituen begibistatik, kutsatuta baileuden, itzulpenak.

Igelak argitara emandako Louis-Ferdinand Celineren edo Truman Capoteren lanen itzulpen bikainei esker hasi nintzen berriro hurbiltzen, eta Rax Rinnekangas finlandiararren *Ilargia ihesi* liburu zoragarriarekin barkatu ditut traditore batzuk. Baina zenbat irakurle egon dira espantaturik, itzulpen txarrek uxatuta? Susmoa dut gainera kasu askotan argitaletxeek hobetsi dutela liburua atera beharra itzulpenaren egokitasuna baino. Liburu asko «guk ere kanpoko autoreak ateratzen ditugu eta» esan ahal izateko argitaratu direla; euskal filologia titulua atera berria eta —batzuek ezta hori ere— askok ekin diotela literatura itzultzeari, eta harro-harro aurkeztu dutela gero, irakurlearentzat lehen orritik bigarreneko urratsa Aitzgorriko malda baina gogorragoa izanik ere. Euskarazko testuekin berdintsu, baina honetaz asko dakitenek esango luketen bezala, itzulpenek duten garrantzi estrategikoa kontuan hartuta, arduragabekeria handia da zenbait libururekin egin dena.

Betoz bedeinkazio guztiak dituzten klasiko hauek, beraz, gurera. Lehengoan Kanten testu bat hartu nuen jakinminez, filosofia beti latza izan bazait ere. Hamar bat orri irentsi nituen etenik gabe eta mirestuta gelditu nintzen. ¶

Libelo gehiago

Hain zuzen Celineren *Gauaren muturrerainoko bidaia*-ren itzultzailea izan zen Matias Mugicak zartako ederra eman dio pilotari bere libelo famatuarekin, eta gelditu da begira gainera ea norbaitek errebotetik itzultzen duen. «La cultura en euskera» testua, Interneten sinadurarik gabe bueltaka ibili ondoren *Ostiela!* aldizkariak azken zenbakian argitaratu duena, gogoak astindu eta zer pentsatua emateko egina omen da, eta berehala hartu du izar piura: denen ahotan dago. Egileak uste duenez, kritika alferrikakoa izango da, doktrinak itsutu egiten baitu euskaldunon hausnarketa eta autokritika. Aldez aurretik onartzen badugu esaldi asko zirikatzekeo eginak direla, utz ditzagun txikikeriak. Gauza egiazko eta intergarri batzuk esaten ditu nafarrak.

Lehendabizi, esan behar da Iruñekoa dela bere argazki-ko gizarajo hori, deus ulertuko ez balu bezala errieta jasaten duena. Karikaturista bat balitz bezala, Matiasek azpimarratu du erretratatuak baduela garatxo bat hortxe, sudurrean bertan, hortzak kariesak belztuta dituela, usaina dariola galtzarbetik eta gainera itsusi samarra eta txikia dela. Herrena ere bai. Ez du esaten grazia ere baduela apur bat, atsegina dela eta bere miseriek, batzuetan, maitagarri egiten dutela. Tira, libelo bat da.

Bere tesia zera da: euskal kultura normalizatzen ari garen ustea darabil bazterretan, baina, orokorrean, ateratzen dena txarra da oso; euskara barne-barnetik bizi duen jendeak ez dio jaramonik egiten produkzioari, eta euskaldun profesionalak dira —itzultzaileak, idazleak, kazetariak, irakasleak...— gehienbat hori bultzatu eta gorai patzen dutenak; hortik ondorioztatu daiteke euskal kulturaren oinarrian gezurra dagoela ausarki, eta oso gauza gutxik iraungo zuela kalitatearen benetazko galbahetik pasaraziko balira.

Egia borobila da egiten den produkzioaren gehiengoa soilik hirietan gelditzen dela, eta hiri horietako euskaldun parte batek bakarrik kontsumitzen duela. Liburuak, itzulpenak, egunkariak, antzerki emanaldiak, hitzaldiak... ez dira iristen euskara era militantean bizi ez duen jendearengana. Eta militantzia hori ez duten asko dira, Mugicak ondo gogoratzen duen bezala, euskara naturalen bizi dutenak. Beti erabili izan den argudioa da alfabetatu gabeko jendea dela horietako gehienak, iritsi ahal izateko mugak beraiek dituztela jarriak, eta euskal kulturaren parte handi bat —hirietatik sortzen dena, alegia— heldu diren euskaldun gazte ikasientzat pentsatua dagoela. Baina lortzen ari da ikastola eta ikastetxetatik ateratzen diren belaunaldi berriekiko harremana, lotura, konplizitatea? Ezezkoan nago ni, behintzat. Hurbiltzen diren gazteak betiko bidetik datoz, militantziarenetik alegia. Hori da gaur egungo euskal kulturaren ahuldaderik nabarmenena. Eta ez du balio esateak erdararekin berdin gertatzen dela. *Diario de Navarra* herri guztietara iristen da, etxe guztietara. Zenbat *Egunkaria* saltzen da, ordea, Leitzan?

Libeloak planteatutako beste gai bat oso lotuta dago aurrekoarekin. Egileak errealitatetik urrun dakusa euskal kultura, itxura egiten ohituta dagoena. Askotan aipatu izan da

erresistentzia kultura dela gurea, txikia, miserablea batzuetan, baina itxaropena beti pizturik noizbait etorriko diren horien esperoan, buelta emango dioten horien esperoan. Matiasek galdetzen du hau esistitzea ote den. Garbi dago baietz. Gogoratu behar da duela urte gutxiko kontua: ez zegoen ezer ez. Orain badago ia denetarik, asko txarra, asko halamoduzkoa, ona zeozer. Bakarrik honengatik merezi du. Kontuan hartuta —hori Matiasek ere ez du dudan jarriko— gero eta gehiago dela salbatu daitekeena, sufrikarioa eraman-garria da.

Badio ere Mugicak mundu honetatik elikatzen diren gehienak kultura espainolaren transfugak direla. Euskaldun berrien eta euskaldun zaharren arteko portzentaietan sartu gabe, transfugak baino berreskuratutako hiztunak deitu beharko genituzke gehienak, Mugica bera tartean.

Bi esaldi dira bereziki gogoangarriak. Batean gogora dakar itzultzaileak Juan Gartzia noizbait esan omen zuena: gure artean, itzulpenak itzulpenak direla eta jatorrizko testuak ere itzulpenak; onartutakoak batzuk, lotsamangarriak besteak. Horrelako literaturak inolako zentzurik eta kalitate-rik izan dezakeen galdetzen du berak. Hori ez da, hala ere, literaturaren ajea bakarrik. Hizkuntzarena berarena ere bai, behin eta berriro azpimarratzen den bezala. Erdara sartuegia dago euskararen muinean, eta belaunaldi berriek, gainera, ez dute joera hori aldatuko, akaso areagotuko baizik. Horregatik baztertu behar da idazten dena? Literatura idazten duten euskaldun berriez ari da Mugica, garbi dago, baina horiek ere ez dira gehiengoak, eta ez dira hoberenak.

Zer pentsatu eman duen beste esaldia da galdetzen duenean zergatik Eduardo Gil Berak argitaratzen duen orain gaztelaniaz. Mugicak «leialtasunik eza» eta «traizioa» hitzak botatzen ditu, eta jendearen ahotan jartzen. Nik ere galdetu diot nere buruari zergatik utzi duen tuterarrak bere espresabide literario bakarra izan zena. Sortzaile interesgarrienetakoa izanda, galderak badu interesik. 1993tik lau liburu argitaratu ditu, bi filosofiazkoak, eta bi sailkaezin samarrak, denak erdaraz. Akaso bera ere konturatu da bere mundu intimoari traizioa egiten ziola euskararekin, akaso hautsi nahi izan ditu horrela gure inguruko muga hertsia —Madrileko kritikoen hitz onak izan dituzte bere lanek—, edo, besterik gabe, egun

batez eseri zen ordenagailuaren aurrean eta erdaraz hasi zen idazten. Ez dut uste, hala ere, inor kezkatuko denik horregatik, traizio hau komentatzeko «hitz nardagarriak» erabiliko direnik, Mugicak dioen bezala. Hasteko, inork gutxik irakurtzen zituen bere lanak, eta irakurtzen zituztenek berdin berdin irakurri dituzte erdaraz. Plazer beretsuz. Azkena, *Os quiero tanto*, autobiografia moduko purrustada da, euskal kulturaren eta euskararen beraren inguruko topikoak alegereki erasotzeko erabilia. Pista pare bat: Mugica zein Gil Bera euskaldun berriak dira biak, ezagutzen dute ondo Nafarroako euskal munduaren panorama, edan eta jan dute hainbeste kritikatzten dituzten iturri ofizialetatik, eta maite dituzte Celine edo Mirande bezalako transgresoreak.

Bai, napar oxti hauek, baina Sarasuak kritikoak kritikatzten baditu ere, batzuetan gehiago ikasten da asmo txarrez eginikoekin —animuz injuriandi, Bujandak zioen bezala— hitz xuriekin baino. Libeloa ongi idatzia dago eta lotsak ateratzea beti da osasungarria. Irakurri ez duenak irakur beza. Akaso gorrituko da pixka bat. ¶



Bukowski

Hogei bat urte dira Charles Bukowskiren lana lehenengoz ezagutu nuela. Bilboko liburu-saltzaile batek gomendatu zidala dut gogoan. Gogoan dut, halaber, ale bat erosi eta etxera abiatu nintzela. Ailegatu nintzenerako ohean sartu behar izan nuen, gripeak jota. Bada, liburu erosi berriaz gainera, mesedez ekartzeko eskaturiko beste bi irentsi nituen, gripeak jota egin nuen gaisorik egon nintzen etzunaldian. Halako izan zen idazle hark eman zidan ustebakoa.

Bukowskiren hiru liburu haiek bidaia polita egin zuten harrezkero. Beste lagun bati utzi, hark itsasora eroan eta ez zitzaizkidan sekula atzera itzuli. Hori bai, merkataluntziko marinel eta ofizial gehienek irakurri omen zituzten liburuak. Harrezkero test moduko bat izan dira Bukowskiren liburuak; nori atsegin idazlea, niri pertsona hori gogoko, nahiz eta nik utzitako liburuak sekula itzuli ez.

Sexuaren zale amorratua, garagardo irensele itsua, american way of life horren kritikari zorrotza, Charles Bukowskiren prosak literaturaz nuen iritzia aldarazi zidan. Ez bide nintzen bakarra. Hura poesi idazlea zenik ezta ametsetan ere ez nukeen esango. Bai, Bukowskiren prosa lehergarriari badario halako lirikotasun bat ere. Lirikotasun hori olerkietara eroatea beste kontu bat zen, ordea. Olerki horietako bilduma bat Josu Lartategik ekarri digu euskarara, Susa argitaletxearen eskutik. Liburuari *Poema Antologia* izena jarri diote, eta kito. Bukowskiren prosa-lanak atseginez irakurrita ditugunok pilulatan kontzentraturik eta euskaraz dastatu ahal dugu orain haren mundua. Betikoa dena, bestalde. Hitzaurrean Lartategik dioskun legez, Charles Bukowski dugu «literatur marginalaren ikur, hil artean inkorformista (1994an egin zuen harenak) eta egolatra, lege, politika eta moda guztien etsai, Estatu Batuetako feministen iritzirako misoginiaren idazle, kritikari askoren iritzirako gustu txarraren eta idazkera are okerragoaren adibide, beste batzuen iritiz alkoholaren eta gehigikeriaren apologista eta irakurle-aldra baten idazle kuttuna». ¶

Urrutikoetxea

Josu Lartategik egin digun opariaren harira, burura datorrit non irakurri dudan ez dakidan esaldia: «Literatura jakin baten egoeraren ispilua beraren poesiaren egoera da». Bada, atzamarren artean ura legez joan zaigun 97ak ez zigun poesi liburu askorik utzi. Horien artean Urtzi Urrutikoetxearen *Borroka galduetatik gatoz* izenekoa dago.

Liburu horren kariaz *Bilbao* aldizkariak ekarri ohi duen *Pergola* gehigarrian «Epika gure lur honetan» iruzkina argitaratu du Felipe Juaristik. Aldizkaria gehien bat Bizkaiko euskaldunei iristen zaie eta, poeta bokazio sendoa duela behin eta berriro erakusten digun F. Juaristik horri buruz idatzi dituenetatik hitz batzuk ekarri nahi ditut hona, arras interesgarri iritzi baitiet.

«Doinua gustatu zait liburu honetan —dio F. Juaristik bere iruzkinean—, esan behar zuena esateko presa bezala idatzia baita, freskoa, bat-batekoa dirudiena, naturala, barnemuintan egosi ahala ateratakoa. Apenas duen erretorikarik, irudi aberatsik. Ez da prosa, baina prosatik gertu dago, ez da lirika, baina une lirikoak ditu bat baino gehiago, epika da, euskal gazte baten (edo askoren, ez dakit) epika».

Bat nator Felipe Juaristiren iritziarekin. Ez nator hain bat, ostera, aurrerago esaten duenarekin. «Badago —dio Juaristik— biktimismo apur bat (20 urterekin?), galtzaile sentimendua, inondik inora ulertzen ez dudana». Bada, bietarik bat; edo sentimendu hori *posea* —egokera, agerkerada, edo benetakoa da. Lehenengoa bada, poesiaren ikuspuntutik ulertu beharko genuke, aldeztetik emanik poeta izateko modu bat egokera eta agerkerasmatzea dela, idazkera bera asmatzen den moduan. Ez biluztearren, gehien bat. Bigarren kasua bada, adina ez dateke galtzaile sentimendua bizitzeko oztopo. Eman dezagun, bada, jarrera bietarik duela Urtzi Urrutikoetxearen liburuak. Zer ere den idazlearena, hor dago liburua, *Borroka galduetatik gatoz*. Felipe Juaristiren hitzekin amaitzeko, liburua «estimagarria da, ziur nago estimatua izango dela, poesia egiteko ahalegina, jakinik oso efektiboa ez dela. Poetaren hitzak dira horiek ere». ¶

Sarrionandia

Hitzen gaineko gogoetak gurpil zoro, Joseba Sarrionandiaren azkenak gogoeta franko eragin dit nire artean. Tesitxo bat ere osatu dut, bai, Iurretakoaren lanen gainean. Nire tesia da, llabur, haren hiru narrazio-liburuak obra bakarra direla eta obra horren entregak egiten dituela. Noiz entregatu orduan argitaratu, egiten diote, itxuraz, argitaletxeek. Areago, lehenengoaren titulua —*Narrazioak*— titulurik ez jarztearen berdintsua da, argi baitago, azalean esan gabe ere, barrukoak zer diren. Joseba Sarrionandiaren obraren barruan narrazioak *narrazio bildumak* dira, eta kitto. Gero etorriko dira kontuak, bigarren bildumari ere izena jarri behar zaionean. Ipuinetako bat hautatzen da eta kitto berriro.

Goiko ildo berean aurrera eginez, *Hitzen ondoeza* beste liburu bakar baten azken entrega dukegu. Liburu horren titulua egokia, nik uste, jakina, *J. Sarrionandia hiztegi partikularra* dateke. Horretan sartuko lirateke *Ni ez naiz hemengoa, Marginalia* eta bat edo beste gehiago.

Hitzen ondoeza horrek, berriz, nire ustezko liburu baka-rrari amaiera puntua ezarriko diolakoan nago. Bere buruari bide hori, hiztegi antzeko berba gozo-mikatzena, itxi egin dio Sarrionandiak, ederto itxi ere. Hasteko, titulua bera adierazgarria da. Hitzak ondoezik daudena nire arteko aspaldiko gogoeta da. Hain zuzen ere, ondoez horri aurre egin guran saiatu behar-ko luke idazleak. Ahalegin hori igartzen ez zaion idazleak niri ezer ere ez diost normalean. Sarrionandiak edertasunez erakutsi du ondoez horren sorburuetako batzuk non diren. Betiere umorez, liburuaren beraren definizioaz diharduenean legez:

«Liburuari dagokionez —bere identifikazioaz kezkatu-ko denarentzat— aitor dezadan hiztegia dela, baina ez dela hiztegia, ipuin laburrak dituela, baina ez dela ipuin liburua, saio ttipi ugariz osatzen dela, eta aforismoz, eta munduaren lau partetako ene auzokoen aipuek hornitzen dutela. Beraz, eman dezagun, nobela luzea dela».

Irakurlearekin jolas egiteko susmoa hartzen diodan arren, eta hemen egoki letorke Urtzi Urrutikoetxearen liburuaren harira aipatu dudan *pose* horrena errepikatzea, *Hitzen ondoeza* nobela dela onar dezaket, batez ere gogoan hartuz gero egileak berak dioena:

«'Hiztegia', pertsonaiak eta gertakizun ugari eta oso endregaturik azaltzen dituen nobela da».

Hiztegia bera nobela baldin bada, edozer izan daiteke nobela; pertsonaiak eta gertakizunak behar dira, besterik ez. Lehenago ere askotan esanda dago denetarikoa kabitzen den zakua dela nobela. Ez dut ahazteko ez dela falta izan *Obabakoak* nobela dela esan duenik ere. Bada, Bernardo Atxagarena nobela bada, izan, zertan ez Joseba Sarrionandiarena.

Aitortu egingo dut Azkueren hiztegia nire *Rayuela* izan dela urteetan. Halandexxe, harritu egin naiz *Rayuela* prezeski aipatua dela ikustean; 447 zenbakidun sarreran (liburua eskuartean hartu gabe duenak hobe luke nire hau ez irakurtzea, ez baitu batere gogorik sarreraren hori zertan den azaltzeko). Hala ote da Josebaren kasuan ere? Badakit Sarrionandiak Azkueren hiztegia goitik behera aztertu zuena, eta handik behar zituenak edo egoki zetozkionak idaztoharretan bildu zituena ere.

Eman dezagun, hala bada, *Hitzen Ondoeza* beste *Rayuela* bat dela. Izan ere, hor dira era horretara irakurtzeko proposamenak, hitz batzuek beste batzuetarako deia zabal-tzen dute. Haatik, hori ez da nahikoa nobela dela esateko. Bada, begira dezagun ea pertsonaiak eta gertakizunak ugari ageri diren, zeren eta agertuz gerotan ere, ez baitu inork zalantzan jarriko 'endregaturik' azalduko direna.

Hitzen ondoeza nobelako pertsonaia nagusia Sarrionan-dia bezalako baten bat da, bera ez baldin bada. Zuzen mintzo zaiguna da. Gero, solaskide ditu kartzelakideak eta Gus izene-ko bat behin baino gehiagotan agertzen da. Gainera, Ismael Larrea ere agertzen da, jakin badakiguna Joseba Sarrionan-diaren heteronimoa dela.

Pertsonaia nagusi horren gertakizunak ugari dira. Hona hemen, ordenatu eta gero, gertakizunotatik batzuk: haurtzarokoak; gaztarokoak; eskolakoak; euskara-erdara kontzientzia hartzeari dagozkionak; euskararen baliabideen deskubrimendua; literaturaren idorokuntza eta ekintza politi-koa, besteak beste. Azken horren haritik liburuko gai sakone-nak ageri dira, hau da, askapena, etika, heriotza, gudua, antropologiaren zeregina, literatura eta, oro har, konprome-zua. *Hitzen ondoeza* sendatuz gerokoren batean menturaz nobelatxo bat oparituko digulakoan, zain gauden bitartean, oraingo honetan irakurlearen morbozaletasuna elika dezake-

ten gai batzuk ageri dira, alegia, atxiloketa, tortura, kartzelako bizimodua, ihesa eta ezkutaketa. ¶

Elgeazabal

Edozer nahiz zergura nobela izan daitekeela eta, *Hau mundu arrano hau* liburua elaberria balitz moduan irakurri dut. Atsegin handia izan da Batxiren deskubrimendua, eta nire ustez gure literaturaz orain arte izan ditugun ikuspuntuak eraldatzera behartzen gaitu, beste nonbaiten idatzi dudan legez, euskal literaturaren gaineko eskuliburuetan orain artekoan agertu izan ez den izen bat ekarri baitigu udagoieneko uztak.

Beste hedabide idatzi batzuetan dauka irakurle jakin-guratsuak Juan Bautista Bilbao Elgeazabalen bizitzaren gora-beheren berri. Bestela zuzenean jo dezake I. Aranbarrik eta K. Izagirrek, eskuz esku, prestatu duten hitzaurrera. Dena dela, haren biografiatik ezinbesteko datuak dira noiz idatzi zituen liburukoak, zenbat urterekin eta zein euskalkiren barruan egin zuen lan.

Bizkaieraz, hogeitaz urtekin eta Mundu Lehen Gudako lehenengo erdian idatzi zuen. Hil, hogeitazortzi urte zituela hil zen, nola izan irakurleak berak idoro dezan utziko dudala.

Aipagarria eta benetan estimatzekoa da liburua Susak bere literaturgile garaikideen bildumaren barruan argitaratu izana. Edizioaren zama eta arriskuak hartu dituztenen zioa garbia da; gure mendeko lehenengo kazetaria eta balio handien duten egiletariko baten obra da esku artera etorri zaiguna. Hain biribila, ezta apokrifoa eginda ere.

Eta apokrifoa diodala baliatuz, eta nire hauek bezalako hitzen balio erlatiboaz hausnartzeko, aitortu behar dut *Haizegua* liburuak zalantzan utzi ninduela, ba ote zen ez ote zen apokrifoa. Zart egin nuen, eta liburuaz idatzi. Hanka sartu nuen, eta liburua apokrifoa ez bazen gure literaturaren gaineko ikuspegia aldatu beharrean idatzi nuen. Hanka atera nahi dut, hura gogoan gorderik dukeen irakurleak jakin dezan, bada, ohartu nintzela, eta hanka atera nahi dudala, bakar baten gainean ibiltzea gaitz egiten baitzait. Batez ere hemen berriro sartzeko arriskuan izango naizela jakinik. ¶



Aitzineko abangoardiak

Mikel Laboari buruzko dokumental baten sarreran Bernardo Atxagaren berba dotore batzuek eman zidaten zer hausnartu. Asteasuakoaren iritziz, Laboa dugu oraindik gaurko euskal musikagintzan berritzaile handienetakoa. Euskal kantagintza garaikidearen hastapenetako musikari donostiarrak gaurkotasuna gorde ezezik berritzaile izateko jarrera ere ez du galdu. 30 urte luzez landalan abangoardiaren bidean.

Bete-beteen asmatu zuen idazleak adierazpen horietan, Laboaren kontzertuek sortzen duten zirrara nekez azal baitaiteke hitzetan. Eta zail samar aurkituko dugu mundu osoko musikagintzan horren kantaldi arriskugarririk. Esperimentazioa, Lekeitio izenez bataiatu zuen ildoak, ez da musika egitasmo makala. Itsas herria bezain ederra eta ailegatzeko bezain bihurria. Bihurgune guztien gainetik, *Ikimilikiliklik* hauek liluratzen dute oraindik hainbat gazte eta heldu.

Dena den, ez al die besteren batek ekin berritze lanei? Azter dezagun bada, gaur egungo zenbait saiakera.

Juan Carlos Perezek euskal popa teiltuetatik zerura lerrotu zuen eta izarren artean kokatu 80ko hamarkadan. Itoizen lana miresgarria izan arren musikari dagokionez, nahiko *estandarra* izan zela aitortu beharrean gaude. Agian horregatik, Juan Carlos akiturik bestelako bideak jorratzen hasi zen. Arrisku gehiago hartu eta bakarlarri gisa plazaratu duen bi lanetan ohiko pop-rockaren bidetik apur bat alden du da. Badabil kanten musikazio berrien bila.

Hala eta guztiz ere, ikusle-entzule guztiak aho bete hortz utzi ditu Perezen azken lanak. Itoizen bukaeran, Juan Carlos Philip Glass eta Michael Nyman bezalako sortzaileak miresten hasi zen (inork gutxik ezagutzen zituen) eta era berean pianoarekin maitemindu zen. Piano-piano, isiltasunean eta Sopolako itsas zurrumurrua lagun, eremu musikal propioa eratu du. Aurreko hamarkadaren amaieran ereiten hasi zuena *Quator* lan abanguardistan loratu da.

Berehala *New Age* edo Musika Berriak leloa zintzilikatu zioten. Abanguardiarene ildoan sailkaezina dena Musika Berriak izeneko kajoi amankomun batean sartzen da. Amua botata, kontsumitzailea ekoizpenaren berezitasunaz ohartuko delakoan.

Dena den, hotz samar utzi ditu Juan Carlosek zale gehienak; nahiz eta Durangoko azokara eraman zituzten konpakto guztiak agortu ziren, harrera beroagoa izan zuen *Bitacora Cahiera*-k, telebistarako burutu zituen sintonia xar-mangarriak, alegia. Zuzeneko aurkezpenak, berriz, izenak berak duen itzalaren ondorioz ez dira patal ibili. ¶

Abangoardiaren bidegurutzean

Berritzaileen katalogo arin honetan, *Rock de Lux* Estatu espainiarrean plazaratzen den musika aldizkari ezagun eta preziatuak Anari aipatu du iazko hoberenen zerrendan. Hau da, euskaldun musika berriari dagokionez, nabarmenena.

Anari azken aldiotan inork gutxik espero zuen sona bereganatzen ari dela ezin daiteke ukatu. Gaurko musika joesa hedatuenetatik at, giro intimista eta barnerakoia sortarazi du. Gazte honen kontzertuak gordinak dira eta espazio aproposa behar dute. Kitarra eskuan, 60ko hamarkadaren kantugileek bezalaxe, milurtearen amaieran kokatzen diren sentsazioak plazaratzen ditu. *Ave raris* musikaren unibertsoan. Txepetx bakarzalea, agian.

Kantugile gaztearen ametsa bete omen zen miresten zuen Ruper Ordorikaren bira txiki batean oñatiar honen kantaldien hasieretan jo zuenean. Anari Ruperrekin amets eta Ruper Ben Monderrekin. Norberak badu bere bihotzeko berritzailea.

Ben Monder Ruper Ordorikak New Yorken ezagutu zuen musikagile aitzindaria dugu. Duela bi urte Gasteizko Jazzaldia zela eta, Euskal Herria bisitatu zuen aurrenekoz. Kontzertuaz gain, Ordorikaren *So ik So* lanean utzi zuen Monderrek jotzeko era berriaren aztarna. Atmosfera trinkoen egile finaren sinadura, hain zuzen.

Aurreko urtearen amaieran berriro izan da gurean Ruperren grabazio berrian laguntzeko eta bide batez, bere

atzamar arin, trebe eta sentiberak erakutsi ditu hainbat emanalditan. Iparramerikaren abanguardian dabilen kitarrak jole honek harrituta utzi du kontzertuetara hurbildu den ikusleko murrizta. Aitzindariena izan dugu gutxiengo batek gozatu duen harribitxia. Besteak Tricycle ikustera joan ote ziren? Baina, Tricycle ere ez ote zen izan garai batean aitzindari? ♪

Eskaleen abangoardia

Underground kutsuaz jantzita, 7 eskale abiatu da plazarik plaza ikuskizun berriarekin. *Barrenkaleko Bluesak* ikuskariak aurreko lanaren ezuste gozoa gainditzeko zailtasuna zuen.

Egia esan, oraingoan bertsoak ez dira aurrekoak bezain erakargarriak. Eta berriro ere, eszenaratzearen legeak ez dituztela gustoko agerian utzi dute. Ikuskizunak eszena gainean erakusten ez duen kalitatea proposamenaren ausardian topa daiteke.

Anoetako bertsolarien ikuskizun handia estimatzen dudan bezala bide berriak urratzen dituzten aitzindariak ere gustatzen zaizkit. 7 eskalekoak bertso saioen abanguardian jarri dira eta esparru klasikoari muzin egin barik eskaintza estetiko berri bat osatu dute.

Akatsak akats, Igor Elorza, Unai Iturriaga eta Josu Zabala egitasmo honen suspertzaileek harro izan beharko lukete. Bertso-folk-rock eremuak badu lekurik euskal ikuskingintzan. ♪

Porrotx pailazoa

Txikitan nire aitak pailazo handi batenganako grina kutsatu zidan. Zirkoaren bolada ederrak ziren eta Bilbora udaro zeterren Tonetti pailazoaren hitzordura ez genuen huts egiten. Tonetti clown klasikoaren azken belaunaldi handiaren partaidea zen. Denboraren joan-etorrian, umorez jositako gertaera ahaztezin haiek, indarra galduz joan ziren. Gaur egun, berriz, zirko handietan telebistako edozein mamukeria ohi dute ardatz.

Barre eragite lan zail honetan euskaldunok uzta oparoa dugu azken aldiotan: Txirri, Mirri, Txiribiton, Takolo, Pirritx, Porrotx, Txoronpio, Pantxi, Pantxo, Koko, Moko, Oihulari Clown, Tutik ere Clown...

Ni Tonettiren belaunaldikoa naizen moduan, nire semea Porrotxen belaunaldikoa dela adierazteak pozez betetzen nau. Porrotx dugu, nire iritzi apalean, euskal tauletan dabilen pailazo klasikorik nabarmenena. Clownen hizkuntza hoberen moldatzen jakin izan duena, behinik behin.

Pailazo batek behar duen sena ez dut uste antzerki eskoletan ikas daitekeenik. Erraien barne-barnean biztu egiten da. Horregatik, Porrotx ez da eskolako aktorea izango baina sudur gorridunen jokaerak ondo ederto isladatzen ditu. *Gag*-en denbora ondo neurtzea, berba esparru magiko bat sortzea (*katxiporretas...*) eta umeen konplizitatea azken muturreraino eramatea dira Porrotxen trebetasunak. Kantek eta istorioek aurrera egingo dute baina Porrotxen jokuak bihotzaren lau gelak oroimenez apaintzeari ekingo dio.

Euskal Telebistan, oster, pailazo ofizialak baino ez ditut ikusi. Txirri, Mirri eta Txiribiton maila oneko hirukotea izan arren, ez dira umeek miresten dituzten pailazo bakarrak. Tamalez, bazterketak garbia izan daitekeen mundu hau zikindu nahian dabilta. ♣

Madril aldera

Igande eguzkitsu batean, kale erdian lagun zahar batekin egin nuen topo. Antzerkian elkarrekin ibilitakoak ginen eta galdetu nion ea zer moduz zihoazen bere lan kontuak. Erantzunak ez zuen zirrikiturik: «Langabezian nago, Madril aldera noa lan bila».

Aipatu dudan aktorea oso ezaguna da *Goenkale* telesaillean esku hartu zuenetik. Aurretik Bilboko antzerki talde independenteetan ibilitakoa zen. Hamaika urte teatroan, izerdi nahikoa Euskal Telebistan botata eta gaur Madril hiritzarrari begira.

Lehenengoa ez da eta ez da azkena izango, jakina. Baina hor dira hainbat kezka: Bertoko aktore guztiek ez omen dute Euskal Herrian lan nahikorik profesionalak izateko?

Euskal aktoreen *overbooking*-a heldu ote da? Ala aktore askori euskal esparrua txiki geratu zaio? Zenbat buru hainbat aburu.

Profesionala izatearen izenean Madrilerako maletak egiten dira. Telebistetako edozein telesailetan paper tentel bat ala antzerki ekoizpen komertzial bateko pertsonaia esku-ratzea berdin dio. Xedea interpretazio eremuan lan egitea.

Dagoeneko, lanbide honetan inork gutxik galdetzen dio bere buruari ea zertarako balio duen egindako ahaleginak. Ikuskizunen sortzaile batentzako ezinbesteko kezka hori uxatu dute. Antzerkilari zirikatzaileen xarma hustu eta gaur egun ikuskizunen mertzenarioek ikuskarien merkatua bete dute.

Aitzitik, alde erromantikoaren defendatzaileok bizirik diraugu oraingoz. Horra hor gure itxaropena: bizpahiru hila-beteren buruan, Dario Fo Euskal Herrira etorriko da asmo hauek berretsiz. Aktorea konpromezua da. Boterearen injusti-ziari aurre egiten dion konpromezua, hain zuzen. ¶

Gora ni eta nitarrak

Gaurko telebistagintzan bada gogaiturik naukan joera bat. Kazetariak (edo) albistearen muina estaltzen duen jokaerari jasanezina deritzot. Protagonista bera da eta bost axola informazioa. Alajaina! «Nitasunaren» telebistaren garaia itzuli da.

Komunikatzaileen sasoia ei den honetan berriemalea dugu ooren gainean eta batik bat gauza guztien aurrean. Albistea pitokeria da; garrantzitsuena albistearen lekuko izatera joan den sasikomunikatzailearen lehen plano.

Horra hor Euskal Telebistan bi adibide nekagarri: *Bertatik Bertara* eta *Jaiak*. Bietan berdin, berriemalea protagonista. Batzuek esango dute kazetari horiek interesa sortarazten dutela beste batzuek, ostera, gaur egun edonor jartzen dela kamara aurrean gutxienezko kalitatea gorde barik.

Komunikatzaile on ala kaskarren debate luze eta antzuen gaintetik, larriena da berriemale hauek edozein erre-portaiaz gozatzeko sortzen duten oztopoa. Gustoko izan daitekeen gertaera zapuzten baitute tentelkeriekin. Soberan ez ote daude, akaso.

Telebista bera da protagonista; gizartea bigarren maila batean kokatzen da. Giza eremu artifiziala biztu du telebis-

tak, indarrean dagoen botereak nahi duen eremua. Albistearen lekukotasuna hartu behar duten kazetariak gertatutakoa estaltzen dute eta Hollywoodeko izarrak balira bezala eurenganatu behar dituzte enkuadre eta foko guzti-guztiak.

Errobiren kanta batek, honela deskribitzen zuen telebista 1975ean:


*Munduko berri, hara-hunatak, kirola eta besteak
handi-maundien faltsukeriaz dirade bete-beteak.
Jaun aberatsak baitira egun telebistaren jabeak,
jabeak eta populuaren lokararazle trebeak!*

eta irakurri berri dut Sarrionandiaren testu honekin emango diot amaiera (Hitzen Ondoeza liburuan aurkitua, 449. hitza):

IKUSGARRIA: Komunikabideen artean telebista da nagusi. Espektakuluaren gizaratean, telebistako albistegietan azaltzen dena gertatu da, eta telebista pantailan erakusten ez dena ez da gertatu.

Telebistan ikusgarria dena begibistako bihurtzen da, eta begitangoa ez den gertaerarik ez da.

Telebistarako programa eta imajinen selekzioa, betearen ertzean agitzen den hori, zentsuraren bertsio moderno eta demokratikoa da. ¶



Hizkuntz eskubideak

Ipar Euskal Herrian, 1997ko abenduan, bi erantzunen beha geunden. Gobernuak zerbait esan behar zigun Eurokartaz eta garapen eskemaz. Bi erantzunak hartu ditugu eguberrikari. Lehen a J. Chirac presidentearenganik: «Ez du balio Konstituzioa aldatzea eskualde hizkuntzen laguntzeko. Ez du balio Eurokarta izenpetzea, gomendatzen dituen neurri asko betetzen ditugu». Bigarren erantzuna Ministerioarteko Kontseiluarengatik (CIAT): «Euskarari bai, baina dirurik ez, ez baita gure egitekoa». Urtats honetan bi urraspideren bidegurutzetan gara, eta orain nora jo? ¶

Eurokarta dela-ta

Europako Kontseiluak 1993ko uztailean bozkatu zuen eskualde hizkuntzen karta. 3. atalean agertzen dira 150 neurri aukeragarri hizkuntza gutituen alde, beren tokia aurki dezaten ikaskuntzan, komunikabideetan, zerbitzu publikoetan. Gobernuak izenpetzera gomituak dira gutienez 35 neurri onartuz. 5 legebiltzarrek onartuko dutelarik Eurokarta konbenio bilakatuko da eta nazioarteko legedian sartuko.

Frantziaren ikusmoldea ezaguna da. Estatu Kontseiluak epaitu zuen Eurokarta Konstituzioaren aurka doala bereziki administrazioaren eta justiziaren artikuluetan. Aitortuz hala ere bazirela 35 neurri onargarri. Non dago beraz oztopoa? Ez Eurokartaren 3. atalean, baina 2. atalean, printzipioetan. Nolazpait hemen daukagu hizkuntz demokraziaren aitortpena: herri hizkuntzen onarmena, lurraldetasunaren errespetua, jatorrizko hizkuntzaz jabetzeko eskubidea, Estatu mugez gaindiko harremanak. Atal honek Frantziako Konstituzioaren oinarriak inarosten ditu.

Gaurko Konstituzioan badaude bi alderantzizko artikululu. 1992an aldatu zuten 2. artikulua, laikotasuna aipatu-eta, hau gehitzen du: «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da».

Bestalde 1789ko Giza eta Hiritar Eskubideen Aitorpena konstituzionala da eta 11. artikulua dio:

Gogoetak eta iritziak adierazteko askatasuna, giza eskubideetan baliosena da. Beraz hiritar orok hitz egin dezake, idatz eta inprima askatasunean...

Ez ahantz 2. artikulua eginbide kolektiboa sortzen dela, 11. artikulua eskubide indibidual bat definitzen duelarik. Dena dela dirudi herri hizkuntzak bi artikulua hauen artean koka daitezkeela. Egia esan, Kontseilu Konstituzionalak (hau da legeen epaitegi gorena), hiruetan gutienez, 11. artikulua erabili du elebakartasun frantsesaren aurka, geroxeago ikusiko dugun bezala. ¶

Estatu zibikoak eta etnikoak

Hala ere herri hizkuntzen aurka doa Konstituzioaren «mito fundatzailea». Estatuaren nortasunari buruzko liburu batean irakurri nuen: «Nazio frantsesa zibikoa da, nozio alemana etnikoa delarik». Izen bat aldatuz esan dezakegu, Frantzia hiritarra dela, Espainia herritarra den bezala.

Alabainan 1978ko Konstituzio espainiarrak onartzen ditu herrialde autonomoak eta herrialdeetako hizkuntzak:

1. Gaztelera da Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek ezagutzeko eginbidea dute eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak dira bakoitza bere komunitate autonomoan, lekuko araudiaren arabera.
3. Espainiako hizkuntza ezberdinen altxorra ondare kulturala da, errespetatzeko eta zaintzeko dena.

Ondorioz (EAE) Euskal Autonomi Elkarteak erabaki zuen Euskeraren erabilpena arautzeko legea (1982):

2. Euskal Herriak euskera du berenezko hizkuntza.
3. Euskal Herriko Autonomi-Elkartearen hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelania dira.

Frantzian ezin da horrelakorik asma ere. Konstituzioaren arabera hiritar guztiak berdin dira legearen aurrean eta ez dago bitarteko erakunderik hiritarren eta Errepublikaren artean, ez etniarik, ez erlijioidegorik, ez herrialderik, ez eta ere mintzakidegorik. Hor daude adierazpen askatasuna eta elkarretaratze eskubidea, baina bakoitzaren hautuz, eskubide hauek indibidualak baitira. Ezin da euskara inposatu eskoletako programetan, are gutiago zerbitzu publikoetan, erabaki horrek hizkuntz komunitate bat sorbailezake.

J. Chirak presidentek, aurtengo urtats agiantzetan berriz ere errepikatu du: «Frantzia inoiz ez da komunitate multzo bat izanen». Lehen esan zuen: «Federalismoa ez dago kultura frantsesean». Irizpide fundatzaile honengatik nazioarteko eskubidean Frantziak ez ditu beretzat onartzen ez gutiengorik, ez eta ere kultur eskubide kolektiborik.

Gainera 2. artikuluko laiktasuna kontuan hartu behar da. Ez dago estatu erlijiorik, ez eta ere kultura ofizialik. Estatu funtziona daiteke erlijiorik gabe, ez haatik hizkuntzarik gabe. Hortakotz frantsesa da Errepublikaren hizkuntza funtzionala. Ez gutiago, baina ez gehiago. Tubon-en 1994ko legeak antolatzeaz zuen «frantsesera ofizial» bat, Gobernu zaindari. Kontseilu Konstituzionalak ez du elebakartasun frantsesa onartu, adierazpen askatasunaren izenean. Tokirik ba ote dago herri hizkuntzentzat? ¶

Lurraldearen garapen eskema

Abenduaren 15eko CIATean Euskal Herriaren garapen eskema onartu digute. Zer dago Parisko Olentzeroren zakuan? Estatuak ekartzen dizkigun 32 milioi liberetarik (800 milioi pezeta) 26 milioi kulturgintzarentzat dira (650 milioi pezeta): Jakobe bideak, Irisarriko ospitalea, Hazparneko arkeologitegia, antzokiak, liburutegiak, Euskal Kultur Erakundea (EKE).

Hots diru asko parentzentzat, milioi erdi bat funtzionatzeko. Euskalgintza ere aipatu zen, gogo ona adieraziz. Baina dirurik ez, euskara ez delakotz CIATen esku. ¶

Hizkuntz antolaketa

«Euskal Herria 2010» prospektiban, 4 urtez gogoeta sako-
nak egin ziren lurraldeaz, bereziki euskaltasunaren eraginaz
ekonomia garatzeko, nortasun kolektiboak zer duen ikuste-
korik modernitatearekin, zergatik familiako hizkuntz trans-
misioak huts egiten duen.

1996ko inkesta soziolinguistikoak erantzun batzuk
eman zizkigun eta frogatu hizkuntz politikaren beharra:
Iparraldean euskaldunen kopurua gainbehera doala adinare
arabera (% 11 gazteengan) EAEn gora doalarik abiadura han-
dian (% 33 gazteengan, % 45 haurrengan). Hizkuntz antola-
ketaren eskema moldatu genuen, Hegoaldea eredutzat har-
tuz, 40 kideko lan talde zabalean: hautetsi, irakasle, ardura-
dun, euskaltzain, euskaltzale.

Idazkaritzak hizkuntz politika onargarri bat, «ideolo-
giarik gabekoa» (*politiquement correct*), laburbildu zigun, bi
hizkuntzetan, lau ardatz nagusiren inguruan:

- euskal ikaskuntzaren eskaintza orokorra,
- hizkuntz paisaia euskalduntzea, seinaleak eta toponimia,
- euskal komunikabidea indartzea,
- elibitasunaren sarrera progresiboa zerbitzu publikoetan.

«Ideologia» izpi bat ere utzi ziguten, ofizialtasuna,
onarmena eta lurraldetasuna sinbolikoki bederen aipatuz:

Lehentasuna duten norabide hauei esker, euskararen aldeko
politikarako zutabeak eraik daitezke, ofizialki onartuz norta-
sun hizkuntzak hartzen duen oinarritzko estatutua: «Euskal
Herriko hizkuntza euskara da». ♣

Hizkuntz Kontseilua

Noren esku ezar hizkuntz plangintza hau? Garapen
Kontseiluaren ahulezia da Iparraldea estaltzen duen egitura
politikoaren falta. Orduan kulturgintzarentzat EKE sortu
genuen bezala, euskara antolatzeko Hizkuntz Kontseilua
asmatu genuen, EKE eredutzat hartuz.

Behar-beharrezkoa da legitimitate osoa ukanen duen egitura bat sortzea. Hori dela-eta, egitura honek bere baitan bilduko ditu Euskal Herriko hautetsiak, Hezkuntza Nazionaleko ordezkariak, elkarteak eta ikaskuntza pribatua, arlo honetako adituak, euskaltzainak adibidez. Hau da Hizkuntz Kontseilua sortzeko xedea.

Erakunde erabakitzaile honek euskarari eman lioke onarmen publikoa *de facto*. Hemengo Hautetsien Kontseiluak finantzamendu txostena erabaki zuen, euskal idazkaritza teknikoa, barnealdeko lau ikastolak eta beste.

Estatuaren erantzunaren zain geunden. Hizkuntz eske-
ma onartu zen CIATen punduz puntu, adibidez euskarazko ikaskuntza:

Akademiako inspektoretzari ahalak emanen dizkiogu Estatuaren erantzun baikorra eta sistematikoa betetzeko, gizartearen eskaera segurki egiaztatua balin bada.

Hizkuntz kontseiluaz hitzik ez. Bi mendez euskal departamendua ukatzen diguten bezala, boterearen itxura ere ez digute utzi nahi. Euskaraz arduratuko dira, nondik? Paristik edo Pautetik. A bai ! Euskal Herri lurraldea (*pays* «*Pays Basque*») eskaintzen digu CIATek baina botererik gabe eta dirurik gabe. ¶

Gizartearen eskaera

Erironka berria da euskara zerbitzu publikoetan sartzea. Eta beharrezkoa, administrazioa eredu nagusia delakotz gizartearen antolaketarako, Estatu legalista honetan. Euskara udal-txean eta ospitale publikoan sartzten badira, klinika pribatuek eta saltegiek onar lezakete. Urraspide hau aurreratuz, lanpostu berriak irekiko dira euskara dakitenentzat, ospe handiko lanpostuak gainera, arduradun, irakasle, itzultzaile, saltzaile. Bestenaz zergatik ikas erabiltzen ez den hizkuntza?

Borroka zaila da. Deixonne legeak (1951) eskoletako atea ireki zituen herri hizkuntzei. Komunikabideen pribatizazioak (1981) hertz uhainak ireki zituen lekuko irratiei, eta orduan sortu ziren Iparraldeko hiru euskal irratia. Zer gerta-

garritasun dauka 3. hizkuntz iraultza batek, elebitasuna zerbitzu publikoetan sartzeko? Dakigularik administrazioa dela Errepublikak frantsesaren ikur eta tresna nagusia.

Hala ere, frantsesa Konstituzioan finkatu den pundutik, hiru lege bozkatu dira, Kortsikaren Estatutuaz, Polinesiaiko hizkuntzez eta hizkuntza frantsesaz, tokiko hizkuntzak onartu dituztenak. Lekuko Tubon legea (1994) frantsesaren zaintzeko:


21. Lege honek neurriak aplikatzen ditu Frantziako eskualde hizkuntzen legeak eta araudiak errespetatuz eta hizkuntza hauen erabilera ez du debekatzen.

Paueko konstituzionalistek kontsulta eman digute frogatuz herri hizkuntzen erabilera posible dela administrazioan bi printzipio betez: erabiltzaileen nahia eta eskusotasun eza (*le volontariat et la non-exclusivité*). Herri hizkuntza erabil daiteke, 1. baldintza, gizartearen eskaera baldin bada eta inori inposatu gabe, ikaskuntzan bezala. Gainera, 2. baldintza, herri hizkuntza frantsesaren gehigarri da, harrera zerbitzuetan edo informazioan. Akta ofizialentzat ere elebitasun sinbolikoa erabilgarri da baina epaitegian frantseseko idazkiak du bakarrik balio.

Bidea ez da erraza. Orain arte abertzalego politikoa edo/eta kulturala daramagu. Gaur egun abertzalego juridikoa antolatu behar dugu, legea gure alde ezartzeko eta herri hizkuntzak Konstituzio frantsesean kokatzeko, gutienez ondare kultural gisa, Konstituzio espainiarraren 3. artikuluan bezala.

Hizkuntz legea beharrezkoa da, baina legea ez da nahikoa hizkuntza gutitu baten salbatzeko. Alde hortarik EAEko hizkuntz legearen eta Kataluniako lege berriaren arteko ezberdintasuna gogoetagarri da. Gasteizko arduradun batek esplikatu dit: «Ezin da berdina izan herritarren % 80 katalanera dakitelarik eta hemen laurdena euskaltzale delarik». Hots hizkuntzaren geroa hiztunen eskuetan dago, hiztunen ahoan hobeki esanez.

Datorren apirilean *Deiadar* elkarretaratzeak bilduko ditu euskararen zaintzale guztiak, herrixketan eta Baionako karraketan ofizialtasuna eskatuz. Ikusiko dugu zein den gizartearen eskaera onarmen publikoaren alde. ♣



Zer da hau?

Egunen gupilari ardatz berria gehitzen dio *Jakin*-ek hemen zabaltzen dugun atal honekin. Nola bataiatu zalantzan gine-la, hor erabili genuen *Komunikazioa* aukera posibleztat. Zertaz jardun behar nuen galdetu eta gutxi gora-behera zera esan zidaten: «Internet eta horiek, hire gauzak». Ez nekien juxtu *Komunikazioak* hori definitzeko balio ote zuen, esanahi zabalegiko kontua izan zitekeelakoan izenburu hori. Horregatik, azkenean, Telepolis aukeratu dugu. Gehiegi esan beharrean, apenas esanahirik duelako hitz horrek, eta, ondorioz, lerro hauetako muinetik gertuago izango da: sarriago izango da hemen huskeria, mamia baino.

Telepolis, bestetik, informazioaren gizarte delako utopia edo kristo horri emandako izenetako bat da. Javier Etxeberria filosofo nafarrak kontu hauen gainean idatzitako liburu ezagun baten izenburua da. Etxeberria honek udazkenean jaso zuen, hain zuzen, bigarren Euskadi Saria, Eusko Jaurlaritzak emana. Erdalduna da Etxeberria, baina saria jasotzean hitz batzuk euskaraz egin zituen, ahalegin handiarekin: ez zen izan, ohi bezala, protokolo absurdo bat betetzeagatik, baizik eta bere ume txikiaren hizkuntza izango delako, Etxeberriak berak azaldu zuenez. Keinu polita izan zen, dudarik gabe.

Eta zer tratatuko dugu, beraz, Telepolis honetan? Argi dago: «Internet eta horiek, nire gauzak». Hau da, edozer, edozelan. ¶

Libelo bat omen dago Interneten

Mesede handia egin dio *Ostiela* literatur aldizkariak gizateriari Matías Múgica –ez bekio tilderik eta c-rik kendu, arren– funtzionario itzultzailearen libeloa argitaratzearekin. Libeloa bazebilen lehendik ere hortik zehar, zirkulatzen.

Halakok irakurria zuen, kopia bat omen zeukan beste honek ez dakit non, eta besteak bertsio laburtu bat ikusia zuen kajoi ilun batean zazpi giltzapean gorderik.

Libeloa gora, libeloa behera; testu horren inguruan halako esames bat ere bazebilen: «Interneten dago». Bertsozale ezagun batek hala esan zidan: «Interneten dago». Eta Ibon Sarasolak ere horixe idatzi zuen hori *Euskara batua - ren ajeak* liburuan: «Interneten dago» libelo ostia hori.

«Interneten dago». Ez dakit inork txistea ulertzen duen. «Bizkaian dago» esatea beste da hori. Jostorratza non utzi duzu? Belar metan dago.

Jardun genuen bila eta bila eta bila, eta zero, libelarik ez, ez euskal kulturaz behintzat: Clintonen zakilaren okertze norabideaz eta horrelakoez bai. Susmoa dut baten batek beste baten bati pasatu ziola libelo ditxosoa posta elektronikoz edo, eta hortik puztu zela ipuina, Interneten zegoela zerako zera. Klaro, norbaitek esango baligu bezala: «Libeloa telefonan dago».

Eta bueno, azkenean bada, *Ostiela*-k —helbide elektronikorik ez duen aldizkari estrainio horrek— argitaratu zuen paperean, oinarri fisiko zaharkitu horretan, eta horrelaxe irakurri genuen libelo sakratua.

Eta ez genuen guk bakarrik irakurri, ez horixe. Badago Interneten *soc.culture.basque* izeneko foro publiko zeharo antiabertzale eta demagogikoa, eta horko batek ere irakurri zuen testu apurtzailea. Irakurri, eta kopiatu, eta hara, Internetera bidali, non foro jakin horretako tolerante demagogiko guztiek frogatu ahal izan zuten betidanik izan dutela arrazoia euskalgintzaren jatorrizko miseria eta pobrezia denuntziatzen eta kondenatzen...

Beraz, Múgicaren —deklinatuz gero ere tildea gorde behar ote da?— libeloa iritsi zen azkenean Internetera, non ez zuen inortxo ere komentzitzerik lortu, zeren alde zuretik denak komentziturik zeuden. Azkenean lortu du testu horrek loria zerutiarra. Orain —orain bai— Interneten dago.

Libeloa Telepolisen bizi da orain, Parnaso kaleko 27an, Olinpo aldera daraman bidean (azkar asko aurkituko duzue DejaNews bilatzailean begiratuta, edo *Ostiela*-n bertan, eliteko liburudendetan). ¶

Manolo askatu!

Manolo bahitu zuten Amara auzoan Donostian, azaro partean. Gertaeraren berri ez genuen jaso, hala ere, abenduaren 23a arte, errebindikazioa *El Pais*-en azaldu zen arte.

Ez dugu pedagogia konturik hemen aipatuko, ezta euskarari egindako eraso baten aurrean gaudela eta hori guztia.

Kasu argigarria da, dena den, medioen mediatizazio-bai termino itsusia- esan diezaiokegun horren erakusgarri delako. Espainolezko medioek EAEko kultur politikaren arduradunengan duten eraginaren adibide ezin garbiagoa da. Eragin hori, gainera, ez da *lobby* batek interes jakin batzuen alde egin dezakeenaren parekoa, baizik eta ikara eta izuan oinarritutako koakzioa. Garmendiaren ekipoak koakzionatuta lan egiten duela ematen du. Hala ez bada, oso gaizki disimulatzen dute. Koakzionatuta, ez *El Pais*-ek edo *Correo*-k beren salaketa noizbehinkakoekin begiak irekitzen dizkietelako edo komentatzen dituztelako, baizik eta beldur ikaragarria ematen dielako haien titular bakoitzak.

El Pais-ek ateratako filtrazioak berehala dira komentatzekoak, tratatzekoak, ikertzekoak. Amara Berri euskaltegian zerbait egon dela eta egun berean Garmendiak badu zeresanik: ikerketa egingo zutela, eta orduan aterako zituztela kontuak. Halaxe esan zuten Kultura sailean abenduaren 23an, baina harekin batera, ariketa, edozein kasutan, arbuizatzen modukoa zela zehaztuz.

Polemika guztiaren ondoren, zigorra eta «joko arau demokratikoen» alde egindako aldarrikapen absurdu samar baten ondoren, filtrazioa *Egunkaria*-k dakar (urtarrilaren 20an), AEK-k HABEren materialean aurkitutako ariketa inozoekin —Manolorena bezain inozoak, alegia—. Orduan zer? Zer du esateko Garmendiak? Txostena esku artean eduki arte, ezer ere ez.

Adi, gero, diferentzia funtsezkoari: abenduaren 23an, «itxoin dezagun», baina aldi berean, bla-bla-bla. Urtarrilaren 20an, «itxoin dezagun», eta aldi berean «ez dut beste ezer esatekorik». [Euskadi Irratiaz, orobat, gauza bera esan dezakegu: *El Pais*-eko filtrazioak albiste dira irrati publiko euskarazkoan; *Egunkaria*-koak ez].

Gero informazioaren gizarte euskaldunaz diskurtsoak entzungo ditugu. Fantasiak: informazioaren gizarte erdaldu-nari begira lan egiten dute hemen kultur politikaren ardura-dunek. Izango ez du ba arrazoa Matías Múgicak euskal kul-turaren gezurak aurpegiratzen dizkigunean! ¶

Lehen harria botatzeko, beti prest

Urte hasiera zoritzarrekoa izan zen Donostiako Bagera eus-kaltzale elkartearentzat eta hark kaleratzen duen *Irutxulo* astekariarentzat, Euskal Herriko lehen hiri aldizkari euskaldu-narentzat. Donostiako Pasealeku Berria astindu zuen itsas enbatak txikitu egin zuen Bageraren lokalaren pareta eta ola-tuek txikizio demasa egin zuten.

Baten bati haren berri Interneten ematea okurritu zitzaion, *EuskaraZ* izeneko posta-zerrendan zehazki, egoera-ren larria aipatuz, itsasgora berriz zetorrela handik ordu batzuetara. Eta beste batek erantzun zuen: «Zer egin dezake-gu berehalako batean? Telefonoz deitu norbaiti? Esan, ahal bada».

Erantzuna iritsi zen. Posible zela zerbait egitea, eta Internetetik bertatik. Bagera eta *Irutxulo*, euskaldunentzako zerbitzu publikoa eskaintzen dutelarik ere, alokatutako loka-lean zeudela aspalditik, eta okasio izan zitekeela Donostiako Udalak lokal publiko bat eskain ziezaien. *EuskaraZ* posta zerrendako harpidedunetako bat izanik Donostiako Kultura zinegotzia, hari zuzendutako eskaerak egin zitezkeela, mezu elektronikoen bidez.

Ondorioz, dozena bat mezu iritsi ziren elkartasuna adieraziz. Tankera honetakoak izan ziren mezuak:

«Donostiako Udalarari eta, bereziki, Kultura zinegotziari: Mesedez, Donostiako Bagera elkartearentzat eta baita *Irutxulo*-rentzat ere lokal eta baliabide egokiak jar ditzazula erregutzen dizut».

Halako batean, ordea, Kultura zinegotzia asaldatu zen, eta erantzun egin zuen posta zerrendara:

Kristo Euskalherriratu dadin beldur naiz, lehen harriarren desafioa eramanezina egingo bailitzaidake. Hemen adina

erru eta hemen adina errugabe ez dago inon ere, lehen harria botatzeko, bigarrena, hirugarrena, laugarrena... harria bada, beti prest. [...] Lasai geldituko zineten egin beharrak behar bezala bete ondoren. Egitan enbidia ematen didate zuen kontzientziek. Mesedez ez ezazue egin euskararen aldeko beste heroizidaderik, herri hau oso ezker gaiztokoa da eta zuena bezalako militantzia nekoso eta sakrifikatuarekin. Eta dena ni, [X], ez Donostiako Kultura Zinegotzia, zerrenda honetan nagoelako, zuen lasaigarri. Merkeak, miserableak, zekenak, alperrak...

Erantzun batzuk izan zituen zinegotziak, baina ez gehiegi. Baten batek nabarmendu zuen «jendearen eskari zentzuzkoak herri-agintari batek horren gaizki hartzea» harri-garria zela. Sintoma bat izan liteke. Zerena? Ez dakit. ¶

Demokrazia elektronikoa?

Kultura zinegotziaren kasu bitxi horrek hausnarketarako aitzakia eman diezaguke.

Batzuek diote demokrazia errepresentatibotik beste zer-baitetara aldatzekotan egon gaitezkeela. Herritarrek lau urtetik behin hitza izatetik —hau da, hitza erregalo alderdi politiko bati ematetik— parte hartze telematiko zuzenago batera igaro gaitezkeela, teknikak hori posible egiten baitu.

Urteberri eguneko gertaera honetatik piztutakoak ez du esperantza handirik ematen halakorik posible izango dela sinesteko. Adibide hartan oinarriturik, nik uste dut lehenago eraitsiko dutela Itoizko horma eta lehenago desfilatuko dutela emakumeek alardeetan demokrazia telematikoaren hemen ezarri baino.

Politikarien eta herritarren arteko komunikazio elektronikoa? Lau urtetik behin, eta kito, orain bezala.

Esaten dute Atutxa-eta prestatzen ari direla bozketa elektronikorako sistema 2002. urterako edo. Froga batzuk egin dituzte abenduan, gabonetako jolas parkeetan. Haurrak erabili dituzte esperimentuan, aukera batzuk eginez pantaila batzuetan. Ez da txantxa: Herrizaingo sailaren hauteskunde elektronikoa sistema umetxoekin probatu dute! Erraiak behar dira, gero. ¶

Zientzia eta Teknologia Planak zertarako balio duen

Udazkenean, informatikari euskaldunek osatutako Ixa taldeak kolpe latza jasan zuen. Proiektu zeharo interesgarria aurkeztu zuten, zenbait enpresaren lankidetzarekin, Eusko Jaurlaritzak prestatutako 1997-2000 Zientzia eta Teknologia Planera.

Goibista izeneko proiektua da Ixa-ren egitasmo hori, Interneteko euskal edukiak bilatzeko eta sailkatzeko tresna bat litzateke, bilaketa motore euskalduna, hizkuntzaren tratamendu informatikorako egokitua.

Tamalez, atzera bota dute. Jaurlaritzako Industria saileko arduradunek «formalki» proiektua hobetzeko gomendatu diete informatikari euskaldunei, eta datorren urteko deialdian itzultzeko.

Zientzia eta Teknologia Planean «hizkuntzen teknologia» izeneko atal bat badago –adi: ez «euskararen», baizik eta «hizkuntzen»–, baina proiektu funtsezko honek ez omen du arduradun argitsu batzuen iritziz halako toki batean lekurik. Esana dut beste nonbait hemen edozer gauza dela estrategikoa, euskara izan ezik: porlanezko autobideak, hozkailu korearrak...

Pentsatzen jarrita, ez doa bada dena maldan behera Korean? ♪

Ciburua



PAKO SUDUP E
Pentsamendu katalanista krisian

121



IDAZKARITZA
Jaso ditugu

133

Ciburruak



El Cansament del catalanisme

Toni Strubell i Trueta

Edicions La Campana • Barcelona, 1997

Pentsamendu katalanista krisian

*

PAKO SUDUPE

*

i az eman zuen argitara Toni Strubellek, Orereta-Erreterian bizi eta Donostiako EUTGn ingeleseko ikastaroak ematen dituen katalan pentsalari honek. Izenburuak dioen bezala, katalanismoak bizi duen nekeaz gogoeta egitea du helburu; lehenbizi, nekearen diagnostia eta gero honen zergatiak ikertzea. Genero aldetik saiakera politikoan sartzen da ongien, baina politikoa zentzu zabalean harturik eta batez ere ikuspegi ezohikotik: mitoak, literatura, kirola, kantua, komunikabideak eta kultura baititu aztergai.

Vicenç Villatoro eta Joan B. Culla izan dira aurrenak 80ko hamarkadako azken urteetan delako katalanismoaren nekamena diagnostikatzen. Urteetan aurrerago politiko nazionalistek ere, kasu, Jordi Pujol eta Àngel Colomek hutsuneak ohartu dituzte katalanismoaren gizarte hedapenean. Zenbait pentsalari itzaltsurentzat ehun urte baino gutxiagoren buruan katalanismoa ideologia azkarra eta oldartsua izatetik zaharkitua eta iraungitua izatera igaro da. Pentsamendu katalanista krisian dago. Honen kausak aztertzean, gehientsuenek, batez ere, kanpoko eragileak azpimarratzen dituzte: Espainiako *mesetako*en erasoak, nazioarteko

► Pako Sudupe euskara irakaslea da, eta Euskal Filologian lizentziatua.

egoera desegokiak edota balio nahiz egitura sozial zein ekonomikoen aldaketak, katalanismoari mesedea baino gehiago kaltea lekarkioketenak. Toni Strubellek baina, kanpoko eragileen axola ukatu gabe, barneko arazoetan sakontzen du; 1936ko gerraondotik gaurdaino mito nazional katalanen lan-keta bazter utzi izanak ekarri kaltea nabarmentzen du guztien gainetik, eta egoera iraultzeko, hain zuzen, pentsamendu mitiko herrikoiaeren eredu bat sortu beharra aldarrikatzen; egun Kataluniako nazioari bizkar emanda arrotz eta ezaxola bizi direnek aintzat hartu eta errespetua ekar diezaioten.

Bere hitzetan, melting-pot ideologiko propio gabe —gure inguruko Estatu-nazio guztiek duten baliabidea— katalanismoak nekez hautsi ahalko ditu egungo eskema elitistak eta nekez iritsi ahalko da ezentzun edo muzin egiten dioten gizataldeetara. Eta baliabide hau gabe, gaitz izango zaie Kataluniari eta gainerako Katalan Herriei egun ezaugarri dituzten zatiketa, noraeza eta akidura ideologikoa gainditzea.

Liburuari hitzaurrea egin dion Salvador Cardúsek diagnosian ez du ekarpenik hauteman, ekarpena bestetan ohartu du, ohiko azterketa politikoen muga hertsia zabaldu, eta nazioen eraikuntzan alderdi mitikoak jokatu ohi duen egiteko axolazkoari begia edukitzean, baina irakurle euskaldunarentzat diktadura ondoko Espainiako Autonomien Estatuaren eraikuntza eta oraindainen garapena katalan abertzaleek nola esten duten ohartzea bera ere jakingarri gerta liteke.

Badakigu, itxura batera, Jordi Pujol botere zati handiskoaren jabe dela; jakinean gara katalanak Estaturik gabeko nazioen artean abantailatuak direla: hizkuntza eta honen bidez landutako kulturaren aldetik. Bistan da han ez dela hemen abertzaleok banatzen gaituen indargintzarik. Halaz guztiz, ondoko lerroetan espresukiago agertuko dugun bezala katalan abertzale askoren iritzira, oro har oso galduan atera dira katalantasuna eta katalanismoa egungo Autonomi Estaturik Estaturik.

Beste interesgune erantsi bat ere badu liburuak euskaldunontzat; idazlea katalana eta Kataluniaz ongi jantzia ezezik euskara eta euskal kulturaz ere gutxi-asko jantzitakoa da, eta beste herri zapaldu batzuetako jokabideak aipatzen dituen bezala Euskadi ere ekartzen du hizpidera bi herrien jokabideez alderaketak egiteko. Ildo honetatik, zenbait alorretan guk katalanei

bekaitzez behatzen diegun bezala gagozkion liburugilea pentsamendu mitikoa lantze aldetik guri begira mira eginik ohartzen dugu. Begia eduki diezaiegun bertagotik liburuko bi atalei.

Diagnosia

... la Transició democrática espanyola com a període en qué s'han produït dos fenòmens interessants: d'una banda, l'aparició i enregistrament de molts dels símptomes del cansament del catalanisme; i d'altra banda, la creació d'un nou marc per a l'enquistament crònic d'aquest estat de cansament. (29 or.)

Batzuen ustetan behin *Sau*-ko Estatutua (1979) onartu eta Kataluniako Legebiltzarra (1980) berrezarri ondotik katalanek legezketasun errepublikarra lehengoratu dute, eta gerraurreko *Núria*-ko Estatutua *Sau*-koarekin erkatuz, alde askotatik azken hau ateratzen da gailen. Baina ez da hori, urteak aurrera, nagusituz joan den ikuskera.

Columbiako Unibertsitateko katedratikoa den Philip W. Silver-ek *Nacionalismos y Transición* liburuan dio Ortega y Gasseten pentsamendua erreferentzia puntu erabat funtsezkoa izan dela 1978ko Konstituzioa burutzeko garaian. Espainian indarrean dugun Konstituzioaren gurasoek tematsuki Errepublika garaian egindako hutsegiteak berriro ez egiten ahalgindu ziren; orduko hartan katalanen estatutua aurreratu egin zitzaion Konstituzioari, oraingo honetan arta handiz arduratu dira hori saihesten; eta paradoxa irudi badu ere, Katalunia aldi berean eraikitzaile eta biktima bihurtu da, *kafea guztientzat*-en egile, eta halaber egiten lagundutakoaren petxero. Philip W. Silver-i jarraiki, jadanik Espainia batua ez da muturka ariko bi edo hiru eskualde hezikaitzen aurka II. Errepublika garaian bezala, baizik eta eskualdeak berak izango dira elkarren kontra jardungo direnak; hartara gatazka hauek gaintitu eta Botere nazional, estatal, bakar eta subiranora iristeko.

Operazio honen gakoetako bat eskualde-berdintasuna izaki, eskumenen alorrean eta katalanismo historikoaren errebindikazio askoren kasuan zapuzketa nabarmena izan da: botere autonomiko errealairen ordeztasun-administrazio-deszentrali-

zazioa burutu da; finantza eta ekonomi eskumenak (batzuetan, norberaren ukoz) ez dira onartuak izan, hil edo biziko kontzertu ekonomikoa barne; eta, azkenik, komunikazio sare modernoa eraikitzea ezinezko bihurtu da; hizkuntza eta kultura aldetiko elkar aditzea bultzatzeko aukera bera ere indargabetuz, Katalan Herrien artean ezezik are Printzerrian bertan ere.

Ildo honetatik, ezin adierazgarriagoak dira Manuel Ortínez-ek berriki argitara duen *una vida entre burgesos* oroi-pen liburuan 1979ko katalan estatutuaz egiten dituen adierazpenak. Liburuko atal batean jakinarazten duenez, 1979an Generalitateko kontseilari eta Estatutuaren alde botoa emateko kanpainaren arduradun zen gizon honek haste-hastetik garbi zeukan ez zela onargarria. Josep Lluís Sureda, Josep M. Bricall eta hirurek garbi zeukaten ez zituela espero zitezkeen gutxieneko baldintzak betetzen; hain zuzen, autonomia estatutuak Espainiako eskualde guztiei, tradizioz izan ala ez, hedatzearen hobena zuelako muinean, oinarri aizun honen gainean bermaturik: «*alló que obtinguin els catalans, també ha de ser per als altres*». Zergatik ez zituen ba eragozpenok lehenago ezagutarazi, estatutuari baiezkoa edo ezezkoa eman egosten ari zenean?

Joan Reventós sozialista katalan ohoragarriak honako erantzuna ematen digu: «*El poble no ens demanava més*». Toni Strubellek baieztatzen duenez, 70eko hamarkadan jadanik gero eta argiago sumatzen den fenomeno da konposizio soziopolitikoa eta katalanen hauteskunde-portaerak arras aldatuak direla berrogei urteren buruan. II. Errepublika garaian eskuin katalana (Lliga)/ezker katalana (Esquerra) eskema bazen nagusi, 70eko hamarkadan eskema nagusia eskuin katalana (CiU)/ezker espainola (PSC-PSOE) izango da eta eskuin espainolaren presentzia ere aski nabarmena zela (UCD, AP/PP).

1977ko ekainaren 15ean egin ziren diktadura ondoko lehen hauteskundeetan CiUk laugarren tokia lortu zuen PSC-PSOE, PSUC eta UCDren atzetik. Harrezkero alderdi ezkertiarak gero eta sukurtsalistago agertuko dira, Madrilen mendea-nago, Errepublika garaian alderdien egoitza nagusia Bartzelonan eta orain, trantsizioan berriz, Madrilen; eta katalanismoa baino gehiago demokrazia espainolaren irrika eta autonomismo epel baten nahikundeia izango dira nagusi errebindikazio politikoaren baitan.

CiUk eragozpen handirik gabe onartuko du 1936an boto gehien lortu zuen ERC (l'Esquerra Republicana de Catalunya) Arias Salgado, Adolfo Suarez eta Erregearen eskutik hauteskunde-borrokatik kanpo uztea, legeztatu gabe zokoratuz, eta erraz baztertuko ditu katalanismoaren errebindikazio historiko nagusiak: autodeterminazio eskubidea, kontzertu ekonomikoa, katalan esparruko beste herriekin federatzeko aukera, katalanaren nahitaezkotasuna katalan esparruaren baitan, eta are «de tendència federalista» terminoa, hasiera batean Konstituzioaren lehen Atalean agertzea edo zena. Konstituzioan «regiones y nacionalidades» agertzearekin etsiko du katalanismo hegemonikoak.

Zein urrun geratzen zen II. Errepublika garaiko sukar katalanista. Francesc Maciá maitekiro *l'Avi* (Aitona) izengoitiz ezagutuak 1926an, Primo de Riveraren diktadurapean Prats de Molló muga-herritik ehun eta gehiago gizon armaturekin Errepublika Katalanaren aldeko altxamendua sorrarazi nahian sartu zenekoa; 1931n Kataluniara itzuli eta Esquerra Republicana-rekin bat eginda hauteskundeak irabazi eta lehen Errepublika katalan suntsikorra aldarrikatu zueneko oroipena, Strubellek dioen bezala 217 urte eskubide nazionalik gabe emandako herri batek bere garaiko matxino erreboltaria hauteskunde garaipenez saritzea!; edota Lluís Companysena, 1933an *l'avia* hil ondoren Generalitateko lehendakartzan txanda hartu, eta 1934an Madrilen kontra matxinada gidatu zuena Errepublika federal espainolaren Estatu katalan jaiotunean hilaren aldarria egindakoa; zapaldutako altxamenduaren kariaz espetxean pare bat urte eman ondoan *Frente Popular*ak hauteskundeak irabazitakoan berriro lehendakari izana, Gestaporen laguntzaz frankistek atxilotu eta 1940an Montjuíceko gazteluan hila. Orduko agerraldi kultural eta politiko katalanista eskergen oroitzapena.

Mitoen garrantzia

Per molt que exigim fonaments científics per explicar els fenòmens socials i polítics que es produeixen al si dels paï-

sos, el cert és que determinats comportaments collectius només s'expliquen per l'existència de factors de tipus irracional o —si es vol— de tipus *espiritual*. (51 or.)

Sarrerakoan esan dugu liburu honen ekarpenik handiena mitoek ezein naziogintzan jokatu duten eta joka dezaketen paper garrantzitsua bortitz plazaratzea dela. Gurean mito nazionalistak jorratu, azpi irrazionalistak larrubizian jarri eta datu objetiboz nahiz datu oso subjeliboz uzkaillzen eta barre-garri uzten ahalegintzea soka luzeko tradizioa izan da, azken hogeï urteotan areagotua, bereziki etxetik bertatik, EHUtik, eta bertako intelektual *status quo*-zaleen eskutik.

Kanpoko eraginez arrotzu arteko gure behialako euskal demokraziaren mitoa dela, foru erregimenean oinarritu burujabetasunarena edo historiografia erromantiko nazionalistaren suemaile nagusia izan den Sabino Aranaren mitoa bortizki inarrosiak izan dira. Azken batean, euskal nazionalismoa burgeskeria antimaketoarekin onenean, eta sarri ezjakintasun atzerakoi harroskoenarekin lotzeko. Ez dira ezertan hartu, kasu, euskaldun historikoki demokrataren mitoak, edo Sabino Aranaren mitoak berak zer paper axolazkoa jokatu duten espainolismoaren azken eraso militar ezin basagoari erresistentzia miresgarria kontrajarri ahal izateko, eta gerrate inguruan jaiotako belaunaldi berriei tradizio nazionalista eskaintzeko. Aipatu historiografiak, mito nazionalisten lardaskatzaileak lagundu egin du Franco hil ondoko Euskal Herriko bor-bor soziala, politikoa eta kulturala egun nagusi dugun espainol erako demokraziara bideratzen.

Ildo honetatik, isiltasun adierazgarrienera baztertu dira Espainiako Estatua eratzeko —Portugal aldebat 1668 ezkeror—, Penintsulako nazio-lehengaiak landu-ezaz lardaskatzen utziaz, edota berariaz eta arta handiz lantze asmoak arraul-tzan bertan itoaraziz Estatutik Elizaren laguntza paregabez nazio bakarrera jotzeko ahaleginek mitoen aldetik izan duten laguntza. Beharrik, bestelakorik ere izan dugu. Joxe Azurmendik erakutsi digu, kasu, Estatu modernoan kontzeptuen oinarrian dagoen batasun zatiezinarene mito teologikopatologikoa muinean zertan datzan: Jainkoak Erregea aukeratzan du, honek bere erresumari Jainkoagandik jasotako santutasuna helarazten dio eta eremu hauen gainean bermatzen

da gero XIX. mendeko merkatu bateratzea eta honi datxez-
kion ondorio guztiak. Arrazoiaren desarrazoia.

Ezari-ezarian eta kostata bada ere, hasiak gara gainera
kentzen basatiaren gutxiagotasun-konplexua, euskal mitoei
beste era batera begiratzeko hasiak garen bezala.

Kataluniak, Toni Strubelli jarraiki, nazioak bizi izan
dituen aldi desberdinetan mitoen lanketa azkar bat izan du,
zenbat eta hauen premia handiagoa hainbat gotorraga.

Aldi hurbilenari begia edukiz, mugimendu katalanistaren
historiagileek katalan nazionalismo modernoaren sortze eta
errotzea XIX. mende bukaera eta II. Errepublika artean koka-
tzen dute. Greuges Memoriala (*greuges*-ak irainak dira);
Manresako Oinarriak (katalanismoaren oinarri politiko, ekono-
miko eta sozialak —1892—); Lliga Regionalista-ren sorrera
(1901. Alderdi nazionalista, politikoki federalista eta sozialki
burgesia katalanaren ordezkari); Solidaritat Catalana (1906-
1909; katalan alderdien elkarte, fronte nazional gisakoa); eta
Mancomunitat Catalana (Solidaritat-ek erreka jo ondotik
Printzerriko lau probintziak administratiboki lotuko zituen era-
kundera). Hauek eta beste batzuk katalanismoaren igoeraren
pendiz neketsuak dira kostata gaintuak, kontraesanak kontra-
esan, 1931an Generalitatea berreskuratzeko gailurra jotzen
dutenak, bost urtez garapen gora-beheratsua baina aurrerakoa
izan ondotik, gerrate eta gerraondoarekin atzera berriro espai-
nolismo oldarkorrenaren mendeko ordoki zelaienera erortzeko.

Hau guztia ezina zatekeen biztanleen gizamaila anitze-
ko gizataldeetan mugimendu kultural eta ideologiko katala-
nistak errorik egin ez balu. Horretarako mitoei paper haulta
jokatu zuten. Gerraondoan berriz, mitoen norabidearen irault-
za nabarmena da. II. Errepublika garaian historialari naziona-
lista aurrerakoiak, zuzen edo oker, Kataluniaren historian
kontzientzia nazional katalana sortzeko baliagarri eta bidezko
diren gertakariak ustiatzen saiatu baziren, katalan demokrata
eta Gaztelaren absolutismoari jazarriaren mitoa eraikiz;
Francoren diktadura garaian nagusitzen diren historialariek
katalanen irudi itunzalea sustatuko dute, burgesia katalanaren
interesak legezkatzeko eta Kataluniako historia Espainia-
koaren baitan eroso kokatzeko arras lagungarri izango dena.

Historiografiatik literaturara igaroz, gerran hildakoak
eta erbesteratuak alde batera; eta debekuak, zentsurak eta

errepresioak ahaztu gabe; ez da desertzio handirik jazoko katalan literaturan. Baina gutxiz gehienek katalanez idazten jarraituko badute ere, erabat baztertuko dute katalanismo aurrerakoia aldeko idazgintza naziogilea eta euren helburu buruzagia perfektioarena izango da. Alde batera interpreta liteke frankismo katalan-gorrotokoaren aurrean protesta egiteko modu egokitzat, bestela jokatzeko eragozpen bortitzak kontuan; alabaina jarrera honek eragin zezakeen ondorio *petainista* nabarmentzen du garraizkion autoreak, literaturak beste nazio batzuetan antzeko hondamendi itzeletan jokatu duen paper katarsiko sendagarria bazter utzi eta ezer pasatu ez bailitzan jokatzegatik.

Gerraondoko idazle katalan adierazgarrienen obra nagusienetan balore etiko eta moralak, alde-aldera erlijiosoak, dira nagusi eta politikoak oso bigarren mailan geratzen dira. Alde honetatik, agertzen direnean ezkortasunez eta adiskidetasunezko espirituz oretuak ageri dira, historikoki egiazkoak izanagatik, ez zutenak batere laguntzen gerrak etendako naziogintza aurrerakoia berrekin behar zitzaiolako sentimenduak heda zitezen irakurleen artean.

Hau irakurrita ematen du gerra zibila bestela hauteman zela katalanen artean. Gure artean gerra galdu eta erresistentziara pasa zirenek —literatura ere, ezinbestean maila apaleko idazgintza naziogilea izan zen gure artean hein handi batean, sakrifizio eta meritu alimalekoz burutua; literaturtasunean maila estimagarria lortu zuten bakanak ere literato ezezik luma-langile xume ere izan ziren— oso garbi zeukaten Gernika hiru ordu t´erdiz bonbardeatu zutenak zein izan ziren, eta halaber Aitzol eta gainerako apaizak fusilatu zituztenak ere. Gerra fisikoki galdu arren, espirituzko gerran garai-atera ziren, faszismo totalitarioaren aurka eta askatasunaren eta duintasunaren alde borrokatu zutelako kontzientzia garbiz.

Katalunian, aldiz, agi danez, Errepublika eta katalanismoaren aldeko lerroetan eta, gerrak ez zuen mitoak ustiatzeko gogo handirik utzi: bi aldeetako izugarrikeriak, gerraren absurdotasuna eta adiskidetzearen beharra gailendu eta hedatu ziren gehien. Generalitatearen hondamendia, Companys lehendakariaren fusilamendua, bere burua *okupa* -*zioko* zeritzan armadak konkistatu izana eta katalan-gorroto-

ko diktadura nagusitzeak, uste zitekeenez, sorrarazi behar zuketan erreakziorik eragin gabe. Euskadin erradikalizazioa bezala —zentzu gaitzesgarrikerik gabe uler bedi—, Katalunian, gehienbat, adiskidetze beharrean oinarrituriko onarpen gisakoa nagusitu bailitza.

1939tik aurrera katalanismoa nola geratu den oharretako parada egokia, Montserrat Roig-ek 70eko hamarkadan idatzitako *El temps de les cireres* eleberririk ematen digu, pertsonaien bidez gizarte katalanaren erradiografia egiten digunez. Harmonia Carreras eta Natalia pertsonaiek gizarte frankistan nekez irauten duen katalantasanaren hondar ezerosoa, errelatua, irudikatzen dute. Hauek salatu egingo dute Salvador Puig Antiach, gazte ekintzaile libertarioaren hilketak. Eleberriko leitmotivetakoa bat da exekuzioa, baina pertsonaia errebelde hauen emozio nagusiak frustrazioa eta gogaitasuna (*fastig*) dira, kanpoko edo barneko erbestean babestuko direla, ihes egiteko.

36ko gerrako erresistenteak berak ere, ikaragarri markatu ditu diktadurak eta pertsonaia irendu eta desmotibatuak dira; belaunaldi gazteei euren balioak transmititu ezina jasan beharrean dira, eta sentimendu katalanisten ezereztasuna pairatzera kondenatuak.

Era berean, zenbait katalanistaren baitan jazotzen den metamorfosia aztertzen du nobelak. Gerraurrean borrokalariak eta katalanismoarekin nahiz ideia aurrerakoiekin konprometituak, gerraondoan euren burua gorrotatzera, eta euren identitatea ukatzera iritsiko dira. Hauetakoa asko, dirua egin beharrak irentsiko ditu, katalanista aurrerakoi izatetik hirigile usteldu izatera igaroz. Gurean ere, kontzienteenak maiz salatu dituzte giroa aldeko zenean nazionalista agertu eta giroa aldatzean aurreko ideiak jantzi zaharrak bailiren baztertu dituztenen metamorfosia gaitzesgarriak.

Katalanismo konplexuz beteriko honen hirugarren mota, kontserbadore, klasista eta insolidarioarena da; fashismoaren aurkako gerran ez dela parterik hartu behar aldeztu eta frankismoari laguntzeko gupidarik izan ez duena gerraondoan.

Montserrat Roigek gizarte katalanari ateratzen dion argazkiaren arabera, eromenaren mende dago hau, autogo-

rrotoak, amets egiteko ezintasunak eta belaunaldi arteko inkomunikazioak hartaraturik. Zantzu txarrak trantsizio politikoari aurre egin behar dion katalanismoarentzat.

Frankismopeko urte luzeotako tunel ilunean Katalunian izan al zen itxarobideari zirrizturik ireki ziezaiokeen mugimendurik, aztertzen ari garen ildotik kultur suspertzaile edo gerta zitekeenik? Esan zitekeen *Nova Cançó*-k, Raimon, Llach eta kidekoen kantagintza berritzaileak bete zezakeela egiteko hori; alabaina, argi ilaunez eta itzal astunez hornitua ageri zaio mugimendu hau garraizkion autoreari. Frantziako Brel, Brassens eta kidekoen joera kultistatik gehiegi edana egozten die nagusiki, mezuak hizkera lau eta xumea-gora ekarri ez izana.

Hauen aldean, eta Gorka Knörrek euskal kantagintzari buruzko azterlanean egindako zenbait baieztapenetan oinarri hartuz, Euskal Kantagintza Berria, *Ez dok amairu*-rena eta are azken urteotako euskal rocka, herrikoia esten ditu, esplizitoagoak eta horretaraz gero, askoz egokiagoak pentsamendu mitiko nazional herrikoa lantzeko.

Handizka harturik, baieztapen nagusiaren zuzena auzitan jartzen ausartzen ez banaiz ere, nago gure kantagintzaz egin azterlanen eskasiak eta daudenen ezagutza askiezak, eta guztien gainetik, bere hipotesia indartu nahiak gehitxo lerrarazi dutela *Ez dok amairu*-ren kasuan bederen, bertsolarietako zorra neurritz gain azpimarratzera, eta katalanek miretsi kantugile frantsesen, Iparrameriketako folkaren eta Hegoameriketako kanta berri eta konprometituarekiko zorrak eta eraginak gutxiestera.

Bitxi gertatu zait nola ez duen gehiago nabarmendu *Nova Cançó*-ren ereduak berak, José A. Irigarai eta Mikel Laboaren eskutik eta, *Ez dok amairu*-n izandako garrantzia. Gorka Knörrek azpimarratzen duen bezala, gure medikugaiek Bartzelonan ikasi zuten. *Cova del drac*-en bildu ohi ziren kantari katalanekin ezaupideak egin eta trukeak antolatzen zituzten, Raimon —gogora honen *Al País Basc* famatua— eta Guillermina Motta, kasu, Euskal Herrira etorri ziren txango, eta B. Lertxundi, J. Lekuona eta Mikel Laboa, berriz, Bartzelonara joan ziren kantaldiak ematera.

Iragan hurbileko diktaduratik egungo aldi politikora etorritz, katalanismo hegemonikoak jakin al du erreka jotako

katalanismoa berriro goraka bidean jartzen, horretarako politika kultural ideologiko aproposa eraikiz eta bertan pulunparaziz nazioa? Erantzuna ezezko biribila da. Gehiago jo du mende honen hasieran erroturiko katalanismo kontserbadore nazionalki epela berpiztera, Primo de Riveraren diktadurapean Cambóren jarrera kolaborazionistaz desprestigio handia jasan zuenaren eredura, II. Errepublika garaiko katalanismo aurrerakoi herrikoira baino. Eta hau, beste alorrak beste, oso garbi ageri da komunikabideen esparruan eta kultur festa eta erritoenean.

Ez TV3, ez Canal 33 telebista autonomiko katalanak, ez Generalitatearen irratia, ez eta *Avui* egunkaria dira gauza katalan herrien arteko komunikazio-sare baitezpadakoa sortzeko, nahitaezkoa *komunitate nazionala* eratzeke, termino hau egun onartuen den zentzuan ulerturik, ez hedaduraren aldetik ez eta edukien aldetik ere.

Kopuru aldetik, eskaintza alde handiz kultura espainolaren alde dago aipatu hiru alorretan, eta edukien aldetik ere, espainolizazioa nabarmena da, batez ere, albistegietan; eta iragana behar bezala baliatzerakoan ere, eremu ideologiko nazional egokia sortuz joateko, ez da inondik inora asmatu. Aldiz, gure euskal komunikabideek, edukietan gehiago asmatzen duten irudipena du.

Gorago euskal kantagintzaz adieraziari egindako kritika bertsua egiten diot, azterketa zehatzen eskasiak edo ezagutza faltak bultzatzen dutela gure beteak handiestera eta hutsetan gehiago ez erreparatzera.

Kutsu nazional nabarmena duten festa giroko kultur ekitaldi jendetsuetara etorri, honetan Katalunian gabezia handiak sumatzen ditu. Katalantasuna errebindikatu duten festa herriko jendetsuen premia itzela aldarrikatzen du. Alde honetatik gure Herri Urrats, Kilometroak..., eta *Korrikei*, herri mugimendu gutxi-asko arrakastatsuei lege oneko bekaitzez beha sumatzen dugu.

Liburu labur bezain mamitsu honek gogoetarako aukera ederra eskaintzeaz gain, katalanek eta euskaldunok elkarrekiko dugun ezagutza urria bistaratzen digu deigarriro. ♣

Jaso ditugu Idazkaritza

- Abere madarikatuak. GOMEZ, Antxon//Vechio, Andoni. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 155 or.
- Ahatetxoa eta sahatz negartia. LANDA, Mariasun// Odriozola, Elena. Elkar. Donostia. 21 x 14 cm. 44 or.
- Aitatzu balkoian dago. (i). CALLEJA, Seve/Suarez, Jon//Lucas, Belén. Desclee De Brouwer. Bilbo. 19 x 11,5 cm. 38 or.
- Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?. ARMENTIA, Jose Inazio; CAMINOS, Jose Mari; GONZALEZ ABRISKETA, Marian; PALAZIO, Gorka Jakobe; RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. Arabera Kultur Taldea. Bilbo. 21,5 x 13,5 cm. 176 or.
- Alliances territoriales et frontières européennes. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 134 or.
- Ana eta detektibea. (i). FUSTER, Jaume/Juaristi, Felipe. Desclee De Brouwer. Bilbo. 19 x 11,5 cm. 151 or.
- Aniztasunaren islada komunikabideen eta publizitatearen bitartez / El reflejo de la diversidad a través de los medios de comunicación y de la publicidad. (e). ASKOREN ARTEAN/Rincón, Ana**. Emakunde. Gasteiz. 31 x 21 cm. 406 or.
- Archivo General de Navarra (1274-1321). II. ZABALZA ALDAVE, M^a Itziar. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 x 16 cm. 619 or.
- Archivo General de Navarra (1322-1349). I. Documentación Real. BARRAGAN DOMEÑO, M^a Dolores. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 x 16 cm. 320 or.
- Archivo General de Navarra (1349-1381). I. Documentación Real de Carlos II (1349-1361). RUIZ SAN PEDRO, M^a Teresa. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 x 16 cm. 360 or.
- Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika 95 / Estadística de entidades de seguro libre de asistencia médico-farmacéutica 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 68 or.
- Bada hiri gorri bat. SERRANO, Asier. Elkar. Donostia. 17,5 x 11,5 cm. 90 or.
- Banpiroak / Vampiros. (e). FERNANDEZ CUBAS, Cristina; LERTXUNDI, Anjel; MOLINA FOIX, Juan Antonio; SUAREZ, Gonzalo; TESO, Begoña del/Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza/Teso, Begoña del**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 29,5 x 20,5 cm. 94 or.
- Beirazko giltzak. (i). FUSTER, Jaume/Arrieta, Joxe Austin. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 179 or.
- Beti marmarrear. (i). ABEYA, Elisabet/Ormazabal, J.//Estrada, Pau. Elkar. Donostia. 19 x 16 cm. 23 or.
- Bi istorio. MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier//Zabala, Karlos «Arrastalu». Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 77 or.
- Bihotzeko mina. DIRASSAR, Janbattitt. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 182 or.
- Biztanleriaren Berezko Mugimendua (BBM) 90-95 / Movimiento Natural de la Población 90-95 (M.N.P.). (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 310 or.
- Borroka galduetatik gatoz. URRUTIKOETXEA, Urtzi. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 95 or.
- Bravo anaien altxorra. (i). MARTINEZ DE PISON, Ignacio/Iturralde, Joxemari. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 90 or.

- Colectión documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500).
CRESCO RICO, Miguel Angel; CRUZ MUNDET, José Ramón; GOMEZ LAGO, José
Manuel. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 23 x 16 cm. 180 or.
- Charles Chaplin. ASURMENDI, Mikel. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 128 or.
- Demografi adierazleak 80-90. Eskualdeetako emaitzak / Indicadores
demográficos 80-90. Resultados comarcales. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-
-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 147 or.
- Demokratik eta biolentoak. AZURMENDI, Joxe. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 137 or.
- Deustuko Unibertsitateko Gida 97/98. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo. 29,5 x 21 cm.
218 or.
- Documentación medieval del Monasterio de Santa Engracia de Pamplona
(Siglos XIII-XVI). CIERBIDE, Ricardo; RAMOS, Emiliano. Eusko Ikaskuntza.
Donostia. 23 x 16 cm. 224 or.
- Domiku Garat. Biltzarraren defendatzaile. (i). FAGOAGA, Isidoro/Etxaide Itharte,
Yon. Erein. Donostia. 20,5 x 12,5 cm. 276 or.
- Egile berrientzako literatur lehiaketak (1995). Narrazio laburra-Olerkia-Bertso
Paperak. Saritutako lanak. ASKOREN ARTEAN. Iruñeko Udala. Iruñea. 23,5 x 17
cm. 174 or.
- Egile berrientzako literatur lehiaketak (1996). Narrazio laburra-Olerkia-Bertso
Paperak. Saritutako lanak. ASKOREN ARTEAN. Iruñeko Udala. Iruñea.
23,5 x 17 cm. 143 or.
- Ernesto «Che» Guevara. ZUBEROGOITIA, Aitor. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 154 or.
- Esaizu. Euskal Hizkuntza eta Literatura. DBH 3. AREXOLALEIBA, Julen; BILBATUA,
Marian; GARMENDIA, Jesus M^a; SAINZ, Matilde//Mitxelena, Jokin. Erein. Donostia.
28 x 21 cm. 238 or.
- Esaizu. Hizkuntz Tailerrak DBH 3. AREXOLALEIBA, Julen; BILBATUA, Marian;
GARMENDIA, Jesus M^a; SAINZ, Matilde//Mitxelena, Jokin. Erein. Donostia.
28 x 21 cm. 89 or.
- Euroregioa zifratu / Euroregión en cifras / Eurorégion en chiffres. (e). EUSTAT.
Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 24 x 17 cm. 11 or.
- Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailearen ahotan (1960-1990).
BASTERRETXE, Iziar; ALDEKOA-OTALORA, Alejandro; GOROSTIAGA, Izaskun;
JUARISTI, Patxi. Labayru. Bilbo. 21 x 15 cm. 218 or.
- Euskal Estatistika Kontseilua 1996ko Txostena / Consejo Vasco de Estadística.
Memoria 1996. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 23,5 x 21 cm.
72 or.
- Euskal literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta klasikoa (XVI-XIX).
KORTAZAR, Jon. Erein. Donostia. 22,5 x 13,5 cm. 131 or.
- Euskal urtekari estatistikoa 96 / Anuario estadístico vasco 96. (e). EUSTAT. Euskal
Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 690 or.
- Euskara batuaren ajeak. SARASOLA, Ibon. Alberdania. Irun. 21 x 15 cm. 283 or.
- Francisco Salinas Quijada. URZAINQUI MINA, Tomás. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 20,5
x 14 cm. 123 or.
- Galderen geografia. JUARISTI, Felipe. Alberdania. Irun. 21 x 15 cm. 73 or.
- Galdu arte. (b). ZABALA, Juan Luis. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 227 or.

- Gauak eta hiriak. APALATEGI IDIRIN, Ur. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 246 or.
- Hamar urteko Litografiagintza Artelekun / Diez años de Litografía en Arteleku. (e/b). ERASON, Miren/Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 22 x 22 cm. 43 or.
- Homenaje a Enrique Jordá. BAGÜES, Jon; RODRIGO, Joaquín; NIN-CULMELL, Joaquín; LENOIR, Yves; JORDA, Enrique. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 146 or.
- Ikasplanaren beldurra. (i). BREZINA, Thomas/Mendiguren, Xabier// Förth, Bernhard. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 x 11,5 cm. 142 or.
- Iñigo Aritza. 25. urteurrena 1971/72-1996/97. Ziordia-Olazti-Altsasu-Urdiain. (e). ATXA, Jesus; IÑIGO ARITZA/Urriozola, Gotzon. Iñigo Aritza Ikastola / Ikastolen Elkarte. Altsasu. 24 x 22 cm. 88 or.
- Industri prezioen Indizea 96. Oinarria 1990 / Indice de precios industriales 96. Base 1990. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 83 or.
- Ipuin berdeak. AGIRRE, Joxean; AMESTOY, Koldo; ARISTI, Pako; BORDA, Itxaro; CANO, Harkaitz; ELEXPURU, Juan Martin; EZKIAGA, Patxi; LASA, Amaia; LAZKANO, Maite; ZABALA, Juan Luis; ZABALETA, Patxi. Eguzki-zaleak. Bilbo. 19 x 12 cm. 78 or.
- Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistika 95 / Estadística del gasto y financiación de la enseñanza privada 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 40 or.
- Irakaskuntza publikoaren gastu eta finantzaketaren Estatistika 95 / Estadística del gasto y financiación de la Enseñanza Pública. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 44 or.
- Irakaskuntzaren Estatistika 95-96 / Estadística de la Enseñanza 95-96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 150 or.
- Isturitz. Cuadernos de Prehistoria-Arqueología. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 206 or.
- Itzala itzuli zenekoa. JIMENEZ, Edorta. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 88 or.
- Jauzilarik galtzerdiak galdu ditu. (i). ROCA, Empar/Ormazabal, J./Bellver, Lourdes. Elkar. Donostia. 19 x 16 cm. 23 or.
- Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 208 or.
- Joan zaretenean. MUÑOZ, Jokin. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 158 or.
- Jorge Cardarelli: La mirada del voyeur / Voyeuraren begirada / The voyeur's regard. (e). ARANZASTI, M^o Jose; GOLVANO, Fernando; KORTADI, Edorta. Turre Luzea / Museo Gustavo de Maeztu. Zarautz / Estella. 24 x 16,5 cm. 36 or.
- Jose Antonio Agirre. ZUBEROGOITIA, Aitor. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 111 or.
- Joxeme eta eroen ohelikopteroa. (b). MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier//Zabaleta, Jon. Elkar. Donostia. 21 x 14 cm. 74 or.
- Joxeme ezkirol. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier//Zabaleta, Jon. Elkar. Donostia. 21 x 14 cm. 82 or.
- Kalezulo. MENDIZABAL, Jexuxmari «Bizargorri». Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 135 or.
- Karramarroaren aztarnak. ETXEBERRIA CANALES, Hasier. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 109 or.
- Katalina Erauso. ZUBEROGOITIA, Aitor. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 133 or.
- Kiriko eta animaliak. (i). ELENA, Horacio; MARTI, Isabel//Elena, Horacio. Timun Mas / Elkar. Barcelona / Donostia. 21 x 21 cm. 8 or.

- Kiriko jolas-parkean. (i). ELENA, Horacio; MARTI, Isabel//Elena, Horacio. Timun Mas / Elkar. Barcelona / Donostia. 21 x 21 cm. 8 or.
- Koaderno Handia. (i). KRISTOF, Agota/Mujika Gallastegi, Eskarne. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 219 or.
- Koldo Mitxelena Elissalt. 1915-1987. (e). COROMINES, Joan; ESTORNES, Idoia; GORROTXATEGI, Joaquin; JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos; KNORR, Endrike; MADONIA, Giovanna; MONREAL, Gregorio; PEREZ GAZTELU, Elixabete/Coromines, Joan; Estornes, Idoia; Gorrotxategi, Joaquin; Jimenez de Aberasturi Juan Carlos; Knorr, Endrike; Madonia, Giovanna; Monreal, Gregorio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 22 x 22 cm. 186 or.
- Kristo Ebolin geratu zen. (i). LEVI, Carlo/Biguri, Koldo. Alberdania. Irun. 20,5 x 14 cm. 315 or.
- Kutxaren Gizarte eta Kultur Ekintzaren 1996ko Balantzea / Balance Obra Social y Cultural Kutxa 1996. (e). Kutxa. Donostia. 26,5 x 25,5 cm. 113 or.
- La innovación tecnológica en las empresas de las Comunidades Autónomas del País Vasco y Navarra. BUESA, Mikel; NAVARRO, Mikel; ZUBIAURRE, Arantza. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 150 or.
- Lanegunetan tipologiei buruzko azterketa. Denbora-Aurrekontuen Inkesta 1993 / Análisis de tipologías de jornadas laborales. Encuesta de Presupuestos de tiempo 1993. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 23,5 x 21 cm. 88 or.
- Leiho-oihalen mugetan. GARCIA TRUJILLO, Sebastian; ITURBIDE, Amaia; KORTAZAR, Jon. Erein. Donostia. 22,5 x 13,5 cm. 212 or.
- Mahatma Gandhi. ZUBEROGOITIA, Aitor. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 124 or.
- Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?. (i). CALLEJA, Seve/Ormazabal, J./Losantos, Cristina. Elkar. Donostia. 19 x 16 cm. 23 or.
- Mendialdeko bizimoduak / Comunidades de montaña / Sociétés de montagne. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 410 or.
- Micaela Portilla Vitoria. ORTIZ DE URBINA BASABE, Antonio. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 20,5 x 14 cm. 93 or.
- Migrazio-mugimenduen estatistika 95 / Estadística de movimientos migratorios 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 131 or.
- Mugikortasuna Vitoria-Gasteizen 1996ko abendua / Movilidad en Vitoria-Gasteiz diciembre 1996. (e). GARRAIO ETA HERRILAN SAILA (E.J./Olmo Ilarza, Javier del; Azanza Arbuza, Josu; Ellakuria Ayo, Miren**. E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 25 x 21 cm. 107 or.
- Naturzale. Cuadernos de Ciencias Naturales. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 174 or.
- Nazioarteko Terminologia Biltzarra / Congreso Internacional de Terminología / Congrès International de Terminologie / International Congress on Terminology. (e). ASKOREN ARTEAN. IVAP / UZEL. Donostia. 24 x 17 cm. 864 or.
- Obsexuen Kluba. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 128 or.
- Ospitale Estatistika 95 / Estadística Hospitalaria 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 193 or.

- Ospitale-alten Estatistika 95 / Estadística de altas hospitalarias 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 123 or.
- Ospitaleez kanpoko Estatistika Publikoa 95 / Estadística extrahospitalaria Pública 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 91 or.
- Ostegunak. ARRETXE, Jon. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 107 or.
- Parisko Andre Maria. (i). HUGO, Victor/Azkune Mendia, Iñaki. Erein. Donostia. 20,5 x 12,5 cm. 553 or.
- Piedra de sol / Eguzki harria. (e). PAZ, Octavio/Landa Goyogana, Josu. Instituto Vasco-Mexicano de Desarrollo / Ministerio de Cultura del Gobierno Vasco. México. 20 x 13 cm. 53 or.
- Pirata jokoa. (i). CALLEJA, Seve/Sarasola, Joan Mari//Mitxelena, Jokin. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 192 or.
- Piztiak. (i). TORGA, Miguel/Montorio, Bego. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 128 or.
- Planificación y organización de la escuela plurilingüe / Eskola eleaniztunaren planifikazioa eta eraketa / Planification et organisation de l'école plurilingüe. (e). ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 160 or.
- Puf! Hau nazka. (i). CASALDERREY, Fina/Ormazabal, J./López Domínguez, Xan. Elkar. Donostia. 19 x 16 cm. 23 or.
- Sekretuen liburua. ZUBIZARRETA, Patxi//Olariaga, Antton. Alberdania. Irun. 21 x 15 cm. 79 or.
- Sektore publikoaren aurrekontuen Estatistikak 95-96. Likidazioak. Aurrekontuak / Estadísticas presupuestarias del sector público. 95-96. Liquidaciones. Presupuestos. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 225 or.
- Sociedad, ciencia y tecnología: investigación y empresa. (e). ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 264 or.
- Sombras en la Caverna. El tempo vasco en el cine. GUTIERREZ MARQUEZ, Juan Miguel. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 142 or.
- Suiziden Elkartea. (i). STEVENSON, Robert Louis/Arratibel, Txomin. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 131 or.
- Telefono kaiolatua. CANO, Harkaitz. Alberdania. Irun. 19 x 12 cm. 159 or.
- Teloiaz bestaldean. DIAZ ESARTE, Xabier//Huarte, Patxi. Iruñeko Udala. Iruñea. 23,5 x 17 cm. 141 or.
- Trozos de escuela. BARCELO, Fermin. Erein. Donostia. 22,5 x 13,5 cm. 234 or.
- Txirritaren baratzea Norteko trenbidetik. GARZIA GARMENDIA, Juan. Alberdania. Irun. 21 x 15 cm. 142 or.
- Txomin Badiola: bestearen jokoa / El juego del otro. (e). BREA, Jose Luis/Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza/Badiola, Txomin**. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 27,5 x 20 cm. 110 or.
- Udal biztanleriaren eguneratzea 95 / Actualización de la población municipal 95. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 89 or.
- Zer gertatzen da kuku barruan?. (i). GORRIZ, Josep/Auzmendi, Lurdes//Pla, Imma. Desclée De Brouwer. Bilbo. 19 x 11,5 cm. 76 or.
- Zergatik ez du kantatzen txantxangorriak?. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier//Odriozola, Elena. Elkar. Donostia. 19 x 16 cm. 23 or.
- Zozoak beleari. EGAÑA, Andoni; SARASUA, Jon. Alberdania. Irun. 21 x 15 cm. 235 or.



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20009 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax 943.21.82.07
jakin@jalgi.com